



"Ordenantza fiskaletan hobariak eskatu ditugu"



Natalia Diez-Caballero
Hirukideko zuzendaria | 8

Aretxabaleta epaituko dute abenduan

Laugarren tobera da abenduaren 28an egingo dutena | 31

25 urteren ostean Txinparta taldeak eten egingo du musika ibilbidea | 32



Euskararen Eguneko hainbat ospakizun hasi dira | ikus 'Herriak' saila



Arkitektoa hasi da Eltzia egitasmoa eskareri forma ematen Oñatin | 19



Herritarren laguntzarekin merkataritza euskaldunago

Herrikideen Idazlagunak laguntza-sarea osatu dute Bergaran, merkataritzaren hizkuntza paisaian eragiteko | 11

Bergarako hainbat merkataria, euskalgintzako kide eta herritar, ekimena aurkezten.

ENEKO AZKARATE

Kaskarotenea Ikastolari biziraupenerako hauspoa emateko krosa da gaur

- ▶ Ziburuko ikastolako ordezkariak ere etorriko da
- ▶ Herri krosak arratsaldean egingo dituzte | 4



Basabeazpiko (Aretxabaleta) umeak dortsalak marrazten. | EDURNE BALZATEGI



Txantxiku Ikastolakoak. | TXANTXIKU



Aranzadi Ikastolakoak. | ARANZADI



Arizmendi Ikastolakoak. | GOIENA

SINADURAK

Bizitzak baditu lau aro | 8

AMAI AROYO

8 | Borondatea eta elkarlana

MONIKA BELASTEGI

'Homo sapiens'-a | 25

MIKEL BARGIELA

40 | Argi izpiak Debagoiengan

AINZANE OIARBIDE

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4

ELKARRIZKETA 8 | IRITZIA 9

HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31

ZURE IRAGARKIAK 34 | TELEBISTA-IRRATIA 36

EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38

Garbigailuak ekoizten hasiko da Fagor datorren urtean

Iragarri dute 2015eko lehen hiruhilekoan ekingo diotela garbigailuen produkzioari | 7

Tratu txarrak jasan dituzten emakumeek babes handiagoa eskatzen dute, salatzeko urratsa egiteko | 2

Irtetea ez dadin beste kolpe bat gehiago izan

- ▶ Tratu txarrak jasan dituzten emakumeek babes handiago eskatzen dute, salatzeke urratsa egiteko
- ▶ Hobetu beharreko arloetako bat judiziala dela diote; baita gizartearen sentsibilizazioa ere

Emakume bat leihotik begira. | JAGOBA DOMINGO

IRATI GOITIA | ARRASATE

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Eguna pasa berri da: azaroaren 25a. Askok izan dira egun horren bueltan antolatutako ekintzak. Izan ere, oraindik bada zer salatu. Osasunaren Mundu Erakundeak mundu osoko arazoa dela ohartarazi du. Izan ere, munduko emakumeen %35ek jasan izan dute indarkeria fisiko edo sexualen bat bizitzan. Eta munduan eraildako emakumeen %38 bikotekideak eragindakoa izaten dira. Horiek dira OMEk 2013an argitaratutako txosteneko datuetako batzuk; beste hainbat zifra gordin daude. Gurean, Seguritasun Sailetik zehaztutakoaren arabera, 4.765 emakumek jasotzen dute Ertzaintzaren babes motaren bat. Horien artean, 1.103 andrekin daramate Bortxa telefonoa, 34k eskolta pertsonala dute eta 31 kasutan daramate eskumuturreko elektronikoa erasotzaileek.

Hemen batutako hiru kontakizunek ere argi adierazten dute asko dagoela egiteko [izenak ez dira agiazkoak].

ARRATE

"Bidea ez da erraza, baina eman urratsa"

Hiru urte pasa dira Arratek bikotekidearekin harremana eten zutenetik. Distantziak begiratzen dio gertatutakoari orain; hamasei urtez itsutu zuen maitasunak, ordea: "Hasieran, irteten hasi ginenean, bazituen gauzatuak. Baina orain ohartzen zara horretaz. Orduan ni hain itsututa nengoen... burua makurtzen nuen, hura lasai egon zedin". Familiarengandik eta lagunengandik ere urrunduta zuela dio.

Haurdun gelditu zenean egin zuen egoerak okerrera, ordea: "Umea izateko hamabost egun gelditzen zitzaizkidanean, gurasoak etorri ziren etxera opari bat ekartzera. Joan zirenean, aztoratu egin zen, jeloskor zegoela zirudien. Eztabaidatzen hasi ginen, labana bat hartu eta paretaren aurka jarri ninduen. Hori izan zen lehen aldia". Ondoren, ohikoak izan ziren irainak -'urdanga!'- tirakadak, bultzakadak eta kolpeak. "Iritsi zen une bat sukaldetan atari bizkarra ematen jartzen nintzela -bi alboetan seme-alabak eta hura aurrealdean-, ihesean irteteko", kontatzen du. Azkeneko kolpeak ospitalera eraman zuen. "Banatu nahi nuela esan nionean, hark ez zuen nire erabakia onartu. Etxea utzi eta gurasoengana joan nintzen. Hark abandonuagatik salatuko ninduela esan zidan. Ondorioz, etxera itzultzea erabaki nuen, baina banaketako paperak bion artean egiteko asmoz. Nire bizitzako hamazazpi egunik txarrenak izan ziren. Egun baten mugikorrarengatik hasi ginen eztabaidatzen. Telefonoa kendu nahi zidan eta bultzakadak ematen hasi zen. Komunera eraman ninduen. Komun-ontzian jarri ninduen eta bultzatu egin. Uste nuen burua hautsi behar zidala. Ihes egin nahi nuen; bizilagunei txirrina jo. Hori ikusita, kolpeka bota ninduen etxetik. Azkenean, lortu nuen bizilagunak ohartaraztea eta euren etxean sartu ninduten. Hamar minutu pasa zirenean, txirrina jo zuen gimnasia zihola esateko eta nahi banuen itzultzeko etxera edo joateko gurasoenera". Senideengana jo eta 016 telefono zenbakira deitu zuten. Azalpenak jaso ostean, ospitalera joan ziren: "Oso ondo artatu ninduten. Esan zidaten

ez zekitela nik salatzeke asmorik nuen, baina eurek txostena bidali behar zutela epaitegira. Orduan nik baietz esan nien, salatu egin behar nuela". Hor ekin zion Arratek ibilbide judizialari, ez erabat konbentziturik: "Uneoro zabilta pentsatzen ea ondo egiten ari zaren, zure seme-alaben aita dela edo akaso ez dizula salatzeke besteko tratu txarrik eman".

Gertaera latz horren hurrengo egunean izan zuen Arratek epai-

ESANAK

"Salatzean, ondo egin duzun zalantza izaten duzu"

ARRATE | EMAKUMEA

"Berriz berdina sufritu aurretik hemendik joango naiz"

ANA | EMAKUMEA

"Zure burua ez duzu tratu txarrak jasan dituen emakume gisa"

MAITE | EMAKUMEA

keta azkarra. Familiarteko errieta izan zela ebatzi zuen epaileak eta Arratek etxera itzuli behar zuela gaineratu. "Hori entzunda... ezin nuen sinetsi erabakia hori izan zenik, kolpez beteta iritsi nintzen-eta. Eskoltatu ninduten ertzainek lasai egoteko esaten zidaten". Gurasoen etxera joan zen bizitzera. Bikotekideak, baina, ez zuen bakean uzten: telefono deiak, etxe azpian itxaroten... Mehatxuak eta aldi berean berarekin itzultzeko eskaerak. Urtebete itxaron behar izan zuen txartu txarren epaiketarako; tartean, beste salaketa bat jarri behar izan zuen mehatxuenegatik: "Epaiketaren ostean hildakoak izango zirela esan zidan. Nire gurasoak zituen begitan". Epaiketaren unea ikaragarria dela dio: "Itxarongela berean jartzen zaituzte eta haren irainak entzun behar dituzu". Hemezortzi hilabeteke kartzela zigorra ezarri zioten bere bikotekide ohiari eta sei urteko urrutze agindua. Ondoren, bi hilabetera etorri zen mehatxuenegatik epaiketa. Ezarri zioten hama bi hilabeteke kartzela zigorra. "Espetxera joango litzateke. Baina fiskalarekin tratu bat egin nuen. Hala, hark gizarte zerbitzuak egingo zituen, eta nik egun horretatik bertatik izango nuen urrutze agindua bederatzi urterako. Hori zen nahi nuena". Hor ez ziren, baina, epaiketak amaitu. Guztira, hamahiru izan ditu. Justizian badela zer hobetu dio; aipatzen ditu: epaitegietako enpatia falta, ofiziozko abokatuek kasua aztertzeke duten denbora falta, erasotzailea behin eta berriz gela berean izatea urrutze agindua izan arren...

Arratek berregin du bizitza. Familiaren, lagunaren eta emakume taldearen babesa nabarmendu

ditu. Bere bikotekide ohiak zainzapeko bisitak izaten ditu seme-alabekin. Horrek asko lasaitzen du. "Bidea ez da dirudien bezain erraza. Ez da 016ra deitzea soilik, baina egoera horretan dauden emakumeek egin dezatela, urratsa egin dezatela".

ANA

"Emakumea izanik, hark esandakoa egin behar nuela zioen"

Istoria mingarria da Anarena. Jasan dituen kolpeengatik eta bizi izatea egokitu zaion bizimodu gogorarengatik. Duela hiru aste ertzain-etxean amaitu zuen, bikotekideak izandako eztabaida baten ondorioz. Baina egun bistakoak ez diren ubeldu asko ditu.

Bere lehen semearen aitak utzi zizkion lehen arrastoak: "Hark taberna bat zuen, baina etxera ez zuen dirudik ekartzen. Egia esan, hark edaten zuen dena eta lagunei ere doan ematen zien alkohola. Nik gastuak ordaindu behar genituela esaten nion. Horietako batean, haserretu, labana bat atera eta lepoan jarri zidan. Bereak bere diruaz nahi zuena egiten zuela erantzun zidan". Harreman sexualak izateari uko egiteagatik ere jaso zuen gaitzespena Anak: "Zertarako zaitut, horretarako balio ez baduzu?", esan zidan". Bizitzaz aldatu nahi zuela esaten zion bikotekideari, baina umea kenduko ziola mehatxatzen zuen. "Beldur nintzen; izan ere, nire familia oso txiroa da, eta harenak berriz, errekurtsio gehiago zituen. Ondorioz, abokatu hartu eta umea kenduko zidala pentsatzen

nuen". Hala, ez zen etxetik joatera ausartzen. "Esaten zidan emakumea izanik berak zioena egin behar nuela". Azkenean, baina, egin zuen urratsa. Bikotekideari umea erori eta hark kolpe handi bat hartu zuenean erabaki zuen behin betikoz alde egitea. Hor ez zen bere kalbarioa amaitu, ordea. Lehenaren mehatxuei, bigarrenengo batenak gehitu behar.

Beste bikotekide bat aurkitu zuen. Gainerako hiru semeen aita. Kasu horretan ere ohikoak ziren kolpeak eta mehatxuak: "Esaten zidan bera joango zela etxetik. Izan ere, beste emakume batekin ere bazituen haurrak. Nik horrenbeste maite nuen, ikaragarritzko beldurra nion horri. Beraz, isildu egiten nintzen". Abortatzeko ere eskatzen zion bikotekideak: "Haurdun gelditzen nintzenean, zerbait egin behar nuela esaten zidan. Nire herrialdean debekatuta dago, ordea. Pare bat bider egin behar izan nuen. Farmazian ematen zizkidaten medikamentuez egiten nuen. Baina horietako baten, ezin izan nuen abortatu eta semea arazotxo batekin jaio zen". Azkenean, hegazkin bat hartuta aldendu zen: "Nire ama hemen bizi zen. Nik ez nion gertatzen zena kontatzen, baina bai nire familiakoek. Sufritzen nengoela ikusita, hona etortzeko esan zidan. Bikotekideari esan nion diru pixka bat aurreztu eta hura hona ekarriko nuela. Bestela ez zidan etortzen utziko". Baina itsasoa ez zen harremana gutziti eteteko gai izan: "Oporretarako itzultzen nintzenean, nire bila etortzen zen. Gaizki zegoela eta sufritzen zebilela esaten zidan. Orain dela hiru urte joan nintzen

azkenengo aldiz, eta haurdun itzuli nintzen. Ez zidan sinetsi umea berea zenik".

Hiru urte pasa dira ordutik, eta orain beste bikotekide bat du Anak. Hark eman dio azken kolpea. Orain dela hiru aste eman zion ukabilkada baten ondorioz ertzain-etxean amaitu zuen.

Anak ez du inoiz ezer salatu: "Han, nire herrialdean, ezberdina da. Han ez dizute kasurik egiten". Hemen ere ez da ausartu, oraingoz: "Nahiago dut hemendik alde egin, salatu baino. Berriz ere berdina sufritu aurretik, joan egingo naiz".

MAITE

"Ez dut ulertzen orduan nintzen pertsona"

Maite babesgabe sentitzen da. Ez du esperotako erantzunik jaso. Justiziarekin haserre ere badago. Egunak, hilabeteak edo urteak irauten duen prozesuaz etsita.

Bost urte baino gehiagoz jasan behar izan zituen tratatu txarrak: "Hasiera batean ikusten dituzu gauza arraro batzuk, baina gerora egiten du benetan egoerak txarre- ra. Ez da bat-batean hasten. Egun baten hitz zatar bat da, hurrengoan bi eta hilabetera lau". Eraso psikologikoak ziren gehienak bere kasuan, fisikoak gutxiengoak: "Momentuan ez zara kontziente. Ondoren, kon- turatzen zara zer-nolako lana egin duen zu ezerezean uzteko. Nik pentsatzen nuen dena gaizki egiten nuela, dena nire errua zela. Hala, eraso fisikoa izan zenean, ni ez nintzen kapaz izan nire burua babeste- teko ere. Errudun sentitzen zara".

Kalera irten dira azaroaren 25ean

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Eguna izan zen martitzenean. Hainbat ekintza egin dira bailaran: elkarretaratzeak, muralak, ikus-entzunezkoak...

Gogora ekarri dute egoera horretan dauden emakumeek gizarte zerbitzuetara jo dezaketela laguntza eske. Hain zuzen ere, bertatik emango diete jaso dezaketen laguntzaren berri. Salatu nahi badute, Ertzaintzarengana ere joan daitezke.



Azaroaren 25ean Antzuolan egin zen elkarretaratzea. | JON LIZARAZU

Mehatxurik ohikoak hauek zirela dio: "Nire buruaz beste egingo dut, zu gabe ez naiz ezer...", esaten zidan, nik hura utz ez nezan". Harremana etetera bultzatu zuen arrazoia ez du publikoki esan nahi, beldur da bikotekideak bere aurka erabiliko ote duen. Izan ere, oraindik ez da amaitu prozesu judiziala.

Salatzeko erabakia hartzea ere kosta zitzaion. Harremana etetea erabaki zuenean ere, ez zuen horrelakorik egin. "Hain nahastuta zaudete. Zure burua ez duzu tratatu txarrak jasan dituen emakume bat bezala", dio. Banandu ostean, bakean utziko zuela uste zuen arren, ez zen hala izan. Azkenean, salatu egin behar izan zuen: "Etxetik alde egin nuen, baina hark ez zuen amorerik ematen, beti zebilen nire atzetik. Bere jarrera eta mehatxuak gero eta bortitzagoak ziren. Ikusi nuen bakarrik ezin nuela, neurri batzuen

beharra nuela. Hein batean, ez nuen kontziente nintzelako egin; baizik egoerak horretara eraman minduelako. Babesa behar nuelako". Ondoren etorri da prozesu luzea, luzeegia, Maiteren ustez: "Bukatu ezin den zerbait bilakatu da". Bikotekide ohiak urruntze agindua hausten duen bakoitzean, beste epaiketa bat izaten du eta berriro hutsetik hastea dela dio. "Azkenengo urteetan hilero joan behar izan dut ertzain-etxera; askotan, baita bi edo hiru bider ere. Eutsiezina da". Horren etsita dago, salatzeko ezer onik ekarri ez diola uste du: "Nik nahi nuena babesa zen, baina babes horrek dakarren prezioa garestiegia da. Ni ezin naiz etxetik bakarrik irten. Atzera egiteko aukera banu, alde egingo nuke". Oso kritikoa da justiziarekin: "Epaiketara ezin zara egiarekin bakarrik joan, hori ez da nahikoa. Eraman

behar dituzu egia eta probak. Bestela, ez du ezertarako balio. Eta probak izanda ere, hainbatetan oso gutxirako balio dute". Kritiko da baita segurtasunerako hartzen diren neurriez: "Guk daramagu bortxa edo batzuek eskolta". Gizartean ere asko dago egiteko, haren esanetan: "Askok erakusten dituzte euren elkartasuna edo babes, baina benetan bakarrik sentitzen zara. Bestalde, askok egoera eza- gutu gabe egiten dute berba. Ni neuk ez dut ulertzen zela aguantatu nuen horrenbeste. Nola barkatu nion behin eta berriro. Zuk zeuk ez baduzu zeure orduko pertsona ulertzen -anulatuta zaudete-, nola ulertuko dute besteek?".

Maiteren etsipenak erakusten du asko dagoela hobetzeko. Bidean harri asko daudela. Emakumeek salatzeko urratsa har dezaten, erabakigarria izango da trabak kentzea.

PEPA BOJO | PSIKOLOGOA

"Salatzea edo banantzea garrantzitsua da; hala, funtsezkoa da babes ematea"

Tratu txarrak jasan dituzten emakumeek talde bat dute bailaran, euren sentipenak elkarbanatzen dituzte. Pepa Bojo da psikologoa.

Zein da talde horren helburua? Emakumeen errehabilitazio psikologiko jarraitzea; izan ere, taldean dauden gehienek amaituta dute banakako terapia. Gainera, epaitegietan luze jotzen du, eta, beraz, ikusten genuen garrantzitsua zela gaia lantzeko toki bat izatea. Egoera beretik pasa diren emakumeak ezagutzeko aukera ere ematen die. Helburua da eurek gertatu dena benetan ulertzea, sentitzen duten erruduntasuna gainditzea, besteak beste.

Nola iristen dira terapiara?

Psikologikoki oso gaizki. Ohikoak dira: antsietatea, depresioa, gogoratu nahi eza, nahasmena, *shock* egoera, erruduntasuna, beldurra... Kontraesan handia bizi dute. Bate- tik, ikusten dute ez dela onargarria eta ez dute horrekin jarraitu nahi. Bestetik, euren bikotekidea da eta askotan baita euren seme-alaben aita ere. Beraz, zalantzak izaten dituzte. Baina batez ere beldurra dute oso barneratuta. Hori maneiatzen ikasi behar dute. Bestalde,

zaila egiten zaie erabakia hartzea. Beraz, emakume batek salaketa jartzen duenean edo banantzea erabakitzen duenean, oso gauza garrantzitsua egiten ari da. Horre- gatik da funtsezkoa ahalik eta babes eta laguntza handien ematea.

Gizarte bezala zer egin dezakegu? Gauza asko. Sentsibilizazioa eta arazoaren ulermenean sakontzen joan, arazoak ezagutu arazoa erra- dikatzeko edo pentsamolde matxis- ta eliminatu, esaterako. Noski, jarrera desegokiak ikusten ditugu- nean nolabait salatu edo begi-bistakoegin.

"Genero biolentziaren sustraiak desberdintasunean daude" Instituzionalki, berriz, prebentziorako planak egin eta laguntzak -ekonomikoa, psikologikoa, labora- la...- eskaini. Orokorrean, berdint- asunaren alde lanean jarraitu.

Araoaren muina berdintasun falta da?

Bai. Genero biolentziaren sustraiak desberdintasunean daude; patriar- katuaren oinarri ideologikoetan. Orain dela gutxi arte tratatu txarrak autoritate edo errespetu-zeinu bezala ulertzen ziren. Eta maita- suna posesio sentimendu bezala.



I.G.

Hala, emakumeen aurkako indar- keria ezkutuan izan da urteetan. Arazo pribatu kontsideratzen zen. Egun, onartezintzat ikusten da. Gizartearen ikuspuntua asko alda- tu da. Hori guztia mugimendu eta borroka feministak berdintasunaren alde eginiko lanari esker izan da.

Gizarte berdinaro bat garatzen hasi garenetik landu dugu emakumeen aurka- ko indarkeriarekiko ikusmolde hau.

Oraindik asko dago

hobetzeko?

Herri askotan gauzatu dira protoko- loak edo interbentziorako programak; adibidez, hori garrantzitsua da. Gau- za asko daude, baina, hobetzeko. Hein batean, aldatu behar dugu tradizionalki generoei lotutako iden- titateak, maite dugun modua, zain- tza modua... Berdintasunetik sor- tuko dugu bizitzeko, erlazionatzeko eta maitatzeko beste modu bat.

MAITE ITURRAPE | ABOKATUA

"Legea aurrerapausoa izan zen, baina oraindik asko dago egiteko"

Tratu txar egoerarako protoko- loa aurkeztu dute asteon Esko- riatzan. Hori lantzen ibili dira Cla- ra Campoamor elkarrekoak; tartean, Maite Iturrape abokatua.

Clara Campoamor elkarreko urteak daramatza lanean. Zer egiten duzue, zehazki?

Hainbat zerbitzu ematen ditugu. Normalean, eskaintzen dugu ahol- kularitza juridikoa. Horretaz gain, gizarte laguntzen edo laguntza ekonomikoaren gaineko informazioa ere ematen dugu. Gai penalak ere eramaten ditugu.

Izan da aurrerapausorik?

Orain dela hamar urte legea sortu zenean eman zen aurrerapauso bat, baina oraindik gizarteak urrats asko egin behar ditu, batez ere, berdintasunari dagokionez.

Alde judizialari dagokionez, emakumeek diote asko dagoela hobetzeko.

Zoritxarrez, bai. Egunero ikusten ditugu egoera desegokiak. Ema- kume hauek egoera larrietan dau- de eta epaitegietara joaten direnean ez dute inolako laguntza psikolo- gikorik edo babesik izaten, adibi- dez. Orduak egon behar izaten dute itxaroten urruntze agindu



I.G.

bat lortzeko. Edo luze jotzen dute kontuek epaitegietan; askotan, bi edo hiru urte.

Salaketa faltsuek ere min handia egiten dietela diote. Horrenbeste dira?

Existitzen dira, baina gainerako delituetan bezala. Zenbakiak oso txikiak dira. Eta bai, tratatu txarrak jasaten dituzten emakumei min handia egiten diete horrelako komentarioek. Gainera, pertsona bati sententzia edo kondena bat ez jartzeak ez du esan nahi sala- keta faltsua izan denik; baizik eta ez direla lortu pertsona hori kon- denatzeko frogak. Askotan ez da erraza izaten horiek lortzea, batez ere, biolentzia psikologikoen kasuetan.

Milaka lagun korrika gaur, ikastolaren alde

- ▶ Ziburuko Ikastolaren aldeko krosak egingo dituzte
- ▶ Goizean umeak aterako dira, iluntzean herritarrak

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Euro bat korrikalari bakoitzeko. Horixe da eskualdeko ikastolek Ziburuko (Lapurdi) Kaskarotenea Ikastolarendako eskatuko dutena gaur egingo diren kros solidarioen bitartez.

Dagoeneko esan daiteke 4.100 euro poltsikoratuta dituztela. Arizmendi (Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza), Aranzadi (Bergara) eta Txantxiku (Oñati) ikastoletan diharduten 4.100 ikasleek parte hartu behar dute eta, goizean edo arratsaldean, Debagoieneko bost herritan egingo diren krosetan. "Baina ea beste 4.000 animatzerik badugun, ikastola txiki horrendako hauspo handia delako gure dirua eta babes", adierazi du Edurne Baltzategik, Arizmendi Ikastolako komunikazio arduradunak.

17:30ean irtengo da lehen herri krosa, Arrasateko Herriko Plazatik. 18:00etan, berriz, Bergarako, Oñatiko eta Aretxabaletako krosen hitzorduak dira, eta Eskoriatzako auzoan da egingo den azkenekoa (18:30ean).

"Parte-hartze handia"

"Oso pozik gaude; igartzen dugu parte-hartzea oso handia izango dela eta hori espero dugu, plazak jendez betetzea, hori da helburua", azpimarratu du Baltzategik.

Ekimenetan parte hartzeko nahikoa da krosen irteera puntuetara joan eta bertan euro bateko ordainketa sinbolikoa egitea, alde aurretik izena eman barik. Lasterketen ezaugarri dagokie-

nez, berriz, elkartzasuna oinarri duen lasterketa izanda, "oinez egiteko modukoak dira, asko jota 500 bat metroko ibilbideak izango dituztenak (...) etor daiteke txandalik eta halako barik; alde horretatik ez dago aitzakiarik", azpimarratu du Arizmendi Ikastolako ordezkariak.

Oro har, beraz, sinbolismotik asko izango du ekimenak, Bergarako Aranzadi Ikastolakoek egingo dutena adibide: "Ikasleek euro bat ekarri behar dute ikastolara eta ekitaldian gela guztietako ekarpenak kutxa handi batean sartuko ditugu Ziburura bidaltzeko".

Herri guztietan, gainera, ikasleek egindako dortsalak salduko dituzte krosa hasi baino ordu laurden lehenago, euro baten truke.

Reala, Asegarre...

Krosez gainera, "herri guztietan, honen bueltan giroa da arratsaldea ekintzekin (umeentzako tailerrak, musika emanaldiak, txosnak...) guztietan bukatuko dugu agur hunkigarri batekin: manifestua irakurriz, bertsoak entzunez... 18:00-19:00ak bitartean".

Eta hainbat bide jarriko dituzte dirua batzeko: tabernak, tonbola, pegatina salmenta... "Tonbolak jarriko dituzte Aretxabaletan eta Eskoriatzan, eta hainbat erakunde, elkarte eta dendak eman dute materiala: Realak, Asegarrek, Orioko eta Hondarribiko arraunlariak, Goienak, Artemanek, Jakioek... ezin guztiak aipatu. Eta herritarrek ere lagundu ahaliko dute hor txartelak erosiz".



Aretxabaletako Basabeazpiko hiru ume, dortsalak erakusten. | EDURNE BALTZATEGI

EGITARAUA HERRIZ HERRI

ARRASATE

10:30-11:00 Krosa, erdigunean (HH eta Ziburuko ikastolako ordezkariak).

11:00-12:00 Ipuin kontaketa eta magia ikuskizuna.

15:00 16:30: Ikasle nagusien krosa.

16:30-18:00: Tailerrak eta karaokea.

17:30-18:00 Herri krosa eta agur ekitaldia. Herriko Plazatik abiatuko da.

BERGARA

11:30 Txikien krosa.

15:30 Ikasle nagusien krosa.

17:00 Jolasak, plazan.

18:00 Herri krosa: plaza, Barrenkalea, Irizar, Fraiskoizuri, Herrilaganak, Irala, Barrenkalea eta plaza.

18:30 Ekitaldia: bertsoak, trikitia, dantza... eta tabernaren irekiera.

19:00 Herria dantzan.

OÑATI

11:00-13:00 HH eta DBHkoen krosa.

15:30 LHkoen krosa.

17:00-19:00 Tailerrak, dantzak eta musikariak

18:00 Herri krosa, mezu irakurketa, bertsolariak... eta gero taberna.

ARETXABALETA

14:30 Ikasleen krosa.

16:30-17:30 Umeendako jolasak, tailerrak... eta tonbola.

18:00-18:30 Herri krosa eta agur ekitaldia.

ESKORIATZA

14:30 Ikasleen krosa.

16:30-18:00 Umeendako jolasak, tailerrak.

18:30 Herri krosa.

19:00 Agur ekitaldia eta kontzertuak.

TOKIKO MERKATARITZAREN GARRANTZIA



Jose Allende Landa irakaslea. | JA.

Jose Allende Landa | EHUko katedraduna

"Tokiko merkataritzak harremanak errazten ditu pertsonen artean"

Lanpostu finkoak sortzen ere laguntzen dute saltoki txiki eta ertainek, Allenderen arabera

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Jose Allende (Bilbo) eskualde eta herri planifikazio katedraduna da, EHUUn. Haren ustez, herrietako saltoki txiki eta tradizionalak izan behar dira litere herri bizi, seguru eta adeitsua izateko protagonista nagusiak. **Horren garrantzitsua da haien papera?**

Saltoki txiki eta ertainak dira herri adeitsu, plural eta multifuntzionalen alma materrak. Erabilera anitza (bizileku, merkataritza, industria txikia...) irizpide duen garapen jasagarriko ezinbesteko tresna dira. Tokiko merkataritzak erraztu egiten ditu pertsonen arteko harremanak, esparru seguruak, gertutasun irizpidea eta, besteak beste, inguruko nekazaritza eta abeltzaintza jardueraren indartzea. Zentzu horretan, gero eta eskari handiagoa dago gertuko, sasoi eta kalitatezko produktuekin, hormona eta pestizida bakoekin, kimika eta toxiko bakoekin lan egiten duten merkatuak berreskuratzeko. Zenbait kasutan, elikagai mota horiek garestiagoak dira, zatarragoak... baina askoz ere osasuntsuagoak, eta gero eta gehiago baloratzen diren balio sozial, ekonomiko, ekologiko eta kulturalak dituztenak, familiako nekazaritza bultzatzen dutelako, zuzeneko salerosketa zirkuituak bultzatzen dituelako eta baserri-inguruaren idiosinkrasia mantentzen laguntzen dutelako.

Badiozu, baita ere, saltoki txikiak lortzen dutela esparru bat bidezkoagoa izatea, eta baita ere lanpostu finkoak sortzea...

Halaxe da, bai. Merkataritza txiki eta ertainak, eta kasu horretan ez bakarrik elikagaien sektoreak, ahalbidetzen du nazionalen zirkuituen kontrolatik ihes egin ahal izatea, tokiko zirkuitu finantzarioaren mesedetan. Saltoki mota horiek

saihesten dute nekazaritza inguruneen desertizazioa, gertutasun irizpidea indartu egiten dute eta bertako kultura eta biodibertsitatea zaintzen laguntzen dute, gure kultura gastronomikoarekin lotutako plazerak berreskuratzen, bertako produktuekin, kalitatezkoekin... Ez da, inondik inora, zalantzan jarri behar herrietako auzoen eta erdigunearen bizitasunean saltoki txiki eta ertainek duten garrantzia. Zentzu horretan, ez da haien protagonismo komertziala gutxietsi behar periferian kokatuta eta normalean multinazionalen menpe dauden merkataritza-gune handien mesedetan; kasu gehienetan turismo funtzioa betetzen dute haiek, bizitokien dispersio handia izaten dute eta ez dute izaten herri-erdigune garrantzitsurik. Herrietako merkataritzak, berriz, lanpostu finkoak sortzen ditu, eta gure auzoen, herrien eta erdigunearen bizitza aberasten du jasagarritasun irizpideekin. **Gure identitatean ze mailatako papera betetzen dute, beraz?** Esandako guztiak lotura zuzena du gure herri eta eskualdeen identitatearen zaintzarekin. Horiek gero eta mehatxatuago daude globalizazioak berezko dituen homogeneousazioarengatik eta uniformizazioarengatik. Gauza izan behar gara bereizteko globalizazioaren dohain onak gure aberastasun kulturala eta identitate ikurrak apurtzen dituztenengandik. Merkataritza txikia desagertuko balitz, horrek eragindako kostu soziala atzerazina izan liteke.

"Merkataritza txikia desagertuko balitz, kostu soziala atzerazina liteke"

Margarita Romariz | Etxe-Aundiko ugazaba

"Bezeroen eskaera guztiak hartzen ditugu aintzat"

Zerbitzu osoa, urtetako esperientzia oinarritutakoa, kalitatezkoa eta pertsonalizatua eskaintzeko buru-belarri lan egiten dute Etxe-Aundi jatetxe-hotelean, Margarita Romariz ugazabak dioenez

Eraikina bera deigarria da, duen dotoretasunarengatik...

Bai. XIII. mendeko oinetxea da. Nobleziarena. Duen armarriak Oñatiko udal-txekoari erreferentzia egiten dio. Badirudi lazarragatarrak inguruko etxe askoren fundatzaile izan zirela, tartean honena. Hainbat aldaketa izan ditu: oinetxe, baserri, jatetxe eta orain hotel ere bai.

Noiztik diharduzue jatetxe modura? 1988an hasi ginen eta harrezkero dihardut arduradun. Hotel moduan, berriz, 1996an hasi ginen lanean. Eta hori ere erabiltzen da ezkontzetarako.

Zuen lantaldeak badu berezitasun esanguratsu bat...

Langile guztiak benetako profesio-

sionalak garena; gutxienez, 15 urteko eskarmentua dute guztiak Etxe-Aundin bertan lanean. Eta horri esker ematen dugun zerbitzua zuzena da, diskretua, adi-adi egoten gara beti eta, batez ere, bezeroari behar duen arreta osoa ematen diogu.

Zein da zuen berezitasuna ezkontzetarako eskaintza duten bestelako jatetxeekiko?

Esandako guztiaz gainera, sukaldoko taldea bera arduratzen dela menuetarako proposamenak egiteaz. Oso-oso menu bariatatuak lantzen ditu. Eloi Iartza da gidaria, ibilbide luzea egin duena. Besteak beste, sukaldaritzarekin lotutako negozio propioak izan ditu, eta, adibidez, Artzakekin lan egindakoa da. Sukaldeko lantaldeari dago-

kionez, gainera, 10 urte daramatzate elkarrekin lanean, eta hori oso garrantzitsua da kalitatezko emaitzari begira.

Sukaldeko proposamen horietatik zer nabarmenduko zenuke?

Kalitatea bereziki zaintzen dugula, lana ondo egitea gustatzen zai-gula. Horren adibide da kalitate turistikoa aitortzen duen Q ziurtagiria badugula. Eta gure elikagaien kalitatea ziurtatzen duten inspektio sanitario eta alergenoen gaineko ziurtagiria ere bai; hori berria da, gainera. Hortik abiatuta, plater eskaintza zabalagoa, bezeroaren beharretara edo gustuetara egoki daitekeena. Guztiak ere, bertan egindakoa, postreak, ezkontzetarako tartak... barne. Eta jakina, egokitutako menuak ere baditugu: umeendakoak, zeliakoendakoak... Nabarmenezkoak dira, baita ere, gure zizka-mizkak. Jakina, horiek ere guk egindakoa dira, eta originaltasun handia dute gainontzeko eskaintzekiko.

Eta instalazioetatik?

Deigarriena gure ezkontza-aretoa da. 240 lagunendako lekua dauka eta oso zabalagoa da. Baina baditugu bestelako jangela txikiagoak ere. Bat 100 lagunendakoa. Eta txikiagoak ere bai. Goxo-goxoak. Talde txikiagoendako... egia esan, asko erabiltzen dira. Horrez gainera, argazki-erreportajeak egiteko oso erakargarria den terraza-lorategia



Margarita Romariz, ezkontza-aretoan.

ere badugu. Aparkaleku handia. Eta ezkontza zibil asko, adibidez, terrazan ospatzen dira eguraldiak laguntzen duenean.

Zer esango zeniekete ezkontzarako jatetxe baten bila dabiltzanei?

Lasai etor daitezela, konpromiso

barik. Gure jangela eta instalazioak ikus ditzatela eta menuen gainean galdetu. Euren eskaera eta behar guztiak hartuko ditugu aintzat. Eta erreserba egiten duenak ez du ezertaz kezkatu beharrik izango; egin behar duen bakarra da goseak etorri. Utz dezatela gainontzeko guztia gure eskuetan.

Zein zentzutan?

Gu arduratzen garelako guzti-guztiarekin. Adibidez, badugu langile bat bere ardura edo zeregin bakarra dela presidentzia-mahaia-ri arreta ematea, gonbidatu berezietara eskaintzea. Edo, adibidez, ni neu arduratu izan naiz ezkontzetako musika aholkatzeaz.

Entzunda daukat bezeroekin detalletxo berezi bat ere izaten duzuela...

Nire ustez, berezia da, bai. Ezkontzako cava guztia gure kontura doa, oparitzen diegu ezkontza-aretoa edertzeko jartzen ditugun lore guztiak eta bikoteek parte hartzen dute Kanarietarako bidaiaren zozketan.

Menu bereziek arrakasta handia

Menu bereziak ere ematen dituzte, taldeendako eta asteburuetarako; jangela bete egiten da halakoekin. Eta, gainera, aukera ematen dute horiek ere bezeroen beharretara egokitzeko, berez ere oso prezio onean eskaini arren. Horrez gainera, menu-karta berria dute, "goxo-goxoa: onddo-tosta, olagarro entsalada...".



Ezkontza-aretoaren bi ikuspegi.



Zure bataio, jaunartze edota ezkontza ospakizunendako aproposa


leku eta egun ahaztezinak



CALIDAD TURISTICA

Etxe Aundi
Jatetxea-Hotela**
Torre Auzo 9. OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 19 56
www.etxeaundi.com

Ez zaitez galdu.



EROSKETAK DEBAGOIENEAN EGIN!



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA



Fagor CNAk garbigailuen ekoizpenari ekingo dio

2015eko lehenengo hiruhilekoan hasiko dira garbigailuak produzitzen, Arrasateko Garagartzan

MIREN ARREGI | ARRASATE

Datorren urteko lehen hiruhilekoan hasiko da Fagor CNA garbigailuen ekoizpenarekin, Arrasateko Garagartzako lantegian. Horixe aditzera eman zuten atzo goizean, eguna, CNAko zuzendariak Arantza Tapia Ekonomiarren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarekin batera Garagartzako lantegian egindako bisitaren ostean.

Hiru lantegitan lanean

Fagor CNA Groupeko arduradunek bideragarritasun plana, enpresaren egungo egoera eta etorkizunerako proiektuak partekatu zituzten Arantza Tapia Ekonomia sailburuarekin. Bileraren ostean, poza azaldu zuten guztiek. Poza, Fagor produktu berriak egiten hasi delako, eta poza, hiru lantegitan, Bergaran, Eskoriatzan eta Garagartzan, dagoeneko produkzioa hasita dagoelako. Bergaran gas berogailuak egiten dihardute, Eskoriatzan etxeko



Jorge Parlade, Arantza Tapia eta Francisco Martin. | MIREN ARREGI

tresneria eta Garagartzan dago egosketa-puntua.

200 labe eta 300 plaka

Urriaren 6an hasi ziren berriz lanean Eskoriatzako lantegian eta handik astebetera hasi ziren Garagartzakoan. Hilabete eta erdira, 155 langilek dihardute Garagartzan, labeak eta plakak egiten, eta, esandako moduan, 2015eko lehen hiruhilekoan hasiko dira garbigailuak egiten. Une honetan, 200 labe eta 300 plaka egiten dituzte egunean Garagartzan eta asmoa da martxora bitartean ekoizpen hori bikoiztea. Bada, Garagartzako lantegiko 155 langileei gehitu behar zaizkie Bergarako Geysarren diharduten beste 124 langile.

CNAko zuzendari Jorge Parladek eta Francisco Martinek azaldu dute hartzekodunen konkurtsoetik urtebetera Fagor CNA Groupeko kide dela, eta produkzioaren unitateen zatirik handiena martxan dagoela. Zuzendari kataluniarrak harro agertu dira aurreikusitako epeak bete izanagatik eta Fagor berriz ere mundu mailako erreferente izan dadin lan egingo dutela adierazi dute.

Bestetik, CNAko zuzendariak azaldu dute Edesaren Basauriko lantegia martxan jartzeko kostuen eta errentagarritasunaren gaineko azterketak egiten dihardutela eta ez dutela Basauriko lantegiarren gaineko erabakirik hartu. Gaineratu dute Bizkaiko lantegia berriz zabaltzearen alternatiba litzatekeela termo elektrikoak Bergaran edo Garagartzan egitea.

Urteko elikagai bilketarik handiena, gaur eta bihar

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Gaur, egubakoitza, eta bihar egingo du Bergarako Elikagai Bankuak (Gipuzkoakoarekin batera) urtean egiten duen jaki bilketarik handiena Debagoienean.

Eroski, BM, Super Amara, Lidl eta Dia supermerkatuetan 32 bilketa puntu jarriko dituzte. Kasu gehienetan, saltokien sarreretan egongo dira puntuok, kartel handi batekin identifikatuta. Horrez gainera, elikagai bankuko boluntarioak ere egongo dira, txaleko horiekin, jakiak batzeko poltsak banatzen erosleen artean.

Janari-poteak, esnea, pixoihalak, aurrez prestatutako jakiak, esnea, garbantzuak, olioak... eman daitezke. Horren harira, Bergarako Elikagai Bankuko arduradun Jose Antonio Agirrebeñak esan du familiek gero eta eskara handiagoak egiten dituztela umeendako eta arlo horretan "nahiko gaizki" dabiltzala.

Iaz 120.000 kilo elikagai batu zituzten eskualdean eta espero dute aurten ere zifra horretara heltzea, gutxienez.

Extremadurako elkarrekin jaialdia egingo dute Oñatin

Zortzi abesbatzak parte hartuko dute bihar, zapatua, Oñatiko Santa Ana aretoan egingo duten Gabon kanten eta dantzen 23. jaialdian. 17:30ean hasiko da Extremadurako Elkarrekin Euskadiko Federazioak antolatutako ekimena. Parte-hartzaileen artean, Oñatiko Aloña erretiratuen abesbatzak ere egingo du saioa. Gainontzekoen artean, Donostiako, Astrabuduko, Galda-kaoko, Santurtziko, Ermuko, Errenteriako eta Legazpiko ordezkaritza izango da.

Gabonetako opariak lantzeko tailerra Katxalin elkartearen

Abenduari begira hainbat ekimen gauzatzeko asmoarekin dabilta Katxalin elkarteak Bergaran duen ordezkaritzako kideak. Besteak beste, datorren martitzenean, abenduaren 2an, opariak lantzeko tailerra egin gura dute. Eta aitzakia horrekin, elkartera gerturatzeko bidea erraztu gura diete behar hori duten emakumeei. Hori bai, adierazi dute komeni dela astelehenerako izena ematea, Bideberriko kioskoan, eta 5 euro ordaindu, materiala erosteko.

Candy bideragarria den ustetan, ez dute "amorerik emango"

UBANE MADERA | BERGARA

"Ziur gaude Bergarako lantokia bideragarria dela, eta frogatzen saiatuko gara, denbora kontua da. Uste dugu itxiera aurretik diseinatu dutela, datuak makillatu dituztela irabaziak ezkutatuz". Horixe da Candyko langileek pentsatzen jarraitzen dutena eta asteen prentsaurrekoan berretsi dutena.

Ez dute amorerik emango

Hala, uste bera konpartitu zuten herenegun Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariekin egindako batzarrean. "Diputazioko teknikari batzuk enpresako ordezkariekin elkartuko dira, bideragarritasun posibleak aztertuko. Eta italiarrek bere horretan segitzen badute, bestelako proiektu batzuk aztertzen hasiko gara, Bergarako instalazioetan gauzatzeko, betiere", azpimarratu dute enpresa batzordetik. "Ez dugu etsi behar. Gure lehen aukera da orain arte izan dugun produkzioarekin segitzea, ez dugu amorerik emango, langile talde handi bat nahiko egoera kaskarrean geratuko delako", diote enpresa batzordetik.

Diputazioarekin ez ezik, Eusko Jaurlaritzako ordezkariekin ere batzartu dira Candy-

ko ordezkariek. Jaurlaritzak adierazi du segituko dutela Candyrendako konponbide bila.

Babesarengatik eskerrak

Bestalde, joan den asteen langileen batzordeak eta Candyko zuzendaritzak izandako batzarren ondoren, azken horrek ohar bat kaleratu zuen, eta langileak birkokatzeke plan bat egiteko gertu zegoela esan. Bada, langileen batzordeak gezurtatu egin du hori: "Birkokatzeen inguruan enpresak esandakoa gezurtatu gura dugu. Lana bilatzen laguntzeko azalpen bat eman digute, beste ezer ez, lanpostu bat bera ere ez", diote.

Gauzak horrela, asteen mobilizazioekin segitu dute langileek. Fabrikaren kanpoko aldean egunero daude, besteak beste, enpresak bertatik materiala atera ez dezan zaintzeko. Horrez gainera, atzo, eguna, beste manifestazio bat egin zuten Bergaran. Eta gaur lantegi aurrean elkarretaratzea egingo dute, enpresako zuzendaritzarekin egingo duten batzarraren bueltan.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiete hainbat kolektibo, enpresa batzorde, kultur nahiz gastronomia elkartei jasotzen dabiltzan babesarengatik.

GOIENA paperaren azala Europako onenen artean dagoela erabaki dute

Fagor Etxetresnak hartzekodunen konkurtsoaren aurrekoan sartu zeneko azala da, iazkoa

JON BEREZIBAR | DEBAGOIENA

Egunkariaren alorreko Oscar sariak bezala ezagun diren European Newspaper Awards sariketan Fagor Etxetresnen itxierari buruzko azal berezia saritu dute. Iñaki Iturbe bergararra da Goienako diseinu arduraduna, eta harena da lana.

Hirugarren saria

European Newspaper Awards sariketan saria jaso du egubakoitzeko GOIENA paperaren 570. zenbakiko azalak, 2013ko urriaren 18an argitaratutakoak, hain justu ere.

Sariketa Alemaniako Office for Newspaper Design-ek antolatzen du. Europa osoko ehunka hedabidek hartzen dute parte. Sariketak hogeita hamarretik gora kategoria ditu eta GOIENA paperak toki-hedabideetan 30.000 alez azpiko hedapenaren sailean eskuratu du saria.

Azal hori da Fagor Etxetresnak kooperatiba hartzekodunen konkurtsoaren aurrekoan sartu zenekoa. Langileen iritziak



570. zenbakiko azala. | GOIENA

jasotzen dira, eta, iritzien tonuarekin bat, azalaren kolorea beltza da.

Goienak (lehen, *Goienkaria*-rekin) irabazi izan ditu sariak Newspaper Awards sariketan lehenago ere. Sari nagusia 2003an jaso zuen, *Ondoen diseinatutako tokiko agerkaria European* sailean, hain zuzen ere.

Natalia Diez-Caballero | Hirukide Euskadiko Kide Ugariako Familien Federazioko zuzendaria

"Errentan oinarritutako diru laguntzak familien zirkunstantziak aintzat hartu behar ditu"

- ▶ Euskal familia ugarien elkarte Arrasateko eta Bergarako udal ordezkariekin elkartu da
- ▶ "Gaur egun umeak ez edukitzeko arazoietako bat da bikoteen kontzilio arazoa"

ENEKO AZKARATE | ESKORIATZA

Duela 15 urte sortu zen Hirukide. Urtebete lehenago, 1998an, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan sortu ziren elkarten elkargoa da. Erkidegoko 7.400 familia ugari dira elkarte horretako bazkide. Natalia Diez-Caballero da zuzendaria, sorreratik. Bederatzi anai-arrebaz osatutako familia bateko kide eta lau seme-alabaren ama da. Bergaran izan da oraingo astean, elkarte aurkezten.

Zer moduz Bergaran egindako batzarra?

Oso ondo. Jende asko gerturatu da batzarrera. Gainera, gure elkarte bazkide ez diren asko etorri dira eta hori pozgarria da guretako, elkartearekiko jakin-gura erakusten duelako. Denboraz larri ibiltzen gara, jeneralean, familia ugarietako gurasook, eta batzarrera etortzeko ahalegina egin izana kontuan hartzekoa da. Lehen aldia zen Debagoienara etortzen ginena. Ari gara, pixkanaka, udalerrri ezberdinetara gerturatzen.

Zenbat bazkide dituzue eskualde honetan?

Herri nagusietan, Arrasaten, %36ko barneratze indizea daukagu. Hau da, Arrasateko familia ugari guztien %36 Hirukideko bazkide dira. 219 kide dira guztira. Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoaren gainetik. %31n gaude Erkidegoan. Bergaran, ostera, %19koa da; 152 bazkide ditugu Bergaran. Horregatik aukeratu dugu Bergaran egitea batzarra, nahiz eta beste herri batzuetatik ere etorri den jendea. Gure asmoa da bazkide gehiago egitea, Arrasaten, Bergaran eta Debagoienan, oro har. **Herri agintariek ere elkartu zarete. Ze moduz?**

Bergarako eta Arrasateko udal eta kideekin batzartu gara. Gure helburua izan da ezagutzera ematea elkarte: udaletan, merkataritzan eta herritarren artean.

Udalerrri Familiarki Arduratsuen Dekalogo aurkeztu diezue udal ordezkari. Ze konpromiso hartu dute udal dekalogoarekin lotuta?

Zortzi arlotan egiten diegu proposamena, familia ugarietako konpromisoa har dezaten. Esaterako, ordenantza fiskaletan familia ugarietako hobariak edukitzea eskatu diegu. Izan ere, uste dugu familia ugariok zelanbait zigortuta gaudela, esaterako, ur kontsumoagatik ordaintzen ditugun tasetan. Etxebizitzetako dago-



Natalia Diez-Caballero, Hirukideren kartel baten aurrean, martitzenean, Bergaran. | IRATI GOITIA

kienez ere, alokairuan hartzeko proiektu interesgarriak ditu Bergarako Udalak eta hor ere tratu berezia izan genezake erakundeen partetik.

Merkatarien partetik ze espero duzue?

Uste dugu kolektibo interesgarria garelako, dendari edo ostalarien-

"Asmoa da bazkide gehiago egitea, Arrasaten, Bergaran eta Debagoienan"

"Arrasateko familia ugari guztien %36 Hirukide elkarte bazkide dira"

dako, kuantitatiboki kontsumitzaile onak izan gaitzkeelako eta tokiko komertzioa bultzatuz genezakeelako. Hortaz, tratuak egin genitzake haiekin. Dagoeneko Euskal Autonomia Erkidegoan 500 establezimendu baino gehiagorekin daukagu tratuak eginda Hirukideko bazkideok beharpenak eduki ditzagun.

Azkeneko urteotan handitu egin da familia ugari kopurua hemen?

Egia esan, jaiotze tasak ez du gora egin. 1,3 seme-alaba daukagu eta ez horrek ez du belaunaldien erreleboa bermatzen. Ama bakoitzak gutxienez bi ume izan beharke lituzke erreleboa bermatzeko. Populazioa zahartzen ari da. Hortaz, alde horretatik, ez da sumatzen gero eta familia ugari gehiago dagoenik. Baina, bestalde, datuek erakusten dute familia ugari titulu gehiago dardela orain. Gobernuak ematen duen titulu ofiziala da hori. Eta pentsatu nahi dut lehen, akaso,

familia ugaria izan arren, familia horiek ez zituztela ateratzen titulu ofizialik eta gaur, krisiagatik, ostera, ateratzen dutela. Eskubide batzuk izatearren. Eta, bestetik, egia da gaur egun bikote hainbatek zailtasunak dituela umeak edukitzeko eta ugalkortasun tratamenduak jaso ostean

"Ordenantza fiskaletan familia ugarietako hobariak izatea eskatu dugu"

"Erkidegoan, 500 establezimendurekin daukagu tratuak eginda"

erditze anizkun kasu gehiago ikusten direla. Lehendik ume bat eduki, bigarrenaren bila joan eta, aldi berean, bat baino gehiago erditzen dute. Horretaz gain, Hirukideren lanak ere familia ugarietako gehikuntza zerikusia izan duela pentsatu nahi dut.

Zein da zuen aldarrikapen inportanteena?

Edozein lege edo arau egin edo onartzen den erakundeetan eragiten dugu, benetan, legeak denendako egiten direla bermatzeko. Esaterako, Gobernuak onartuta dauka arau bat 2012a ezker eta nahi dugu aintzat har dadila Euskadin arlo guztietan. Horrek proposatzen du diru sarrerak aintzat hartzen diren erabaki guztietan, pertsona edo familien zirkunstantziak ere hartzen dituela: guraso bakarreko familia izatea, elbarria izatea... Uste dugu zirkunstantzien arabera arautzea zehatz eta justuagoa izan daitekeela. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaien Sailak hartzen ditu aintzat zirkunstantzia horiek diru laguntzak eta banatzerakoan. Eta eskatzen dugu beste sail batzuetan ere aintzat har daitezela. Errentan oinarritzen den edozein laguntza edo zerbitzuko pertsona edo familien zirkunstantziak aintzat hartu behar ditu. Hori da gure oraingo aldarrikapen nagusia.

Jaiotza-tasak handitzeko kanpainak edo ekimenak egiten dituzue?

Gu ez gara jaiotza-tasaren aldeko elkarte bat. Pertsona edo bikote bakoitzaren erabakia errespetatzen dugu. Baina, bestalde, umeak ez edukitzearen arazoietako bat, gaur egun, bada bikoteen kontzilio arazoa. Hau da, lana eta familia ardurak uztartzeko zailtasuna. Ekonomia krisiak hori areagotu egin du. Bestetik, egia da langabezia egoteak bat baino gehiago animatu duela umea edukitzera. Lana galdu du. Denbora du, lehen ez bezala. Eta erabaki du orain dela umea izateko unea. Halako kontraesanak gertatzen dira. Bai ikusten dugu, edozelan ere, gobernuen aldetik lidergo falta, beharrezko eta epe luzeko familia politikak bultzatzeko. Denen kontsentsua behar da horretarako. Diru laguntzak murrizten ari diren unean, honako hauetan ezin daiteke murriztu ezer, gure ustez.

Elkarrizketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



ZABALIK

AMAIA ARROYO SAGASTA
goiena.eus/komunitatea/



Bizitzak baditu lau aro...

Gizakion bizitzaren lau aroak urtebeteren lau urtaroak bezalakoak dira, eta gu hosto xume bat besterik ez gara... Haurtzaroak udaberria adierazten du: dena da berria, dena koloretsu eta dena dago ezagutzeke. Udaberrian, zuhaitzek beren hosto berriei bidea egiten laguntzen diete, gure gurasoek gurekin egiten duten bezala. Jaio eta gero, indartsu egon daitezten eta urteko berderik politena izan dezaten zaintzen dituzte. Paisaiaren kolorea pizten dute hosto berriek, baita eta pa horren zorientasuna ere.

Gaztetasuna udaren parekoa da. Udan egunak luzeagoak dira eta gehiago aprobetxatzen dugu bizitza. Hostoek eguzkiaren izpiez gozaten dute eta inoiz baino indartsuago eta politago daude. Jada haizearen borondatea jasaten ikasten hasiak dira. Gu ere halaxe egoten gara udan: bizitzaz gozaten eta eguzkiak ematen digun energia xurgatzen. Gaztetasuna gozatzeko da, beraz.

Heldutasunaren parekoa da udazkena. Udaberrian ikasi eta gaztetasunean gozatutako guztiaren ondoren, hostoek bizitzari aurre egin behar diote. Dena ez da kolore eta eguzki; haize zakarraren eta euriaren aroa dugu udazkena, eta hostoek prest egon behar dute horretarako. Dena den, udazkenean aniztasunaz goza dezakegu: hosto bakoitzak bere kolorea du eta horrek xarma berezia ematen dio paisaiari: guztion batasunak egiten du posible edertasuna.

Azkenik, zahartzaroa dugu, neguaren parekoa: urtarorik gogorrena, dudarik gabe. Gutxi dira neguan zuhaitzetan mantentzen diren hostoak. Aroa benetan krudela bihurtzen da eta hotzaz eta zuritiesunaz gozatea besterik ez zaigu gelditzen. Hostoek, jada, ez dute ezer galtzeko: beren bizitza ederki aprobetxatu ondoren, paisaiaren aldaketa dastatzea eta gozo hartzea besterik ez dute. Zorionekoak zuhaitzetan mantentzen diren hostoak! Zorionekoak ere lurretik berriro jaioko direnak!

"Hosto berriek paisaiaren kolorea pizten dute, baita zorientasuna ere"

USTEAK USTE


MONIKA BELASTEGI | mbelastegi@goiena.com

Borondatea eta elkarlana

Euskal Herrian auzolanak sekulako garrantzia izan du. Gaur egun, munduko modernoan artean *crowdfunding*-a horren modan dagoenean, gure nagusiek argi zuten konzeptu hori, eta hainbat proiektu aurrera eramateko borondatezko elkarlana ezinbestekoa izan da. Euskararen arloan borondatezko lan hori ezinbestekoa izan da bere biziraupenerako. Orain, Jardun elkarte, Bergarako Udala eta zenbait herritar, elkarlanean, Idazlaguna proiekturako boluntario bila dabilta. Helburua da guztien artean herriko komertzioen hizkuntza paisaia euskaratzea. Ez da Euskaltzaindikoa izan beharrik parte hartzeko, borondatea bakarrik.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | goiena.eus/komunitatea/



HANDIK ETA HEMENDIK

Transgenikoen inpaktuak neurtzeko inoizko ikerketa handiena abiatuko dute 2015ean

Unai Brea
argia.eus/blogak/unai-brea/

Genetikoki Eraldatutako Organismoek (GEO) bizidunen osasunean duten inpaktua hobeto ezagutzeko helburua dauka 2015ean hasiko den Factor GMO esperimuntak. Errusiako Sysin Institutua arduratuko da ikerlana egiteaz; proiektuak hiru urteko iraupena eta 25 milioi dolarreko (hogei milioi euro inguru) aurrekontua izango ditu. Errusiako Osasun Ministerioari atxikitako erakundea da Sysin, eta giza osasuna eta ingurumena ditu aztergai.

Zehazki, Monsanto ekoizten duen arto mota baten eragina aztertuko dute. Hiru urtez, arto horren dosi desberdinekin elikatuko dituzte milaka arratoi; harekin batera erabili ohi den glifosato pestizidaren ondorioak ere

behatu nahi dituzte.

Inoiz egindako era honetako esperimunturik handiena izango da, baina ez iraupen luzeko lehenengoa. 2012an, Gilles-Eric Seralini biologo frantziarraren lantaldeak bi urteko ikerketaren emaitzak argitaratu zituen: haien esanetan, arto transgenikoz elikatutako arratoiek askoz minbizi gehiago garatzen zuten arto arrunta jan zutenek baino. Eta arto eraldatuaren eragina kaltegarria bazen, are kaltegarriagoa Monsanto fardel berean saltzen duen herbizida.

Gilles-Eric Seraliniren lantaldeak bi urtez egindako esperimuntuan, arto transgenikoz elikatutako arratoiek besteek baino tumore gehiago zutela behatu zuten. (Arg.: www.gmoseralini.org).

Gilles-Eric Seraliniren lantaldeak bi urtez egindako esperimuntuan, arto transgenikoz elikatutako arratoiek besteek baino tumore gehiago zutela behatu zuten. (Arg.: www.gmoseralini.org).

Esperimentu hark zenbait zientzialariren kritika gogorak eragin zituen. Hedabide nagusiek oihartzun handia eman zieten Zientziaren -letra larriz- izena inbokatuz Seraliniren metodologia egurtu

zutenei, ez ordea frantziarrak emandako erantzunei.

Azkenean, aurkako kanpainak arrakasta izan zuen: ikerlana argitaratu zuen aldizkariak, *Food and Chemical Toxicology*-k, presioei men egin eta artikulua baliogabekotzat jo zuen urtebete geroago. [...]

Mass mediak asko haizatu ez zuten beste gauza bat izan zen Seraliniren lana erretiratzeko eskatuz *Food and Chemical Toxicology*-ri gutuna bidali zuten zientzialarietatik, hamaikak -hamar eta hamabiren artean dagoen zenbakia, kasu honetan- Monsantoekin nolabaiteko loturak zituazela.

Bere esperimuntuan emaitzak publiko egin eta gero, Gilles-Eric Seralinik adierazi zuen GEOen segurtasuna ez dagoela inondik inora frogatuta, eta iraupen luzeko ikerketa gehiago egin behar zirela. Haren nahia betetzen hasteko lehen urratsa emango du Errusiako Sysin institutuak. Seralinik ez bezala, haiek iragarri egin dute ikerlana egingo dutela; baina ez dute esan non, badaezpada.

"Zientziaren txapeldunek" ez dute itxaron esperimuntuan ondorioak ezagutu arte, eta abiatu baino lehen hasi dira hari sinesgarritasuna ebaste.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Diffusioa: 19.951 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurilaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Ongi etorri tratu txarren espektakulura

Ainhoa Menor
Bergara

Azaroaren 27tik 30era bitartean Coliseo zirkua, bere saioetan animaliak erabiltzen dituen, egongo da Bergaran.

Asteartetik ikusgai ditugu karpak, gamelu eta elefante bana eta beste animalia batzuk kanposantuko aparkalekuan.

Animaliak erabiltzen dituzten zirkuen berezko helburua animaliei buruz ikastea eta jendeak ondo pasatzea dela diote honelako zirkuetakoek.

Ez nago ados.

Hasteko, honelako zirkuetan orokorrean animaliak berezkoak ez dituzten postura, mugimendu eta akrobaziak egitera behartzen dituzte, zigor mehatxurik gabe egingo ez lituzketenak.

Beraz, zirkuan ikus daitezkeen animalien espektakuletatik ezer gutxi ikas daiteke tigre edo elefante baten bizimoduari eta izaerari buruz.

Bestalde, kontuan izan behar ditugu zirkuko animalien bizi baldintzak; gehienok dakigunez, karioletan edo kamioietan bizi dira zirkukoak irauten duen

bitartean, baina baita zirkuko denboraldia amaitzen denean ere, konpainia gehienek ezin dutelako edo ez dutelako nahi neguko aterpetxeetan dirua inbertitu.

Bizitza osoa kaiolan edo lotuta emateak ondorio larriak ditu animalien; estresa, depresioa, mugimendu errepikakorrak, zauriak eta gaixotasunak, adibidez.

Publikoa dibertitu eta jendea harrিতuta lagatzeko gaitasuna duten animalien esklabotzarik gabeko zirkua asko daude, bertako artisten trebetasunak lantzetik espektakulu politak eskaintzen dituztenak.

Haurren guraso edo tutoreen ardura da honelako espektakuluen eskaintzari ez erantzutea eta seme-alabak animaliekiko errespetuan haztea.

Zirkura joatetik, errespeturik eza eta krudelkeria dibertigarria dela ikasiko dute.

Honelako espektakuluetara joateak animalien esklabotza gogorra sustatzen du.

Udalerrri askok toki publikoetan espektakulua emateko baimenak ukatu dizkiete, animaliak erabiltzen dituzten zirkurik gabeko udalerrri izendatuz. Herri guztiek jarraitu beharreko aurrerapausoa dela iruditzen zait.

Eskertzekoa da Bergarako Udalarri gai honetaz

konsultatu ondoren bertatik jasotako erantzuna; izan ere, nahiz eta oraingoan Coliseo zirkuari gurean egoteko baimena eman zaion, hurrengorako kontuan edukiko dutela adierazteagatik.

Espero dut animaliak erabiltzen dituen zirkua bat Bergarara bueltatuz gero, baimenik ez duela ikusi eta alde egin behar izatea, beste herri batzuetan ere neurri berak hartuz gero zirkua hauen amaiera helduko da eta.

Jul-i agurra

Kepa Altube

(Jul-en familiaren eta lagunuen izenean)
Arrasate

Larunbatean (azaroak 15) gure bihotzeko zatitxo bat zimurtu zitzaigun.

Bergarako gaztetxekoei eta bertara laguntzera hurbildu zineten guztioi bihotzetik eskerrak eman nahi dizkizuegu eman zeniguten arreta, laguntza eta beroagatik.

Asteartean (azaroak 18) Monterronera hurbildu ginenez guztioi, barrua mugitu, hunkitu eta aldatu zitzaigun.

Mila-mila esker agurra antolatzeke erraztasuna besterik jarri ez zenuten udal ordezkariari eta langileei, ekitaldia antolatzen lagundu zeniguteno eta

bertara hurbildu zineten guztioi.

Irribarrez, izarretan elkar ikusiko dugu, Jul!

Ez dago inon gizonik

Joxe Otadui
Arrasate

Eskerririk asko, Janire! Aurpegia ematearren, mundua aldatu nahi izatearren eta erantzuteko aukera ematearren.

Joan den urriaren 31n ekimen bat burutu zenuten eredu patriarkalaren inguruko eztabaida bat sortzeko asmoz. Eta GOIENAn, "norbait irainduta sentitzen bada, ez du pertsonen arteko berdintasunean sinisten" diozue.

Ez da nire asmoa udaletxean gertaturikoaz aritzea, zuzentasun ala itxurakeria politikoaz jardutea.

Nirea beste arazo bat da, iraindua sentitu naiz, eta larriagoa dena, ez omen dut pertsonen arteko berdintasunean sinesten (barkatu, baina ematen du pulpitu batetik hitz egiten duzuela).

Oso barnean sentitzen dudana toki batera joan zineten, udako solstizioak hiru piramideak ferekatzen dituen tokira, eta bertan duela gutxi ardia lapurtu zioten

artzain iraindua erabili zenuten eliza gizarte patriarkal baten motor izan dela nabarmentzeko-edo.

Pena sentitu nuen, pena itzela. Pentsatu nuen zer ote duen egur zati horrek ni hainbeste atsekabetezko: "Txikitatik ezagutu izana? Aspaldiko eskuen artelana izatea? Ile luzedun mutil baten irudia izatea?"

Defenditu ezin den haur txikia bezala sentitu nintzen, txiki.

Ez dakit zer, baina badauka zerbairetaz garrantzitsua dena, polita.

Tristatu nintzen kuleroak bere buruan ikustean. "Baina, zer da hau?", pentsatu nuen: "Erakusleihoko feminismo erraz eta hutsala? Oraindik pertsonak generotan banatu behar gara? Oraindik hankarteak ala elizak definitzen gaituela uste da?"

Ezer gutxi aurreratu dugu berdintasunaren borrokan!

Monsantoren kokakola eta pintxo-pote *way of life* honetan eliza instituzionalak nahiko luke edozer gauzaren motor izan.

Jakizue, hurrengorako, ezkertiarra eta abertzalea ei den udal herri honetan, San Juan ikur bat dela, eta oso maitatua, gainera.

Andre, gizon, hermafrodita, homo, lesbo, quirk, trans, hetero eta dena delakoen eguna iritsi bidean bedi protesta ere errespetuan oinarritua.

Karakterak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

Goiena Klubeko abenduko zozketak!

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!

PS3

Sony Play Station 3
kontsola eta Invizimals
The Lost Kingdom jokoak

Parte hartzeko sariaren izena:
PS3

Arrasateko hipermerkatua

EROSKI



www.harremendenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

Otarra
Bidezko merkataritzako
produktuez osaturiko
otarra.
Parte hartzeko sariaren izena:
Otarra



ARRIKRUTZ
OSTILO 10 15

Sarrerak
Arrikruz kobak bisitatzeko,
6 sarreraren zozketa.
Parte hartzeko sariaren izena:
Arrikruz



Jargia

Jokoak
Kosmojet, 2 joko ditugu
Parte hartzeko sariaren izena:
Kosmojet



IRRIEN LAGUNAK

Irrien Lagunak aldizkaria
Aldizkariaren 15 ale.
Parte hartzeko sariaren izena:
Irrien Lagunak

PARTE HARTZEKO:

Telefonoz: 943 25 05 05 E-postaz: kluba@goiena.com

WhatsApp: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

SMS: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.



Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzue datuak sartzeko, hainek zuzentzeko edo ezteztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

HERRIAK

BERGARA

Herriko merkataritzan euskara hobetzeko sarea

- ▶ Euskara sustatzeko orduan, herrikideen laguntza-sare bat eratuko da
- ▶ Abenduaren 3ra arte iraungo du Euskararen Eguneko egitarauak

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Joan den udazkenean egindako gogoetan, merkataritzan euskarak izandako atzerakada igarri zen. Hori ikusita, herritar talde batek prestutasuna azaldu zuen herriko hizkuntza paisaian eragiteko lan egiteko. Horrela sortu zen *Idazlaguna*, euskara begi bistan egitasmoa, orain arteko hizkuntza zerbitzuak osatu eta indartzeko.

Boluntario sarea

Helburua da herriko denda, jate-txe, tabernetan-eta euskaraz ikustea bista-bistan dauzkagun kartel, errotulu eskuorri eta halakoak.

Boluntarioek ez dute euskara maila handirik beharko, eskatuko zaien eginkizuna sinplea da-eta. Idazlagunek, dendari batek kartel bat egin behar duenean, euskaraz idazteko laguntza eskaintzea; boluntarioek, gainera, foro baten laguntza ere izango dute. Oraingoz 50 Idazlagun baino gehiagok izena eman duten arren, egi-



Idazlagunak egitasmoarekin bat egiten duten erakundeetako ordezkariak. | IMANOL GALLEGU

tasmoa ez dago itxita eta nahi duten herritar guztiek jardun@topagunea.com helbidera idatzi edo 605 71 24 69 / 943-76 36 61 telefonoetara dei egin dezakete.

Euskararen Eguna

Idazlaguna, baina, ez da aurten Euskararen Eguneko ekintza bakarra izango, Udalak Jardunekin batera egitarau oparoa

antolatu du-eta. Horri esker, aste bukaeran, euskararen alde egiteko aukera asko egongo dira. Lehen aldiz, gainera, herriko bertso txapelketa nagusia egingo

EUSKARAREN EGUNEKO EGITARAUA

GAUR

22:00 *Erdaldun berrien kluba*, Zabalotegi aretoan.

23:30 Bergarako bertso txapelketa nagusiaren lehen kanporaketa Arranon.

BIHAR

16:30-18:00 Ur jolasak, Agorrosinen.

18:15 Txokolate-jana, Agorrosinen.

19:00-20:30 DJ festa eta tailerrak, Agorrosinen.

ABENDUAK 3

20:15 Idazlaguna egitasmoaren aurkezpena, Irizar jauregian.

da; lehen kanporaketa gaur egingo da eta bigarrena eta finalak Gabon inguruan izango dira.

Agorrosindik euskararen aldeko apustua ez da zapatuko festara mugatuko. Aritz Alustiza musikari bergararrak eta Eli Rodriguez Bergarako kiroldagiko begiraleak 250 euskal abestiz osatutako *pen-drive* bat egin dute. Bilduma bailarako kiroldagietako txirrindularitzako begiraleen esku jarri dute euren saioetan erabil dezaten.

NEREA MENDIZABAL


JARDUN EUSKARA ELKARTEA



"Erakundeak beti egongo gara hor, baina hizkuntza ohiturak aldatzeko orduan herritarren inplikazioa ezinbestekoa da".

BIBI ANDUEZA

BEDELKAR-EKO PRESIDENTEA



"Euskara erabili arren, zenbait kasutan zalantzak izaten ditugu; orain, herrikideen laguntza izango dugu".

LIERNI ARREGI

ZARE FRUTA-DENDA



"Guretzako gertuko laguntza izatea premiazkoa eta oso aberasgarria da, euskara indartzen lagunduko digu".

JOSE ITURROSPE

IDAZLAGUN BOLUNTARIOA



"Boluntarioentzat ez da hain lan nekeza izango, kontrara, herriko kaleetan aurrerapauso izugarriak igarriko ditugu".

MAREN BELASTEGI

EUSKARA ZINEGOTZIA



"Udalak eta Jardunek ematen duten zerbitzua baino ekimen gertukoago da, herriko herrikideentzat egina".

ADITUAK IGOGAILUAK INSTALATZEN ETA ZERO KOTARA JAISTEN

ERAIKUNTZAK ETA BIRGAITZE-LANAK
PROIEKTUAK, BARNE DISEINUA,
ITE, CEE...
LOKAL ETA ETXEBIZITZEN ZAHARBERRITZEA
FATXADAK ETA ESTALKIAK
ENERGIA ERAGINKORTASUNERAKO SOLUZIOAK
GILTZA ESKURA ERAKO PROIEKTUAK
AURRETIAZKO AZTERKETAK KOSTURIK GABE



ERAIKIN
PROJECTS

www.igosl.com
943798864
696159959

ELKANO kalea, 3 20500 ARRASATE



Mikel Gorrotxategi Kulturaten, hitzaldia hasi aurretik. | JOKIN BEREZIARTUA

Mikel Gorrotxategi | Euskaltzaindiako Onomastika Batzordea "Filipinetan 'Arrasate' bat aurki daiteke loturarik ez duena euskaldunekin"

Arrasate Zientzia Elkartearen eskutik, abizenen gaineko hitzaldia egin du asteon Kulturaten

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Arrasate Zientzia Elkarteak gonbidatuta, euskal deituren gainean luze eta zabal egin zuen berba Euskaltzaindiako Onomastika Batzordeko idazkari Mikel Gorrotxategi martitzenean. *Arrasateko iragana astintzen* hitzaldi zikloaren bigarren saioan ere bete egin zen Kulturate.

Betidanik izan ditugu deiturak?

Egun deitura moduan ulertzen duguna XVI. mendean sortu zen Euskal Herrian eta, oro har, Europan. Deiturak esportatu egin ziren, eta hori gertatu zen hainbat euskal deiturarekin ere; jendeak ez daki, baina Filipinetako administrazioak euskal abizenak erabili zituen deiturak ez zituelako. Horregatik, Filipinetan *Arrasate* bat aurki daiteke euskaldunekin inongo loturarik ez duena.

Zeintzuk dira euskal abizenen berezitasun nagusiak?

Euskal deiturak baserri izenak izan ziren, toponimoak edo lekuen izenak. Hizkuntza guztietan erabili izan dira toponimoak, baina ez Euskal Herrian beste. Hemen inon baino deitura gehiago daukagu eta horrek badu balio kulturala. Aldi berean, baina, ekarri du deitura asko desagertzea edo desagertzeko bidean egotea.

Desagertzeko zorian, zergatik?

Badira abizen batzuk Hego Amerikan bakarrik erabiltzen direnak. Deitura bat oso urria denean gertatzen da hori. Esaterako, Mañarikua abizenarekin 64 pertsona daude gaur egun Euskal Herrian. Deitura hori hiru belaualditan desagertzeaz egongo da. Aldiz, oso arruntak direnak gero eta ugariagoak izango dira. Horrenbestez, gero eta Agirre eta Etxebarria gehiago izango dugu, eta baita gero eta Gartzia eta Hernandez gehiago ere.

Jende gutxi jakingo du Gartzia euskal deitura dela. Hasieran izena zen, *gaztea* adiera zuen Iruñea inguruko euskararen. Guk mendebaldean *beste* esaten dugu eta iparraldean *bertze*. Gauza bera *gaztea* eta *gartzia*-rekin.

Baina Erdi Aroan modan jarri zen erregeen ezizena izan zelako. Gero, XVI. mendeko Trentoko Kontzilioan deitura bihurtu zen. **Hitzaldian hainbat adibide praktikoko erabili dituzu.**

Bai, saiatu naiz jendeari ulertarazten zergatik dituen deiturak. Horrez gain, kontuan hartzekoa da Espainian bizi garen euskaldunok badaukagula deitura euskaratzeko eskubidea. Erregistro-ra joan gaitezke eta deitura era ofizialean euskaraz jarri. Frantzia bizi diren euskaldunek ez dute eskubide hori. Baina euskaratzea ez da *c*-ren ordez *z* ipini eta *q*-ren ordez *k*. Escoriaza euskaraz ez da Eskoriaza; Eskoriatza da. Hori barneratu egin behar dugu: erdarak soinu batzuk kendu zizkigun eta soinu horiek berreskuratu egin behar ditugu.

Zeintzuk dira Onomastika batzordean jasotzen dituzuen eskaerak?

Askotariko bezeroak ditugu. Udalek seinalezatu beharrekoen gainean galdetzen digute, esaterako, eta deiturak euskaratzeko agiriak ere ematen ditugu. Hala ere, pertsonen izenen inguruan sortzen dira arazoak. Batzuk izen bat erabaki eta erditu ostean, erregistro-ra doazenean konturatzen dira izen hori ezin dela jarri, edo jar daitekeela baina ezin dela horrela idatzi, edo neskaren izena dela eta ez mutilarena... Batzuek gogorra izaten da; horregatik, jendeari beti esaten diot Euskaltzaindiaren webgunean sartzeko, eta izena agertzen ez bada bidal diezagutela mezu bat. Epe laburrean erantzuten dugu. Askatasuna badago, baina honako adibide hau jartzen dut beti: Isabel *v*-rekin onartzen ez den moduan, Nahia *h* barik ere ez.

"Erdarak kendu zizkigun soinuak berreskuratu egin behar ditugu"

Euskarak 365 egun dituela ospatu eta aldarrikatzera gatoz euskaltzaleak

Ekintzez gain, 365 'selfie' lortzeko erronka jarri dugu euskalgintzako kideok

KOMUNITATEA GOIENA
AED ELKARTEA | ARRASATE

Azaroaren 19an eman genion hasiera Arrasateko euskalgintzak Euskararen Egunaren bueltan prestatu duen ekintza sortari. Lau ekintza eta erronka bat izango dira denera, abenduaren 3an *Euskarak 365 egun* ekimenari lotuta egingo den *Zuta gar* ekitaldia ardatz nagusi dutela. Hilaren 19an Belen Urangak Arrasateko euskararen erabileraren aurkezpena egin zuen eta hilaren 26an, berriz, Andoni Egañak *Euskarak: zelan goaz?* izeneko hitzaldia egin zuen. Abenduaren 4an *Erdaldun berrien kluba* antzezlanak ikusteko aukera egongo da Kulturateko areto nagusian (19:00).

Era berean, baina, erronka bat luzatzen dizuegu euskaldun eta euskaltzale guztioi: baietz denon artean 365 *selfie* edo auto-argazki igo Twitterrera eki-

Goienako *selfie*-tako bat. | GOIENA

AEDko Eñaut Muxika. | AED



AEDko gazteak Portalioan. | AED



AEK-ko langileak. | AEK

men horren irudiarekin? Horretarako, #365egunArrasaten traola erabiliko dugu. AEDtik ekintza horietara hurbildu eta parte hartzeraz gonbidatzen zaituztegu euskalgintza osoaren izenean. Euskaltzaleondako euskarak 365 egun dituelako.

Gabon afaria

Abenduak
20
zapatua

Raul

Kontzerturako artista gonbidatua

Menua

Urdaiazpiko iberikoa
Bretainiako antzara-micuita
basafritu-coulisarekin
Verako esparragoak bi saltsarekin

Zapo-buztana nekora-kremarekin
eta almejekin.

Idiazabalgo gazta-tartatxo
irasagarrarekin

Verdejo zuria
Kriantza beltza
Kafea barne

50€

(BEZ barne)

Sarien zozketa

DJ musika
Afari-kontzertuaren ostean.

AUTOBUSA Arrasatetik eta Gasteiztik **20:30**ean. Itzulera **03:30**ean.
EZINBESTEKOA erreserba egitea **abenduaren 15a** baino lehenago. Plaza mugatuak.

Larrabea Golf Kluba. Landako errepidea z/g – Legutio (Araba) – Tel.: 945 46 58 22
 Webgunea: www.larrabea.com Posta elektronikoa: larrabealoungeclub@gmail.com FB: [LarrabeaLoungeClub](https://www.facebook.com/LarrabeaLoungeClub)

Bilketa sistema berrirako informatzen, auzorik auzo

Hondakinen gaineko hitzaldiek "interes handia" piztu dute: San Andresen 500 auzotar batu dira bi saiotan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Hondakinen Mahaiak auzorik auzo jarraitzen du hondakinen gaineko informazio ematen. Martitzenean San Andresko Etxaluzerako erakundearen auzo informatzailea bilketa sistema berriaren gaineko xehetasunak ematen; bi hitzalditan 500 bat lagun elkartu ziren. Deitzaileen arabera, herritarrek "interes handia" erakutsi zuten hondakinak nola sailkatu eta edukiontzia berrien erabileraren gaineko azalpenak entzuterakoan.



Etxaluzeko bi hitzaldietan 500 herritar elkartu ziren. | ARRASATEKO UDALA

Bulego ibiltariak auzorik auzo

Hurrengo bilera abenduaren 2an izango da, Santa Marinan. Auzo horretan egingo den bigarren saioa izango da; Toki Argi erretiratu etxean, 18:30ean (gaztelaraz). Erdialdeko bizilagunendako abenduaren 3an Kulturatan; 18:00etan euskaraz eta 19:30ean gaztelaraz. Eta amaizteko, Urribarriko eta Erguingo bizilagunek abenduaren 10ean izango dute hitzaldia Arizmendi-Arimazubi ikastolan;

18:00etan euskaraz eta 19:30ean gaztelaraz.

Hitzaldiez gain, bulego ibiltaria ere badabil auzorik auzo; asteon Santa Marinako auzo alkatetzan dago. Bulego horietan, hondakinen sailkapenaren edo gaikako edukiontzien erabileraren gainean dituzten zalantzak argi daitezke. Bertan ari dira banatzen etxebizitza bakoitzari

errefusarendako ontzi grisa, organikoarendako ontzi marroia, edukiontzia zabaltzeko txartela, poltsa konpostagarriak eta hondakinen sailkapenerako gida zein hiztegia. Informazio bulegoa eta materialaren banaketa lokal eta ordutegi bereberetan egingo dira auzo guztietan: 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara. Datoren astean, Etxaluzen.

Arrasatearrak Larrabeen, Mike Kennedyrekin

Azaroaren 22an Los Bravos taldeko abeslari Mike Kennedyk kontzertua eman zuen Larrabea Lounge Club-en lehen urteurrenoko festan. Antolatzaileen arabera, Arrasateko jende ugari gerturatu zen jaialdira. Abenduaren 20an Raul musikariak abestuko du, eta Euskal Herrian emango duen kontzertu bakarra izango da.



LARRABEA LOUNGE CLUB

Erakusketa eta argazki lehiaketa Hiesaren Aurkako Eguna dela-eta

Abenduaren 1ean izango da Hiesaren Aurkako Eguna eta aurten ere hainbat ekintza antolatu ditu Sexologia Zerbitzuak. Besteak beste, musu baten argazkia bidaltzeko lehiaketa antolatu dute abenduaren 5era arte. Gainera, hiesa borrokatzeko mundu zabalearan erabili diren kartelen erakusketa ireki dute hainbat tabernatan abenduaren 12ra arte.

Gabonetako saskiak Zuberoako Sohüta Ikastolaren alde

Zuberoako Sohüta Ikastola babesteko Gabonetako saskiak eska daitezke, 39 eurotan. Hiru bide daude: 3035 0059 870 590 09 89 62 kontu korrontean ordainketa egin izen-abizenak jarrita; nikere@ikaskoli.eu helbidera mezua bidali abenduaren 5a baino lehen; eta Bedoñako Iturralden ere jasoko dira, abenduaren 13an.

Boli Kostako bidaia baten gaineko kronika etzi gaztegunean

Txatxilipurdiren gazte txokoek antolatuta, Maitane Unamunok Afrikako Boli Kosta herrialdera egindako bidaia kontatuko du domekan erdiguneko gaztegunean (18:30): "Argazkien bidez Boli Kostako errealitatera gerturatuko gara Maitaneren bizipenek lagunduta", diote. Hilean behin norbait gonbidatuko dute.

Indarkeria matxista salatzeke argazki erakusketa ireki dute

J.B. | ARRASATE

Azaroaren 25erako egitarauaren barruan, Emakume Txokoak indarkeria matxista salatzeke argazki lehiaketa antolatu zuen. Guztira, 62 argazki jaso dira. Bada, lehiaketako epaimahaiak aukeratutako argazkiekin erakusketa ireki zuten eguaztenean, eta zabalik egongo da urtarrilaren 30era arte. Argazki irabazlea Maider Azkarraga-Urizar Aranarena eta Ane Zuazubiskar Iñarrarena izan da, *Klik (2)!* izenarekin aurkeztu dutena. Bigarren saria Berta Poulanen *Eder* argazkiak eraman du.

Indarkeria matxista salatzeke egunean ere aldarrikapena "ozen" entzutea gura izan dute Emakume Txokokoek:

"Jarrera indartsu hori azalera nahi izan dugu argazki lehiaketa honen bidez. Emakumeok biktima bihurtzen gaituzten irudiak alde batera utzi eta gure buruak indartzen dituzten irudiak bildu eta kaleratu nahi ditugu. Indarkeria matxistaren aurrean emakumeon autonomia bultzatu gura dugu".

Topaketa feministak

Bestalde, abenduaren 13an Ondarroan egingo den Emakume Abertzaleen Topaketa Feministak direla-eta, aurkezpena egingo dute domekan, hilak 30, Emakume Txokoan (17:30). *Jostorrazak dantzan ditugu! Euskal Herriaren burujabetza feministarantz* izango da leloa.



Lehiaketa irabazi duen argazkia. | MAIDER AZKARRAGAUZAR ETXAN ANE ZUAZUBISKAR

Askotariko jakiak dastatzeko aukera bihar San Andres ferian

J.B. | ARRASATE

2008an antzinako ohitura berreskuratu zutenetik laugarren aldiz antolatuko da San Andres feria. Bihar, zapatua, egingo dute eta aurten ere aukera zabala egongo da Gudarien plazaren bueltan. Azoka 09:00etatik 14:00etara jarriko dute: euskal ekoizleen produktuez gain, Extremadurakoak, Andaluziakoak eta Galiziakoak ere dastatzeko aukera egongo da; ogi-mamiak, urdaiazpikoa eta olagarroa, besteak beste. Suziriak jaurti ostean (10:00), txistulariek kalejira egingo dute, 10:30ean hasita. Gero, 12:30 aldera, Goikoba-

lu abesbatzak kontzertua eskainiko du eta 13:00etarako patata-tortilla lehiaketa antolatu dute. Parte hartzaileek patata-tortilla eraman beharko dute Gudarien plazara.

Baita zuzeneko musika ere

Arratsalderako, 17:00 aldera, San Andresko gazte txokoak 12 eta 17 urte artekoendako mahai-futbol txapelketa antolatu du eta baita umeendako txokolate-jana ere. 19:00etan buruhandien txanda helduko da eta eguneko programarekin amaitzeko Sin+ taldeak kontzertua eskainiko du, 19:00etan.

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

ZALDIBAR

EMAITZAK

Dribling - Abokajarro	4-2
Jibaros F.C. - Drink Team	4-2
Lasagabaster - Betraye	3-7
Kantzerlauten - Aldatz	1-2
Ostantz - Alytis FK 2.0	5-3
Sonografos - Iluntz	4-2
Haizea's Weah - Arrasate taberna	8-0

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1. Aldatz	12	4
2. Dribling 2.0	10	4
3. Sonografos	9	4
4. Jibaros F.C.	9	4
5. Alytis 2.0	7	4
6. Betraye	7	4
7. Lasagabaster	6	4
8. Haizea's weah	4	4
9. Ostantz	4	4
10. Drink Team	4	4
11. Kantzerlauten	3	4
12. Abokajarro	3	4
13. Iluntz	3	4
14. Arrasate Taberna	0	4

PARTIDUAK

AZAROAK 29. ZAPATUA
10:00 Jibaros - Kantzerlauten / Haizea's weah
11:00 Haizea's weah - Drinking team / Kantzerlauten
12:00 Aldatz - Ostantz / Drink Team
13:00 Dribling - Arrasate / Ostantz
AZAROAK 30. DOMEKA
11:00 Lasagabaster - Alytis FK / Abokajarro
12:00 Abokajarro - Iluntz / Alytis FK
13:00 Sonografos - Betraye / Iluntz

5. jardunaldia
Zaldibarko areto
futbol txapelketan

Abenduaren 6-7ko asteburuan zubia dagoenez, ez da jardunaldirik jokatu. Txapelketan zehar, bi ordu eskaera eta partidu baten atzerapena eskatzeko aukera izango dute taldeek. Talde guztiek ordaindu dute izen-ematea.

Besaideko bazkide eta federatu lizentzien tramitazioa, abenduan

Besaide mendizale elkarteak datorren hilean tramitatuko ditu elkarteko bazkidetzak eta federatu lizentziak. Horrela, hainbat aukera jarri dituzte eskura izen-emateak, bajak, datu aldaketak edota bestelako kontsultak egiteko. Batetik, elkarte zabalik egongo da abenduaren 2tik 4ra, 19:30etik 20:30era. Bestetik, posta elektronikoz ere egin ahal izango dira tramiteak, besaide@besaide.org helbidera idatzita.

Bazkide izateko, hurrek zazpi euro ordaindu beharko dituzte, gazteek bederatzi eta helduek zein 65etik gorakoek hamalau. Horren truke, Besaideko materiala alokatzeko aukera izango dute eta beharpenak eskuratuko dituzte. Horrez gain, bazkideei datuak eguneratzeko dei egin diete; batez ere, posta elektronikoko.

Hain zuzen, federatu lizentzien baldintzak, aukerak eta tarifak Besaideren webgunean daude ikusgai.



Helduen mailako korrikalariak, krosaren hasieran. | GOIENA

Santamasetako 37. krosa
abenduarien 14an izango da

Aurtengo edizioa Enrike Kabiketaren omenezko hamabigarrena izango da

M.T. | ARRASATE

Arrasate Atletiko taldearen eskutik, badator aurtengo ere Santamasetako krosa. Gazteenek emango diote hasiera egunari, eta 11:00etan 13 eta 14 urtekoena izango da lehen lasterketa. Hortik aurrera, 12:00ak arte, adinaren arabera banatutako korrikalariak irteera egingo dute hamar minutuan behin, eta azkenak 5 eta 6 urtekoak izango dira. Kontuan hartu beharra dago, baita ere, ibilbidea adin bakoitzera egokitua izango dela. Zaharrenek 800 metrokoa egin beharko dute eta gazteenek,

100 metrokoa. Tartean, adinaren arabera proportzionalki murriztuko da korrikalariak bete beharreko distantzia.

Helduen krosa, berriz, 12:30ean hasiko da eta kuadrillaka lehiatu beharko dute. 6,4 kilometroko ibilbidea egin beharko dute, guztira, herriko plazan hasi eta bukatzen den zirkuituari lau buelta emanda.

Puntuazioa neurtzeko, kuadrilla bakoitzeko lehen bost korrikalarien denborak hartuko dira kontuan. Izena emateko bost euro ordaindu beharko dira.

Ibilbidea

Herriko Plazan hasi, eta Arrasate pasealekuan zehar, Zerkaosteta kaleraino joan beharko dute lehenik korrikalariak. Hortik, zuzen jarraitu eta Biteri plazan biratu ondoren, Abaroaraino iritsi beharko dute, Garibai kalean zehar. Bertan, buelta eman eta kale beretik Maalako biribilgaineraino egin beharko dute korrika, Maalako Arrabaetik eta Seber Altubetik pasata, Arbolapetaraino iristeko. Azkenik, berriz Seber Altubetik igarota, hasitako leku berean amaituko da ibilbidea.



Zestoari irabazi egin zion Mondrak. | GOIENA

Mondrak gogor lehiatu
beharko du zapatuan

Amaikak Bati etxean irabaztea "zaila" izango da

M.T. | ARRASATE

Mondrak Deban jokatu du zapatuan hamaikagarren jardunaldiko partidua, sailkapenean lau postu aurretik duen Amaikak Bat taldearen kontra. Bederatzi jardunalditan zazpi garaipen lortu dituen taldea da Debakoa, eta,

gainera, azken bi partidua irabazita, ez zaie zelaira konfiantzaz beterik irteteko arrazoirik falta. Jon Iregi Mondrako bigarren entrenatzaileak "partidu gogorra" aurreikusten du, aurkari "gogor eta teknikoaren" etxean puntuak lortzea zaila dela aitortuta.

Hala ere, Iregik esan du taldea oso ondo" ikusten duela eta baduela konfiantza jokalarientzat. Gainera, uste du joan den jardunaldian getariarren aurka garaipen denboraldia hautsi zuen porrota eskuratu arren, joko aldetik "itxura eman" zutela, eta, erakutsitako intentsitate bera mantentzen badute, zapatuan aukerak izango dituztela. Esan du, baita ere, partiduz partiduko lanketa egiten ari direla, eta ez dutela utziko joan den asteko porrotaren itzalak euren zapatuko joko kalte dezan.



Eneko Fernandez. | GOIENA

Eneko Fernandez
AKEko lehendakaria"Gero eta
jende gehiago
animatzen da
antolaketan
laguntzera"

M.T. | ARRASATE

Joan den asteburuan egin zituzten aurtengo Santamasetako tenis eta padel txapelketako lehen kanporaketak. Aurtun 32 pertsonak eman dute izena tenis txapelketan, eta padelekoan, berriz, hogeiki bitoket. Eneko Fernandez AKEko lehendakariak uste du maila "gero eta hobea" dela. **Bada teniserako eta padelera-ko zaletasunik Arrasaten?** Bai; gazteen artean, batez ere. Duela sei bat urte tenis instalazioak egin zirenean, elkarrekin lanean hasi zen berriz, eta asko igo da zaleen kopurua. Hala ere, AUKEA aurtun martxan jarritako instalazioen erreserba sistema berriak kaltetu egin du tenisaren eta padelaren zabaltzea.

Zergatik?

Kirolguneak badu alde lehorrerako urte osoko bonua, eta hark balio duen 130 euroak ordaintzeaz aparte, pistak erreserbatzeko euro bat ordaindu behar da aldiro. Neurri horren ondorioz, orain jende gutxiago gerturatzen da. Gure ustez, urteko bonuak barne izan behar luke pisten erabilera eta erreserba eskubidea. **Txapelketaz gain, zein beste ekintza egiten duzue?**

Errendimendua hobetzeko entrenamenduak egiten ditugu hainbat mailatan, eta gure arteko txapelketa moduko bat izaten dugu urtean zehar. Erraketa egunean ere parte hartzen dugu, lantzen ditugun kirolak ezagutu dituzten. Izan ere, horixe da gure helburua, gazteen artean afizioa sortzea. Urteroko frontenis txapelketa, berriz, urtarrean egingo dugu ziurrenik. Squasheko taldea ahaztu gabe, haiek ere jo eta ke lanean dabilta.

Ekimen berririk baduzue buruan? Bai. Aurtun, lehenengoz, sanjuanetan ere egingo ditugu tenis eta padel txapelketak. Izan ere, gero eta jende gehiago animatzen da antolaketan laguntzera.

Abendu oparoa dakarte Lore Gazteak-en 25 urteek

Jantzi eta argazki erakusketa, dantza-jantzien gaineko hitzaldia eta zapiak jartzeko ikastaroa izango dira

MAIALEN TORRES | ARRASATE

Arrasateko Lore Gazteak dantza taldeak 50 urte bete ditu aurten, eta dagoeneko hainbat ekintza egin dituzte urteurrena ospatzeko. Baina hori nahikoa ez, eta abendurako erakusketa bat, hitzaldia bat eta ikastaro bat antolatu dituzte Kulturaten. Bada, hori guztiori iragartzeko prentsaurrekoa eskaini zuten astelehenean, hilaren 24an.

Alde batetik, taldeko arropa eta argazkien erakusketa jarriko dute Kulturaten, abenduaren 1etik 20ra bitartean. 300 argazki baino gehiago jarriko dituzte ikusgai, baita 30 jantzi inguru ere. Asteleheneetik egubakoitzera ikusi ahal izango da erakusketa hori, 17:30etik 20:30era. Erakusketaz gainera, taldearen ibilbidea laburbiltzen duen ikus-entzunezko bat egongo da, eta salgai jarriko dute abenduaren 9tik aurrera, 12 euroren truke.

Bestetik, Ane Albisuren esku-tik hitzaldia izango da abendua-



Lore Gazteak dantza taldeko kideak, asteleheneko prentsaurrekoan. | IBAI IREGI

ren 11n, 19:00etan. Tradiziozko jantziak izango ditu hizpide, eta dantzarako jantzien azken ehun urteetako ibilbidea aztertuko du, besteak beste.

Azkenik, Santamasak gertu daudela eta, baserritar jantziak gain buruko zapien erabilera sustatzeko asmoz, Xeli eta Ixiar Arregik zapiak jartzen ikasteko

tailerra eskainiko dute. Ikastaro hori abenduaren 16an izango da, 18:30ean.

Dena musu-truk

Amaitzeko, aipatzekoa da Lore Gazteak dantza taldeak antolatutako ekintza horiek guztiak debaldekoak izango direla bertaraten diren guztiendako.

Zarzuclaren bigarren asteburua arrakastatsua izatea espero dute

ANDER LARRAÑAGA | ARRASATE

Izaskun Murgia elkarte lirikoak *La rosa del azafrán* zarzuclaren lehenengo bi emanaldiak egin zituen joan den aste bukaeran, eta, hain justu ere, aste bukarrera honetan beste bi emanaldi izango dira.

Izaskun Murgia elkarte liriko zuzendari Tere Gonzalezek adierazi du lehenengo emanaldiek harrera beroa izan dutela, hiruzpalau ilara baino ez ziren-eta hutsik gelditu. "Ikusleek esan digute asko gustatu zaiela. Edozelan ere, onartu beharra dago zapatuan tentsioan egon ginela hasieran; izan ere, ez genekien nola irtengo zen estreinaldia. Dome-

kan, berriz, askoz ere lasaiago geunden guztiok", gaineratu du Gonzalezek.

Bigarren asteburua

Esan bezala, azken bi emanaldiak asteburu honetan izango dira: zapatuan 20:00etan eta domekan 19:30ean, Amaia Udal Antzokian.

Bada, zarzuclak izandako harrera ikusita, datozen emanaldietarako jende gehiago etortzea espero dute Izaskun Murgia elkarteok. "Ahoz ahoko komunikazioak ondo funtzionatzen du kasu hauetan, eta horrek pertsona gehiago erakarriko dituela espero dugu", esan du Gonzalezek.



Zarzucla, aurreko zapatuan. | IMANOL SORIANO

100 €* irabazi nahi?

PARTE HARTU LEHIAKETAN!



badagogauzazailagorik

2. SAIOA

Lortuko du? BAI EZ

Izen-Abizenak:

Telefona:..... Posta-e



Moztu eta eraman Goienako edo AEDko egoitzetara. Epea: abenduaren 2an, 13:00ak aurretik



* Saria Ibai-Arteko dendetan erabiltzeko 100 euroko bonua izango da.



Badago hizkuntza-ohiturak aldatzea baino gauza zailagorik.

Arrasaten, euskaraz.



Arrasateko euskalgintza

Monumentala ez ezik, gozoa ere baden herria

Erreileno eta tostoien dastaketa bihar 18:00etan

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Bergarak gozogintzarekin duen harremana luzea eta zabala da; horren lekuko dira Bergarako erreileno eta tostoiak, gaur egun ere artisau eran ekoizten direnak. "Bergararrok oso gozozaleak gara", dio Raizabal gozotegiko Josune Sagastumek. Bergaran sortuak diren erreileno eta tostoiak herriko mugak gainditu dituzte. "Herri-tarrek ez ezik, bisitariak ere erosten dituzte; Bergararen marka direla esango nuke", aipatu du Larrañaga gozotegiko Agustin Larrañagak.

Gabonei begira

Biharkoa laugarren Erreileno eta Tostoi Eguna izango da, eta, Gabonak gainean daudela kontuan izanda, udaletxeko arkupeetan ez dira turroia eta halako tentazio gozoak faltako.

Gonbita ez da makala izango, bertaratzen direnek euro baten truke txokolate beroa eta erreileno eta tostoi txiki bana jasoko dute-eta. Guztira, 600 erreileno eta beste horrenbeste tostoi txiki banatuko dituzte. "Plazan ez gara bakarrik egon-

go, herriko trikitilariak giro-tuko dute-eta gure produktuen festa", dio Mujika gozotegiko Xabier Muxikak.

Hiru gozotegi artisauotan egiten diren mokadutxo gozo horien errezeta sekretua ez izan arren, gutxi lortu dute hiru etxeotan lortzen duten zaporea kopiatzea.

Arrautza eta azukrea

Erreileno ezagunak gorringo eta azukre irabiatuz betetako bi bizkotxo-geruza finez osatzen dira, eta almibar sendo batez estaltzen dira. Almibar hori labearen beroaren eraginez gogortu egiten da.

Tostoiak, aldiz, erreilenoak egiterakoan soberan geratzen diren zuringoak baliatuz sortzen dira. Zuringo horiei azukrea bota eta nahastu egiten dira, zatitxotan banatu, almendra xehatuz estali eta labean erre.

Hiru gozotegi historiko

Larrañaga, Mujika eta Raizabal gozotegiek herrikideek horrenbeste estimatzen duten tradizio gozoarekin jarraitzen dute.

1840an Gotxotegia zegoen gaur egungo lekuan Felix Aranzadik eta Valentina Unamunok Larrañaga gozotegia sortu zuten. Ordu-rako Bergarako erreilenoak deituriko bizkotxoak egiten ziren bertan. Gaur egun, familiaren laugarren belaunaldiak jarraitzen du lanean.

1916an Bilboko Otxoa Gozotegian ikasi ondoren, Francisco Muxikak bere abizena duen gozotegia sortu zuen (Mujika). Haren seme Roman Muxikak jarraitu zuen, eta, gaur egun, haren seme Xabierrek. Beraz, familiaren hirugarren belaunaldiak jarraitzen du Bergarako tradizio gozoak ekoizten eta saltzen.

1908an Basilio Raizabalek jarri zuen gozotegia, umetatik Piaren Gozotegian apendiz lanean ibili ondoren. Gaur egun, familiaren laugarren belaunaldiak jarraitzen du tradiziozko gozoak egiten.

Tradizioa zapora bihurtu duten hiru gozotegi horiei esker, bihar eskainiko dituzten erreileno eta tostoiak garai batekoen zaporea mantenduko dute.



Mujika gozotegiko Xabi Muxika tostoi txikiak egiten. | IMANOL GALLEGO



Raizabal gozotegian Miren Berasategi erreilenoak paperetan batzen. | I.G.



Larrañaga gozotegiko Agustin Larrañaga egin berri dituen erreilenoekin. | I.G.

Alai taldeak 43 urteen errepassoa egingo du

Abenduaren 13an kontzertua egingo dute udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:30ean

MIREIA BIKUÑA | BERGARA

Alai taldeak 43 urte daramatza kantuan eta horren aitzakian kontzertu berezia egingo du abenduaren 13an: *43 urte kantuan* izenarekin, urte hauetako kantutegiaren errepassoa egingo dute. Emanaldia udaletxeko osoko bilkuren aretoan egingo dute, 19:30ean. Hamabi kantuko errepertorioa prestatzen dihardute Xabier Olabarria zuzendariarekin.

Santa Ageda eta Gabonak

43 urtean 30 bat abeslari pasa dira Alai taldeetik. Egun, hamazazpi kide dira eta euren helburua da On Nicomedesekin kantuan hasi zen taldeari jarraipena ematea.

Alai taldearen hasierako emanaldiak kalean izan ziren: Santa Ageda egunean eta Gabonetan kaleak girotzen ibili ziren. Gero, Bergarako auzoetako elizkizunetan eta hainbat ezkontzatan



Alai taldeko kideak. | JUANJE AMASORRAIN

ere parte hartu dute. Eta ibilbide horrek isla izango du abenduaren 13ko emanaldian: euskal kantu tradizioz gain (*Maite* eta *Agur*

jaunak, besteak beste), Santa Ageda eguneko bi kantu eta bi Gabon kanta abestuko dituzte Alai taldekoek.

Erretiratuek jango dituzte azken gaztainak Osintxun

I.G. | BERGARA

Abenturazaleek gogotik disfrutatuko dute Alex Txikoni entzuten. Kirolari ezagunak hitzaldia egingo du gaur Osintxuko ludotekan, 19:00etan, Azaroa Gaztainatan ekimenaren barruan.

Erretiratuen bazkariarekin agurtuko dute hilabetea Osintxun. Txuringo tabernan bapo bazkaldu eta gero, erretiratuek zozketa eta trikitilarien bisita izango dute. Beti bezala, azaroa gaztaina zimelik gabeko hilabetea izan da.

argia

Harpidetza bakoitzarekin, are independenteago

Jarri ekonomikoki zure tanta etorkizuna margotzen jarrai dezagun

ARGIA ASTERO jasotzeko aukera: **hilean 12 €** baino ez!*

ARGIA hilean behin jasotzeko aukera: **hilean 4 €** baino gutxiago!**

(*) 145 euro urtean. Igarpenetan ordainketa urtean behin edo bi zatitan egiteko aukera (46 zenbaki + 11 Larrun + Urtekarria). (**) 41 euro urtean (11 zenbaki + 11 Larrun + Urtekarria).

Egizu, egiozu harpidetza!

Eskaerak:

☎ 943 371 545 | harpidetza@argia.eus | www.argia.eus/harpidetza

Durango Azokan ere topatuko gaituzu (Goienkale 71)

Hirugarren urtez autokarabananen bisita

Turistek herriko ondarea eta gastronomia ezagutzeko aukera izango dute

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Labegaraietako autokarabananen guneak bisitari ugari jasoko ditu aste bukaera honetan, Bergarako Udaleko Turismo Sailak Sorbeltz elkartearekin batera ekitaldiz beteriko bi egun antolatu ditu-eta. Hirugarren urtez, domekara bitartean, Euskal Herri osotik etorritako pertsonak batuko dira Labegaraian.

"Bergaran oso harrera ona egin digute beti, eta horregatik errepikatzen dugu", dio Sorbeltz elkarteko Ramon Berrocok. Herriko turismo eskaintza, kokalekua, zerbitzuak... autokarabana-zaleen elkartetik Bergarara etortzeko zerrenda luzea dute; hala ere, hobekuntzak ere proposatzen dituzte. "Gunea herri-gunetik gertuago egotea nahiko genuke, herriko dendez eta eskaintzaz hobeto gozatzeko", argitu du Berrocok. Dena den, Udalak euren eskura jartzen dituen baliabideei esker, Bergara "gertuago" dagoela diote.

Herriko eskaintza

Urte hauetan, Turismo Sailak bisitari mota guztiak erakartzeko ahalegin berezia egin du. "Bergara turistendako herri interes-



garria da", dio Turismo teknikari David Zapirainek.

Labegaraietako gunean egongo diren bisitarien turismo-bonuak eskuratzeko aukera izango dute. "Nahi dutenek, autokarabana bakoitzeko 5 euroko bonu bati



esker, herriko dendetan beharpenak izateaz gain, herri autobusa nahi beste erabiltzeko aukera izango dute", dio Zapirainek.

Nahi dutenek, gainera, zapatu goizean doakoa izango den herriko lorategi historikoak ezagutzeko bisita egiteko aukera izango dute. Goizean herria ezagutu ostean, bere gastronomian ere sakonduko dute. Bihar erreileno eta tostoien eguna ospatzen dela kontuan izanda, askok arratsalde partean plazarako bidea hartuko dute.

Bailara ezagutzera

Errubera gainean iritsiko diren bisitariak, baina, ez dira herrian egotera mugatuko, domekan Elgetara igoko dira-eta. Gerra Zibila Euskal Herrian oinarri hartuta, Intxorta mendiaren magalean izandako frontearen hainbat xehetasun ezagutzeko aukera izango dute. Ibilbidea Elgetako Espaloia Kafe Antzokitik abiatuko da; lehendabizi, Interpretazio Gunea bisitatuz eta ondoren 5 kilometroko ibilbide tematikoa oinez eginez. Bisita horrekin, agur baino gehiago, autokarabana-zaleek gero arte esango diote Bergarari.

Domekan ekarriko dute gogora Monzon eta haren mezua

Zabalotegikoa politikariaren ekarpen kulturala zabaltzeko ekitaldia izango da

MAIALEN TORRES | BERGARA

Telesforo Monzonen jaiotzaren 110. urteurrenean, EH Bilduk omenaldia egingo dio, Monzon nor zen gogora ekarri eta hark utzitako ondare kultural eta politikoa zabaltzeko. Domekako ekitaldia Zabalotegin izango da, 12:30ean, eta, EH bilduko Ibai Redondok azaldu duenez, Euskal Herriaren erabakitze eskubidea aldarrikatzeko erabiliko dute omenaldia.

Pertsona esanguratsua

Telesforo Monzon 1904an jaio zen, Olaso dorrean. Madrilen Zuzenbide ikasketak egin zituen, eta distantziak euskara, gure kultura eta herriarekiko zuen maitasuna azaleratu zituen.

Garai politiko latzak bizi izan zituen: errepublikaren gainbehera, gerra zibila, lagun ugari hilzen ikusi behar, erbesteak...

Euskal Herrian hizlari esanguratsuenetako bat izan zen, eta "Maltzagarainoko bidea elkarrekin egin behar dugu" eta halako



Prentsaurrekoa eman zuten kideak. | MAIALEN TORRES

esaldien "indarra eta balioa" gaur arte iritsi dira.

Domekako omenaldia

Ekitaldian bertan, Osintxuko Musiraka dantza taldea eta Trikiti Eskolako kantariak izango dira, eta euskara zein euskal kultura ere aldarrikatuko dute.

Era berean, haren hitz eta irudian bitartez biziberrituko dituzte Monzonen mezu eta ideiak,

eta Maite Aristegi Monzonen ideiek egun duten indarrak eta aldatetarako baliagarritasunaz arituko da.

Maren Belastegi EH Bilduko kideak azaldu duenez, erabakitze eskubidea esparru guztietan aldarrikatu nahi dute, langileen baldintzetatik hasita. Horregatik, domekako omenaldian Candyko langileek bizi duten egoera "latzaren" bat egingo dute.



AMAIA LABAIEEN

Igeriketa, argazkia eta bazkaria

Neguko ligako bigarren igeriketa jardunaldia antolatu genuen joan zen zapatuan Bergarako Agorrosigo igerilekuan. Bergara Igeri Elkartez gain, Urbat (Eibar), Aloña Mendi (Oñati), Izarraitz (Azpeitia), Zubiaurre (Azkotia) eta Legazpiko Igeriketa Taldea izan ziren lehian. Horiakin batera, baita Gasteizko Judizmendi ere, gonbidatu gisa. 150 bat igerilari. Bergararik, 35. Oso denbora txukunak lortu zituzten, gainera, herriko igerilariak. Txapelketaren ostean, klubeko argazki ofiziala atera genuen. 2015eko egutegirako erabiliko da. Denboraldi honetan, 80 bat igerilari ariko dira elkartean, Nerea Anduaga entrenatzailearen aginduetara. Argazki saioaren ostean, bazkaria egin genuen Agorrosigo jatetxean bertan, igerilari, zuzendaritzako kide eta gurasoek. Ederki igaro genuen otordua. Klubeko igerilariak Eibarren **KOMUNITATEA GOIENA** BERGARA IGERI ELKARTEA | BERGARA

Berdinketa eta guzti, apurka gorako bidea hartzen hasi dira Bergara KE eskubaloiko jokalariek

Esfortzurik gabeko bideak ez omen dauka meriturik, eta Bergara KEko jokalariek gogor ekin diote sailkapenean gora egiteko lanari. Joan den asteko berdinketaren ostean, mutilek puntuak etxean nahi dituzte; horregatik, bihar, 16:30ean, Gure-Auzuneren aurka partidu borobila egitera irtengo dira.

Joan den asteko estropezua atzean uzteko partidua jokatuko du gaur Soralue Bergara KEk etxean

Azken asteetan lortutako puntuen ostean, joan den astean, Allerru taldea Soralue Bergara KEko saskibalo taldearen bolada positiboa apurtzea lortu zuen. Gaur (20:30) etxean arituko dira, eta parean Orioko ZKE taldea izan arren, bi puntuak etxean geratzeko irtengo dira kantzara. Horretarako, baina, etxeok ezango dira askorik erlaxatu eta aurreko jardunaldietan erakutsitako mailari eutsi beharko diote.

Gipuzkoako haur mailako final-zortzirenak eta Gabon sariko bost partidu Udal Pilotalekuan gaur

Ilunkera bizia izango dute Udal Pilotalekuan gaur. 19:15ean Gipuzkoako haur mailako final-zortzirena jokatuko du Aloñamendiren kontra Julen Gallastegi pilotari gazteak. Lehen partidu horren ostean, herriko Gabon sariko txapelketaren uea iritsiko da. Gaur, lehiaketa horretako bost partidu jokatuko dira, eta ikusleek gogotik gozatuko dute.



Udazken/Negu denboraldi berria!
Ezagutu ezazu!

ese O ese

LOVE YOURSELF
A-W COLLECTOR 11-12

Barrenkale 27 - BERGARA
Tel.: 943 76 46 48



Alokairu soziala, kreditu aldaketak eta Libreren mozioa, osoko bilkurako protagonistak

Emakumeen kontrako indarkeriaren eta liburuen maileguen kanonaren aurkako mozioak ere onartu ziren

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Ohiko osoko bilkura izan zen astelehenean. Gai-zerrenda luzea bazen ere, bereziki protagonismoa izan zuten alokairu soziala bultzatzeko programak, EAJ alderdiak kreditu aldaketan harira Gobernu Taldeari egindako kritikak eta mozioek; bereziki, Bergarako Libre taldeak epaiketa politikoen aurka aurkeztutakoak.

Etxebizitza, guztien eskura

Behin betiko onartu zuten bilkuran etxe hutsak merkaturatuz alokairu soziala sustatzeko programa. Jaione Isazelaia alkateak azaldukoaren arabera, nahi baino gehiago atzeratu da, baina "oso pozik" daude programarekin. Atzerapenaren arrazoiak izan da Elkartuk (Gipuzkoako gutxitasun fisikoa duten pertsonen elkarte) aurkeztutako alegazioa, alkateak azalduko moduan: "Elkartuk alegazioa aurkeztu zion programari. Guk sentiberatasun handia dugu elkarte horrekiko eta buelta asko eman dizkiogu. Azkenean, ezin izan dugu onartu, baina neurri batzuk hartu ditugu".

Programak helburu garbia du: "Helburua da etxebizitza eskubidea bermatzea guztiendako. Badakigu badirela gazteak eta independizatzeko arazoak dituzten hainbat pertsona, eta, hori dela eta, Bergaran dauden etxe huts pila hori merkaturatzeko ahalegina egin nahi izan dugu".

Programak hiru modalitate ditu: Eusko Jaurlaritzako Bizigune edo Asap programen osagarri diren bi eta beste bat Udalak propio eskaintzen duena.

Alkateak astelehenean aurreratu zuenez, laster hasiko da Udala laguntza horien guztien gainean herritarrei zuzendutako batzar informatiboak egiten. *Bergara.net* helbidean ere irakur daitezke xehetasunak.

EAJ eta PSE-EE alderdiek kontra bozkatu zuten. EAJK bi arrazoi eman zituen kontra bozkatzeko: batetik, ez daude ados Elkarturen alegazioa ez onartzeko Gobernu taldeak emandako arrazoiekin. Bestetik, etxe hutsen gaineko IBIaren %150eko igoera, errekaudatzeko modua izateaz gain, laguntza programa igoera hori justifikatzeko egin dutela uste dute. Honela esan zuen Aintzane Oiarbidek, EAJren udal bozeramaileak: "Programa horren helburu nagusia ez da izan alokairu soziala sustatzea, baizik eta IBIaren %150eko errekaudua justifikatzea. Gobernuaren helburua izango balitz alokairu soziala sustatzea, bazeukan Eusko Jaurlaritzarekin hitzartu beharreko programak, Bizigune esaterako, legealdi hasieratik egitea. Legealdi hasieran ez du sustatu halako programarik eta ikusten ari gara da, errekaudarekin diru bilketa egin duela lehenengo, gero programa onartzeko".

Ika-mika kreditu aldaketekin

Gai-zerrendako kreditu aldaketak, bestalde, eztabaida iturri izan ziren; luze jo zuen eztabaidak. Zehazki, EAJK aurtien zenbait kreditu aldaketa izan direla nabarmendu zuen, eta hori "gobernu taldeak aurrekontuak egitean duen planifikazio faltaren ondo-

rio" dela esan zuten. "Gobernu batek lehentasunak markatu behar ditu hasieratik, eta gero proiektuok aurrekontuekin aurrera eramane. Baina gobernu honek ez dauka lehentasunak argi, partxeo batzuk egiten ari da; nolabait, bat-bateko erabakiak hartzen dituen gobernu da", azaldu zion Goienari Aintzane Oiarbidek.

Jaione Isazelaia azalpena oso bestelakoa izan zen: "Planifikazioa aspaldi dago eginda, eta, gainera, herritarrekin egindako plan estrategikoaren bermea dauka. Baita Stoak egindako ikerketa, gure urteroko planifikazioa... Gertatzen dena da guk egiten ditugula kreditu aldaketak ziur gaudenean kopuruekin, eta ekin-tza hori benetan burutu ahal izango dela. Nik uste dut zuhurtziaz jokatzeko dugula eta horren lekuko da gure zorra ikaragarri jaitsi dela gure legegintzaldian. Eta uste dut hori bergarar guztiendako onuragarri dela".

Epaiaketa politikoen aurka

Hiru mozio onartu ziren osoko bilkuran; horietako bat Bergarako Libre epaiketa politikoen kontra aurkeztutakoa izan zen. Gobernu taldearen eta EAJren aldeko botoekin egin zuen aurrea. Alderdi sozialista abstenitu egin zen.

Libreko kideak ere izan ziren bilkuran, eta hitza hartu zuten. Hala, Ane Jauregik gogora ekarri zuenez, Aitziber Plazaola bergararra epaitzen ari dira Madrilen, beste 27 gazterekin batera, eta urtarrilaren 12an beste lau debagoiendarren –Mikel Zubimendi, Mikel Garaiondo eta Aitor Aranzabal bergararrak eta Ino Galparsoro arrasatearra– kontrako epaiketa hasiko da Auzitegi Nazionalen 04/08 sumarioaren baitan. Mozioa onartuta, prozesu judizialok bertan behera lagatzea, auzipetuek inolako zigorririk ez jasotzea eta guztiak absolbitzea eskatu zuen udalbatzak.

Horrekin guztiarekin batera, abenduaren 13rako *Eman eskua, epaiketa politikorik ez!* lelopean ekitaldia antolatu dutela ere ekarri zuen gogora Jauregik. Eskutik helduta epaitegia inguratu nahi dute, eta, erronka hori betetzeko, herritar guztiei dei egin zuten.

Beste bi mozioak aho batez onartu zituzten: bata, emakumeen kontrako biolentzia gaitzetsiz; bestea, maileguengatik liburutegi publikoek ordaindu beharreko kanona bertan behera uztea eskatzeko.

Hezkuntzaren Mahaiaren batzarra abenduaren 4an

Bergarako ikastetxeetan ere jarri dute martxan LOMCE, baina Bergarako Hezkuntzaren Mahaiak lege horri ezetz esaten jarraitzen du eta ikasturte honetan ere lanean jarraituko du. Hurrengo batzarra abenduaren 4an egingo dute, 19:00etan, kultura etxean. Ateak zabalik dituzte.

OHARRAK

55EKO KINTOEN BAZKARIA EGINGO DUTE

1934an jaiotakoek –55eko kintoak– urtero egiten duten bazkaria egingo dute abenduaren 6an. Batzokian egingo dute bazkaria. 14:15ean elkartuko dira Batzokian bertan, bazkaldu aurretik talde argazkia egiteko. Izena emateko, deitu 943-76 24 54 telefono zenbakira (Luis).



GOIENA

Murala, puntu beltzetako baten

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela–eta zenbait ekintza egin dira herrian azken egunetan. Elkarretaratze, lehiaketa, antzerki eta zinema emanaldiak batera, goiko irudian dagoen murala margotu du Martxanterak emakume taldeak herriko puntu beltzetako baten: Labegarrietara bidean dagoen tunelean, hain zuzen ere.



LOKATZA

Lokatzen zenbaki sarituak

Lokatza Ziklismo Eskolak antolatutako Gorlako Igoeraren 40. urteurreneko zozketak baditu zenbaki sarituak: 1.403 eta 1.457, hain zuzen ere. Eneko Lizarralde eta Mikel Aristi txirrindulari profesionalak izan zuten txartelak ateratzeko ardura, aurreko egunean udaletxean egindako zozketan. Saria jasotzeko, 653 72 30 63 zenbakira deitu behar da.



Irala kaleko etxebizitza multzoa. | M.B.

Eltziako eskaerei forma ematen hasi da arkitektoa

Urte hasieran makinak sartuko dira musikarien espazioa egokitzeke

O.E. / T.M. | OÑATI

Oñatiko Eteo eraikinaren inguruko Eltzia egitasmoak beste urrats bat egin du. Hala, Udalak arkitektoa bat kontratatu du eraikina erabiltzen duten taldeen beharretara egokitzeko. Momentu honetan hamahiru taldek erabiltzen dute Eteo, eta beste hamabostek erakutsi dute interesa. "Gizarte mugimenduak batzeko espazioa izatea zen hasierako asmoa, eta, urtebete pasa ostean, hasierako helburua berresten dugu", dio Kultura zinegotziak, Nerea Zubiak.

Puzlea osatu

Eltzia egitasmoaren barruan orain arte egindako bileretan, Eteoko eraikina erabiltzen duten taldeek hainbat eskari eta proposamen egin dituzte, eta dagoeneko badabilta horiei forma ematen. "Espazio behar izanak identifikatuta daude eta gestio oinarriak finkatuta. Hau da, eragileek esan dute ze premia behar dituzten. Esaterako, sormen eltzian sartzen direnek ahal izanez gero zamalan gunetik gertu egotea gurako luke-tela esan dute, trasteekin atzera eta aurrera ibiltzea errazteko. Ondoa garbiketa lanak egiteko ur hartunea egotea ere eskertuko lukete. Umeak eta familiak erabiltzeko gunea komunitik gertu egotea komeni dela ere jasotzen da, adibidez", azaldu du Eltzia egitasmoa koordinatzen ari den Bagarako kide Johana Olabarria.

Txosten batean daude jasota eskaera horiek eta horiek planoetara ekartzeko lanean hasita dago Udalak kontratatu duen Izaskun Legaristi arkitektoa oñatiarra. "Eraikinaren egoera ona da eta eragileen behar horiek ikusita eta espazioa ahalik eta gehien aprobetxatuta lege eta segurtasunera egokituz, puzlea osatuko du arkitektoa", adierazi du Nerea Zubiak, Kultura zinegotziak. 12.000 euroko aurrekontua du Legaristik proiektua idazteko eta epeei dagokionez, urtarril bukaerarako proiektuaren lehen zirriborroa prest edu-



Nerea Zubiak eta Johana Olabarria, Lagun Leku elkartearen txokoan, planoak aurrean dituztela. | OIHANA ELORTZA

kiko du. Ondoren, egun Eteo erabiltzen duten taldeekin eta erakundeekin kontrastatuko dute. "Eraikina erabiliko duten taldeekin partekatuko dira planoak, iritziak eta ekarpenak jasotzeko. Baina horrez gain, eraikin honen bizilagunak direnekin ere gauza bera egingo da, adibidez, Larraña

institutuarekin", argitu du Zubiak Asmoa da behin betiko proiektua udarako gertu egotea.

Grabazio estudio bat

Bost eltzetan banatuko diren herri eragile ezberdinek erabiliko dute Eteo, eta, arkitektoa eraikina antolatzen hasi bada ere,

musikariendako egokitzeko den espazioaren diseinua, aurrera-tuago dago. "Azkenengo bileran, azken proposamena adostu genuen. Orain arkitektoa proiektua idazten dabilta; datozen egunetarako proiektua gertu egongo da, eta bere kostua ere jakingo dugu. Gela paretak eta lurrak egokitzeaz gain, espazio horretan grabazio estudio bat egitea ere aurreikusten da. Hori ere jasoko du proiektuak", dio Kultura zinegotziak.

Intsonorizazio kontuetan eskarmentua duen Gasteizko Epaic enpresa dabil diseinuarekin. Asmoa da makinak urtarri-lean hastera lanean eta datorren urteko uda osterako musikariendako lekua erabilgarri egotea. Lanak bi faseetan egingo lirake: zati bat datorren urtean, eta bigarrena 2016an.

Prozesu bi horiekin batera, baina, bertan dauden taldeak hasi dira euren arteko harremanak estutzen: "Elkar ezagutu dute; badakite beste taldetakoek zein arazo dituzten, zelako ekin-tzetan dabilzan... kolaboratzeko ideiak ere sortu dira", dio Olabarria.

Izango dena irudikatzen

Eteo eraikina erabiltzen eta erabili gura dutenekin bilerak egiten hasi zen berriz irailean Johana Olabarria, Eltzia proiektuaren koordinatzen duen Bagara elkarteak kidea: "Badakigu fase tekniko baten sartzen dela orain proiektua eta hasierako emozioak mantentzea, izango dena irudikatzea, zaila ikusten dela, baina elkarren artean ari gara gauzatzen, informazioa partekatzen eta iritziak eta galde-erantzunak konpartitzen".



Johana Olabarria erabiltzaileekin bilera egiten. | O.E.

Ondarroako topaketa feminista aurkeztuko dute gaur gaztetxean

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Emakume Abertzaleon VI. topaketa feministak egingo dituzte abenduaren 13an Ondarroan, eta horren aurkezpena egingo dute gaur, egubakoitza, Antixena gaztetxean. "Aurkezpen honek bi helburu ditu: batetik, abenduaren 13an topaketa hauek burutuko direla aditzera ematea eta hauen edukia eta egitaraua azaltzea eta bertara joateko motibazioa piztea. Bestetik, Euskal Herriko talde feministen eta emakumeen arteko sarea indartzea eta elikatzea. Aurkezpen saio hauetan, hausnarketa kolektibo bat egin nahi da", adierazi du Iraitz Agirre arrasatearrak.

Ondarroan egingo den topaketa hau Euskal Herriko Bilgune Feministak antolatu du eta helburu nagusiak hiru direla azaldu du Iraitz Agirrek: "Krisi sistemikoaren testuinguruan, patriarkatua hartzen ari den formen, irudien, adierazpideen, azterketa egitea; euskal feminismoak Euskal Herriak bizi duen ziklo politiko berriaren aurrean jendarte eredu alternatibo bat eraikitze bidean dauden aukera eta oztopo berriak identifikatzea; etorkizuneko konpromisoei heltzeko emakume feministen sarea indartu eta kohesionatzea".

Atzoko osoko bilkura osorik eskainiko du Goiena telebistak

Atzo, eguna, egin zuen udalbatzak azaroko osoko bilkura. Hantxe egon zen Goiena, eta osorik grabatu zuen, telebistaz emititzeko. Eta gaur, egubakoitza, emango du saio hori, osorik, 22:30ean.

Hamaika gai zituen atzoko gai zerrendak eta eztabaidatu zituzten puntuetakotzatuko dira, adibidez: Apaolaza Alarguna kaleari izena aldatu eta Maria Irizar izena jartzea; emakumei zuzendutako biolentziaren aurkako EH Bilduren mozioa eta etorri turistiko handiko gunetan merkataritza ordutegia zabaltearen aurkako EH Bildu udal taldearen mozioa.

67 eskaera jaso dira San Martingo aisialdiko ortuak erabiltzeko

Guztira, 67 eskaera jaso ditu Udalak San Martin auzoan egin diren aisialdiko ortuak erabiltzeko. Zerrenda hori datozen egunetan jarriko da jendaurrean eta hamar eguneko epea zabalduko da gero alegazioak edo errekursoak jartzeko. Horrelakorik balego, aztertu egingo ditu Udalak eta behin betiko zerrendak aterako ditu. Horrekin batera jakingo da zozketa eguna ere. Dena dela, zozketa hori abenduko hirugarren astean egingo da, ziurrenik.

San Martingo gune horretan aisialdirako 70 ortu egokitu dira, bakoitza 30 metro karratuko, gutxi gorabehera. Zozketa egin ostean, prestakuntza ikastaroa eskainiko zaie erabiltzaileei.

Abenduaren 13an egingo du Elkar Hezik Elkartasun Azoka

Datorren abenduaren 13an egingo du Elkar Hezi ikastetxeak aurtengo Elkartasun Azoka. Urtero moduan, Foruen plazan izango da eta gobernu kanpoko erakundeak egongo dira euren produktuekin. Baita ikastetxe-koek egindako gozogintza postua, txosna, arropa bilketa eta elikadurari lotutako tailerrak ere.

Elkar Hezi Taupadak hamabostaldiaren barruan dago azoka. Kontsumo arduratsua izango da gai nagusia eta, azokaz gain, hitzaldiak, dokumental emanaldiak eta tailerrak ere egingo dituzte abenduan.

Afaria eta musika Movember-eko bibotedunekin

O.E. | OÑATI

Movember mugimenduak herrian izan duen harrera eta jarraipenarekin oso pozik daude bultzatzaileak. "Joan den urtean, 'zergatik duzu bibotea?' galdera entzuten genuen, eta aurten, berriz, 'zu ere Movember?' entzun dugu. Eta hori asko da. Gaia- inguruko sentsibilitatea zabaltzea zen gure helburua eta horrek erakusten du lortu dugula. Oso pozik gaude eta eskerrak eman gura dizkiegu modu batera edo bestera mugimendurekin bat egin duten guztiei", dio bultzatzaileetako batek, Aratz Losadak.

Bihar, zapatua, egingo dute bukaerako festa. ETBko *A ze banda* saioko talde finalistak, Twin Melody eta The Kites, zuzenean entzuteko aukera egongo da Ongi tabernan, 19:30ean. Afalostean, berriz, Nerea Rodriguez DJren saioa egongo da. Afaltzeko 30 bibotedunek baino gehiagok eman dute izena, baina 20:00etan eta denak gonbidatu gura dituzte argazkirako.



Umeak Zubikoa kiroldagian joan den urteko Euskararen Eguna ospatzen. | TXOMIN MADINA

Euskararen Egunerako ospakizunak antolatuta daude

'Euskaraz bizi nahi dut' zapiak udaletxeko harreran daude salgai hiru eurotan

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Abenduaren 3an da Euskararen Eguna eta aurten ere herriko hezkuntza mahaiak antolatuta ospatuko da. Udal ordezkariak ez ezik, hiru ikastetxeetako orde-

kariak osatzen dute mahai hori, eta guztien artean koordinatu eta prestatu dute, beste behin, abenduaren 3a.

Aurreko urteetan bezala, lau multzotan banatu dituzte anto-

latutako ekitaldi guztiak. Goizean zehar, esaterako, LH-4 artekoendako jolasak egingo dituzte Zubikoa kiroldagian, eta Zuazola institutuko ikasleak arituko dira hori koordinatzen. Bestetik, Ber-

ba eta txokolatea egitasmoa ere egingo da gaztelekuan eta ekitaldi horren ardura Elkar Heziko ikasleek izango dute. Eguerdian, gainera, *Lingua Nabajorum* antzezlan egongo da Santa Anan. Arratsaldean, berriz, euskal kantutak abestuko dituzte familia giroak kontzejuean, eta han izango dira Txantxiku ikastolako ikasleak ere. Urtero egin ohi duten afari-tertulia, berriz, abenduaren 4an egingo dute aurten Makalena elkarte gastronomikoan, hurrengo egunean. Aurretik, *Desentxfados* antzezlan egongo da gaztetxean.

Ikasleek, gainera, kazetari lanak ere egingo dituzte eta eurek emango dute egunaren berri herriko komunikabideetan eta Goienan. Hala, Oñati Irratian eta *Etxagon/k* aldizkarian elkarriketak eta albisteak egingo dituzte. Goienak, berriz, eurek gidatuko duten erreportaje bat emitituko du telebistan egunean bertan eta euren kronikak hurrengo egubakoitzeko zenbakian argitaratuko dira, argazki eta guzti.

Banderak balkoietan

Bestalde, Kontseiluak dei egin du aurten ere *Euskaraz bizi nahi dut* zapiak etxeko balkoietan jartzeko. Oñatiko Udalak ere bat egin du deialdi horrekin, eta, hala, udaletxeko balkoian halako zapi bat jarriko dute abenduaren 3an. Herriarrek ere hori egin dezaten, horrelako zapiak ekarri ditu. Udaletxeko harreran daude zapi horiek salgai, hiru eurotan.

Herriko 12 bertsolari bihar hasiko den bertso txapelketan

Antixena gaztetxean izango da lehen kanporaketa bihar, 18:00etan; finala abenduaren 20an da

O.E. | OÑATI

Bihar, zapatua, jokatu da Oñatiko VII. bertso txapelketako lehen kanporaketa. Bigarrena abenduaren 6an izango da eta finala, berriz, abenduaren 20an.

Hiru saio

Hamabi bertsolariak parte hartuko dute txapelketan. Bertsolariak dira: Maider Arregi, Iñaki Olalde, Andoni Goitia, Ander Lizarralde, Egoitz Aizpuru, Urko

Egaña, Gontzal Belategi, Josu Igartua, Urko Arregi, Xabi Paskual, Joseba Lasagabaster eta Gorka Larrea.

Lehen sei bertsolariak bihar kanporaketan jardungo dute, Antixena gaztetxean, 18:00etan. Beste seiak, berriz, abenduaren 6ko kanporaketan lehiatuko dira, Arrano tabernan, 18:00etan. Saio bakoitzean lehenengo postuan sailkatzen dena zuzenean pasatuko da finaleko saiora. Gaine-

rakoek lortutako puntuazioaren arabera eskuratuko dute abenduaren 20rako txartela. Gaztelekuan izango da finala.

Oñatiko bertso eskolak antolatu du txapelketa eta gai-jartzaille lana ere eskolako kideek egingo dute. Gaietako batzuk, baina, herriarrek proposatutakoak izango dira. 200 ideia inguru jaso zituzten herriko tabernetan horretarako jarritako itsulapikoetan. Bertsolarien lana puntuatzen, berriz, bi kanporaketetan hiru lagunek osatuko dute epaimahaia eta gaztelekuan izango den finalekoan lau lagun egongo dira.

Arregi, Xenpelar sarietan

Bestalde, Xenpelar saria jokatu duen bertsolarietako bat izango da Maider Arregi. Joan den zapatuan Errenteriako Xenpelar Etxean jokatu zen kanporaketan lortu zuen finalerako txartela Arregik. Finaleko saioa abenduaren 8an izango da.



Azaroaren 22an gaztelekuan egindako Ideien Azoka. | OÑATIKO SARE

Abenduaren 20an herria saretuko dugu Foruen plazan

KOMUNITATEA GOIENA | SARE | OÑATI

Oñatiko Sare mugimendua pluzala, zabala, parte-hartzailea... zapatuko ariketarekin aktiboa eta eraginkorra izateko ere pausoa eman dugu Ideien Azoka antolatuz.

Hasieran, sormena lantzeko marrazki batzuk egin genituen, taldeka, kontzeptu garrantzitsu batzuk azpimarratuz. Ondoren, talde txikietan ideiekin lanean hasi ginen, aurrez jasota zeudenak garatu eta berriak ere sortu ziren. Gero, ideia horiek garrantziaren arabera sailkatu eta atsedendiko txokolate beroaren une gozoa iritsi zitzaigun.

Atsedendia amaitzean, nork bere burua non ikusten duen hausnartu, ideia konkretuetarako izena eman eta ideiak gauzatzeko planifikazioaren inguruan lehen harriak jarri, etorkizun hurbilerako konpromiso zehatzak hartu genituen.

Hurrengo hitzordu garrantzitsua abenduaren 20koa izango da. Gure herria saretuko dugu plazan, eta ekimen hau oso jendetsua izango da, garrantzitsua da guztiok han egotea; beraz, gorde data. Abenduaren 20an, dispertsioa bukatzeko nahikoa ez, baina ezinbestekoa izango den ekimenera ezin dugu hutsik egin. Lortuko dugu!



Bihar hasiko den bertso txapelketan parte hartuko duten hamabi bertsolariak. | OÑATIKO BERTSO ESKOLA



Mutila Oñatiko euskera liburuari begira. | I.G.

'Oñatiko euskera': erabili eta jolasteko eskuliburua

Edukiaren gaineko ekarpenak jaso nahi dituzte eta lehiaketa antolatu dute

IRATI GOITIA | OÑATI

Udal Euskaltegiak lehiaketa bat antolatu du. "Helburua da ekainean argitaratu genuen *Oñatiko euskera* liburuaren gaineko ekarpenak jasotzea", azaldu du Roberto Altuna zuzendariak.

Bi lehiaketa, sei sari

Parte hartzeko bi modu daude: batetik, modu "arina": liburuan zenbat txantxiku dauden zehaztu behar da. "Azalean zein barrualdean hainbat txantxiku daude. Horiek topatu behar dira. Azken

batean, jendeak liburu esku artean izatea eta harekin jolas egitea nahi dugu", zehaztu du.

Parte hartzeko bigarren modua ekarpenak egitea da. "Jendeari eskatzen diogu liburuaren gainean dituen iritziak, kritikak,

zuzenketak... bidaltzea. Interesatzen zaigu jakitea irakurleak zer ikusi duen liburuan ondo edo zer zuzenduko lukeen. Berba bat, aditz forma bat, esaera bat... izan daiteke", dio Altunak. Hori parte hartzeko modu sakona izango litzateke. "Ez da jakitunentzako zerbait; herritarrendako baizik", zehaztu du. Hala ere, deialdi berezia egin diete, adibidez, ikastetxeetako irakasleei. "Ikastetxe bakoitzera ohar bat bidali dugu dituzten ekarpenak bidaltzeko eskatuz. Oñatierako ikastaroa hartu dutenei ere bidali diegu gutuna. Interesa erakutsi dutenei dei berezi bat egin diegu".

Ekarpenak helbide honetara bidali behar dira: *euskera@oinati.net*. 2015eko urtarrilaren 11ra arte dago horretarako. Ondoren, guztiak aztertuko dira eta onenek saria izango dute. Hiru ekarpen onentzako sariak izango dira: 50 txantxi bakoitzarendako. Eta liburuan zenbat txantxiku dauden asmatzen dutenentzako ere beste hiru, haiek ere 50 txantxikoak.

Bigarren edizioa

Lau hilabete dira liburu argitaratu zutenetik eta balorazio positiboa egin du Altunak. "Salmenta aldetik oso ondo joan da. 500 ale argitaratu genituen eta denak saldu edo banatu ditugu. Horregatik, 300eko bigarren edizio bat atera dugu", gaineratu du. Liburu salgai dago toki hauetan: Altunan, Aritzan, Ibarondon, Hirukarren, Turismo Bulegoan eta Arantzazuko dendan.

Mendi sailekoen abenduko irteera: Zumaia eta Deba arteko GR-121

I.G. | OÑATI

Aloña Mendiko mendi sailak abenduaren 21ean egingo du hurrengo irteera. Zehazki, Zumaia eta Deba arteko GR-121 egingo dute. Mendi sailetik adierazi dute irteerak ez duela zailtasunik izango: 14 kilometroko luzera du eta 650 metroko desnibela. Bost orduko ibilbidea da, kostaldetik. Urteari bukaera egokia emateko, bazkaria egingo dute Deban.

Abenduaren 18ra arte eman daiteke izena: bazkideek 10 euro, bazkide ez direnek 13 eta langabeek 5 ordaindu beharko dituzte. Irteera goizeko zazpietan izango da postetxe parean.



Ibilbidearen irudia. | MENDI SAILA



LIDE OSINAGA

Herriko gimnastak Ilunben

Aloña Mendiko gimnasia erritmikoko neskek erakustaldia egin zuten Ilunben joan den domekan, goi mailako saskibalo partidu batean. Zehazki, Gipuzkoa Basket eta Manresa taldeen arteko norgehiagokaren hutsarte eta atsedendialdiak girotu zituzten. 4.300 zaleren aurrean aritu ziren Aloña Mendiko hogei neska.

Ibon Casasen saioa domekan gaztelekuan, 18:30ean

I.G. | OÑATI

Ibon Casas musikari donostiarrek saio didaktikoa egingo du domekan gaztelekuan, 18:30ean.

Erretinosi pigmentarioa du Casasek eta azken urteotan *DameTVisión* izeneko proiektuan murgilduta dabil, bere gaixotasunaren berri emateko helburuarekin. Hain zuzen, horixe izango da domekako emanaldiarekin lortu nahi duena: sentsibilizazioa. "Nik egiten dudana musika estiloa -blind rock- ezagutzera ematea izango da helburuetako bat. Beste bat, nahi izanez gero lor daitekeela erakustea. Eta azkenik, gaixotasunaren inguruan egiten gabiltzan lana erakustea", azaldu du Casasek. 12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago saioa eta "sinplea baina dibertigarria" izango dela dio musikariak. *Apaga la luz y verás 2014* izeneko *teaser*-a erakutsiko die gazteei lehendabizi. Eta honako hau aurreratu du: "Pixka bat jolastuko gara. Erakutsi nahi diet nola ikusten diren gauzak nire egoeratik". Ikus-entzunezkoaz gain, musika ere izango da. Izan ere, Xabi Mendiluze gitarrak girotuko du hitzaldia eta Casasen hainbat abesti ere joko dituzte.

'DameTVisión'

Apaga la luz y verás abestia izan zen *DameTVisión* proiektuaren oinarri. Eta orain, Casasek izen bereko dokumental bat egin nahi du. Erretinosi pigmentarioa duen pertsona baten begietatik erakutsi nahi du mundua. Pelikula hori garatzen dabil azken urteotan eta horren aurrerapen bat eman zuen 2014ko Zinemaldian -horixe erakutsiko du gaztelekuan.

Bestalde, *DameTVisión* izeneko irabazi asmorik gabeko erakunde kulturala ere sortu dute. Gaixotasunaren ikerketan laguntzeko dirua biltzea da erakundearen helburuetako bat.

Hermansoloña elkarteak eskerrak eman nahi izan dizkie lagundu diotenei

Ibarrendoren omenezko kontzertuetan dirua batezko mahaia jartzeko baimena eman izanagatik eskerrak eman nahi dizkio Hermansoloña gobernuz kanpoko erakundeak antolakuntzari. Bestalde, herritarrei zein gainerako herrietatik kontzertuetara joandakoei ere eman nahi dizkiete eskerrak Nazareth proiekturako egin dituzten ekarpenengatik.

22:00ak arte egongo dira zabalik hainbat denda gaur

Txandak antolatuta, Egubakoitz Baltza egingo dute gaur. Hainbat denda eta komertzio hartuko dute parte ekimenean eta 22:00ak arte egongo dira irekita. Horretaz gain, deskontu, promozio eta eskaintza bereziak izango dituzte, eta zuzeneko musika. Lekeitioko Deabruak taldearen piroteknia ikuskizuna ere egongo da.

DJ Ebil-en eskutik disko-festa zapatuan gaztelekuan, 18:00etan

Gaztetxoaren gozamenerako, disko-festa izango da gaztelekuko topalekuan zapatuan, azaroak 29, 18:00etan. DJ Ebil-ek gidatuko du saioa eta dantzarako musika jarriko du. Hilean behin egiten den emanaldia da, eta, hain zuzen, hurrengo abenduaren 19an izango da Amaia Txintxurrentaren eskutik.

Rock kontzertua egongo da bihar Antixena gaztetxean

Bihar, zapatua, kontzertua egongo da Antixena gaztetxean. Rock kontzertua izango da eta joko duten taldeak izango dira: Legazpiko D-Pintxos, Oñatiko Zurraia eta Beneth. Gauean izango da kontzertua, 21:30ean hasiko da eta sarrera ordaindu beharko da; bi euro kostako da sarrera.

Mus txapelketa, merienda eta herri kirolak Uribarrin

Auzoko jaiak ospatuko dituzte asteburu honetan Uribarri auzoan. Gaur, mus txapelketa izango dute Urriagainen, 22:00etan. Bihar, haurrentzako merienda egingo dute auzoko eskolan, 16:00etan; afaria elkartearen, 21:00etan; eta ondoren, erromeria. Domekan, meza, luntxa eta herri kirolak, 12:00etan hasita.

Artelanak bihar eta agerraldia hilaren 3an, euskara gogoan

'Zer da euskara zuretzat?' gai duten grabazioak Loramendira bidaltzeko azken eguna gaur da

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Euskara ez dela bakarrik abenduaren 3ko kontua gogorarazi gura dute Aretxabaletan ere egunotan. Udal ordezkariak, Loramendi elkarteak, ikastetxeetako ordezkariak, euskaltegiak eta beste hainbat eragile elkartu dira azken asteotan Euskararen Nazioarteko Egunari begirako egitaraua antolatzen eta herritar guztiak gonbidatzeko parte hartzerako.

Grabazioetarako azken eguna

Aldarrikapenak, jai giroak eta konpromisoak bat egingo dute eguaztenean, abenduaren 3an, Herriko Plazan, 18:00etan. Hala, Lekaixoka bertso eskolako kideek bi bertso gertatu dituzte herritar guztiak -ume, gazte, heldu eta nagusi- kantatzeko.

Herritarrek egindako bideo bat ere emango dute bertan. Bideo hori aurretik bidalitako grabazioekin osatuko dute. Eta gaur da grabazio horiek bidaltzeko azken eguna. *Zer da euskara zuretzat?* gai hartuta hamar segundo

inguruko grabazioak (telefono mugikorrarekin egin daitezkeenak) bidali behar dira Loramendi elkartera Whatsapp bidez (685 75 67 29) edo helbide elektronikoa erabilita (loramendielkartea@gmail.com).

Bihar artelanak plazan

Euskararen bueltako kontuak ospatzen, baina, eguaztena baino lehen hasiko dira. Bihar, zapatua, gaztelekuko kideek artelanak egingo dituzte natur elementuekin Herriko Plazan (euria bada, arkupeetan), 16:30etik 20:30era bitartean. Gazteria Sailak, gaztelekuak eta Loramendi elkarteak elkarlanean antolatu dute ekimena, Euskara Mahaiaren laguntzarekin, eta tailerra Garaion elkarteak kideek bideratuko dute. Protagonistak nerabeak izango direla jakinarazi dute antolatzaileek, baina herritar guztiak gonbidatu dituzte ekimenean parte hartzerako.

Horiez gain beste ekitaldi batzuk ere izango direla egunotan iragarri dute.

Bertsoak plazan abesteko

*Euskaldunek garel
hori badakigu
baina euskaldun izeten
nolatan segidu
ez gaittezen bihurtu
jai baten gatibu
egunero izan deilla
abenduak hiru*

Berrizbeitia (Lekaixoka)

*Euskalerrri daniel
edozein lekutan
kalian eta kantuen
jolasien burrukan
in leikie hitanoz
baita ere zukan
euskera lelengo hitza
mingainian puntan*

Mikel (Lekaixoka)

Doinua: Aitorren hizkuntz zaharra

Hasi dira hormigoiz eta metakrilatoz egindako pantailak jartzen

Zarata txikitzeaz gain, segurtasuna ere bermatuko dute Kurtzebarri eskola ostean

M.A. | ARETXABALETA

Orain dela hamar bat egun hasi zituzten zarataren aurkako pantailak jartzeko lanak. Ana Bolinga alkateak hilabete pasatxo dela iragarritako moduan Kurtzebarri eskolako atzeko partean, GI-627 errepide ertzean, jarriko dituzte. Urbycolan SL enpresa gipuzkoarrari esleitu dizkio lan horiek Foru Aldundiaren Mugikortasuneko eta Bide Azpiegiturako departamentuak, eta zenbatekoa 153.295 euro izan da (BEZa barne).

136 metroko tartean

Hormigoiz eta metakrilatoz egindako hiru metroko garaieradun pantailak izango dira, eta 136 metroko tartean jarriko dituzte. Lan horiek egiteko bi

hilabete inguru beharko dituztela iragarri dute; hortaz, urtarriaren erdi ingururako bukatuta izango dira ondo bidean.

Segurtasuna bermatu

Iturrigorri pilotaleku ostean badaude pantailak baina Kurtzebarri eskola ostean ere jartzeko eske zeuden herritarrek aspalditik, batez ere, eskolako kideen, guraso elkarteoen eta inguruko auzokideen eskaeraren gain segurtasuna ere bermatuko dute pantailok. Izan ere, orain errepideraino iristeko modua dute inguru horretan jolasean jarduten duten umeek, eta autoek istripuren bat izanez gero eskola eremura jausteko arriskua ere badute.



Kurtzebarri eskolako atzeko partean egiten dabilzan lanak. | M.A.



M.A.

Indarkeria matxistari ezetza

Aretxabaletan ere ezetza eman zioten indarkeria matxistari martitzenean. Herriko plazan elkartu ziren hainbat udal ordezkari eta herritar asko, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunean, Ernaik deituta, eta elkarretaratzea egin zuten, indarkeria matxista gai zuten hainbat film labur ikusi bitartean. Emakume batzuk txikiteoan egin eta afaltzeko elkartu ziren ondoren.

Kiroldegiaren kontuak eta hondakinek eztabaida sortu zuten osoko bilkuran

Mozioak aho batez onartu zituzten; horien artean, emakumeen aurkako indarkeriaren kontrakoa

JULEN IRIONDO | ARETXABALETA

Ohiko osoko bilkura egin zuten astelehenean Aretxabaletako udalbatzak eta bertan hiru mozio izan zituzten aztergai. Horiek ziren gai-zerrendako puntu bakarrak eta hirurak aho batez onartu zituzten elkartutakoek. Ondoren, galdera eta erreguen tartean, ika-mika sortu zen kiroldegiaren eta hondakinen gaiekin.

Mozioak aho batez onartuta

Aurreneko mozioa izan zen liburuaren maileguagatik liburutegi publikoek ordaindu beharreko kanonaren gainea. PPK, "zerbitzu publikoen kontrako gurtzadan", "kulturari eta hezkuntzari berriz ere eraso" egin diola-eta, aipatutako kanona bertan

behera uzteko eskatu zuen EH Bilduren mozioak. Abuztuaren 1ean Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Errege Dekretuaren arabera, 2016tik aurrera 5.000 biztanletik gorako udalerrietan, Aretxabaletan beste askoren artean, liburutegi publikoek kanona ordaindu beharko diete egile edo editore elkartei, mailegatutako liburu edo erregistratutako erabiltzaile bakoitzeko.

Bigarren mozioa izan zen pobrezia energetikoaren aurkako eta kontsumitzaile ahulak babestearen aldekoa, eta Alderdi Sozialistak aurkeztu zuen hori. Mozioaren bitartez eskatu zieten Eusko Jaurjaritzari eta Foru Aldundiari pobrezia energetikoaren kontrako konpromisoa

hartzea eta larrialdi funts bat eratzea.

Eta hirugarren mozioa izan zen Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrakoa, azaroaren 25aren harira. Mozio guztiak aho batez onartu zituzten.

Kiroldegia eta hondakinak

Mozioek ez zuten eztabaidarik sortu, bai oster, galdera eta erreguen tartean botatutako gaiek. Aralarrek kiroldegiaren gaia atera zuen. Kexu agertu ziren zinegotzi horiek bilera bat eskatu eta ia hilabete pasata Udal Gobernuaren erantzunik jaso ez zutelako. Alkateak aurpegiratu ziren gaiaren gainean egindako azken bileran mahaitik altza eta gero bilera berria eskatzea.

Hondakinei dagokienez, EAJ-ko Haritz Solupe zinegotziak galdetu zuen Udal Gobernuak zein erantzun emateko asmoa duen 5. edukiontzia aldea plataformak egindako herri galdeketa eskariari. Alkateak erantzun zion astean zirela haiekin elkartzeak, baina aurreratu zuen oraingo bilketa sistema ez dutela aldatuko, "oso emaitza onak" eman dituelako.

Biharko Gazte Eguna bukaera eta abiapuntua da

'Azaro iraultzailia' agurtuko du Gazte Ekimenak bihar egun osoko jaiarekin

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Azaro Iraultzailia-ri agur esango diote Gazte Ekimeneko kideek bihar, zapatua. Hilabete egin dako lanari bukaera emango diote horrela, "jai giroan ere aldarrikapen asko egin daitezkeelako".

Lanean jardun dute lau aste bukaeratan, eta hainbat gairen gainean, adibidez, elikadura burujabetzaren eta herri mugimenduen gainean entzun, ikasi eta hausnartu. Eta bihar ere lanean hasiko dute eguna: "Sexualitatearen gaineko tailerra izango dugu lehenengo, eta gero jai giroan sartu bete-betean", jakinarazi du Nerea Zubillagak. Iaz 100 lagun inguru elkartu ziren bazkaltzeko eta aurten ere horren bueltan izango direlakoan daude: "Giro polita sortuko dugula ez izan zalantzarik, eta gazte guztiak animatzen ditugu ekitaldiotan parte hartzera", esan du.

Gazte Eguna, baina, bukaera baino gehiago abiapuntua izango dela jakinarazi du Zubillagak: "Ikasitakoa eta hausnartutakoa gogoan, eraikitzen eta eraldatzen hasteko ordua da orain. Hortaz, bukaera inondik inora ere ez".



Gazte Ekimeneko hainbat kide azaroan egindako batzar batean. | GAZTE EKIMENA

EGITARAUA

11:00 Sex-gazte nahaste-borraste tailerra.

12:30 Lekaixokako ikasleen bertso saioa.

13:30 Gaitariek kalejira.

14:30 Gazte bazkaria.

► Gazte jolasak.

► Andarmaixetako bideoa.

19:00 Kalejira aldarrikatzailea musikarekin.

22:00 Kontzertuak:

► The Convicts.

► Criminal Remains

► Ekaitza

Ekitaldiak udaletxe zaharreen dira.

Maila ona etzi bukatuko den frontenis txapelketan

M.A. | ARETXABALETA

UDAK antolatutako mutilen frontenis txapelketaren azken partidua jokatu dituzte bihar eta etzi. UDAko kideek jakinarazi dute maila handiko jokalariek elkartu direla joan den

asteen hasitako txapelketan: "Lehia handia egon da partiduen gehienetan eta giro bikaina Iturrigorriko harmailtan". Bihar final-laurdenak jokatu dituzte joan den astean sailkatutakoek, eta etzi, finalerdiak eta finala.

FRONTENIS TXAPELKETA

AURREKO ASTE BUKAERAKO EMAITZAK

Julen Lozano - Aimar Cebrino / David Gracianteparaluceta - David del Palacio	25-22
Gus Rubio - Txemi Ramon / Asier Valle - Joseba Fraile	25-19
Aitor Regaño - Ibon Bollon / David Gracianteparaluceta - David del Palacio	25-24
Mikel Moreno - J.Javier P. Corcuera / Asier Valle - Joseba Fraile	17-25
Julen Lozano - Aimar Cebrino / Aitor Regaño - Ibon Bollon	25-21
Gus Rubio - Txemi Ramon / Mikel Moreno - J.Javier P. Corcuera	25-9
Xabier Jauregi - Asier Markiegi / Beñat Zubizarreta - Gorka Gartzia-Etxabe	25-12
Jon Etxeberria - Daniel Soria / Mikel Zubillaga - Gorka Perez de Labeaga	0-0
Jon Diez - Aitor Artolazabal / Beñat Zubizarreta - Gorka Gartzia-Etxabe	16-25
Iban Ayala - Markel Davila / Mikel Zubillaga - Gorka Perez de Labeaga	25-12
Xabier Jauregi - Asier Markiegi / Jon Diez - Aitor Artolazabal	25-8
Jon Etxeberria - Daniel Soria / Iban Ayala - Markel Davila	0-25

AZAROAK 29

09:00 Julen Lozano - Aimar Cebrino / Asier Valle - Joseba Fraile
09:45 Gus Rubio - Txemi Ramon / Beñat Zubizarreta - Gorka Gartzia-Etxabe
10:30 Xabier Jauregi - Asier Markiegi / Mikel Zubillaga - Daniel Soria
11:15 Iban Ayala - Markel Davila / Aitor Regaño - Ibon Bollon
12:00 Lehen eta bigarren partiduetako irabazleen arteko norgehiagoka
12:45 Hirugarren eta laugarren partiduetako irabazleen arteko norgehiagoka

AZAROAK 30

11:00 Finalerdiak
12:00 Finala

Alex Elortondo karatekak lan bikaina egin zuen Donostian jokatuako nazioarteko txapelketan

Maila handiko kirolariak elkartu ziren Bera Bera elkarteak antolatutako zazpigarren txapelketan

M.A. | ARETXABALETA

Adimen urritasuna duten karatekin VII. Bera Bera txapelketa jokatu zuten joan den zapatuan Donostian. Nazioarteko txapelketa izan zen eta maila handiko karatekak elkartu ziren; horien artean, Alex Elortondo aretxabaletarra. Bosgarren postua eskuratu zuen, gainera, Aretxabaleta kirol elkarteak kideak.

Izugarrizko maila

"Izugarrizko maila duten karatekak izan ziren norgehiagokan; orain dela bi aste Alemaniako Bremen hirian jokatuako Europako txapelketan hirugarren eta laugarren postuetan geratutako batzuk, esaterako", jakinarazi du Elortondo entrenatzen jarduten duen Odilo Vazquezek. Postua "gutxienezkoa" dela gaineratu du, baina beti ematen duen postasuna ondo egindako lanaren sariak, eta Elortondo zoriondu gura du horregatik. "Zorionak, Alex; arratsalde bikaina pasatu genuen zuri lagun egitera joan ginenok, eta espero zeuk ere bai. Ea datorren urtean beste txa-

pelketa batzuetara joatera animatzen garen; adibidez, Colindresera (Kantabria), Mallorcara, Italiara...".

Era berean, eskerrak eman gura dizkio Bera Bera elkarteari: "Eskerririk asko Bera Berari eta, batez ere, Jesus Murua kideari, hura gabe halako txapelketarik ez genukeelako izango".



Alex Elortondo, Donostian. | O. VAZQUEZ

'Zeuk egindakoa opari' ikastaroak antolatu ditu Loramendik

M.A. | ARETXABALETA

Zeuk egindakoa opari izenarekin, hiru ikastaro antolatu ditu Loramendi elkarteak abendurako. Hala, Gabonei begira, norberak egindako lanak oparitzeko aukera izango dute ikastarook egingo dituztenek.

Bitxiak eta artilezko lanak

Bitxigintza ikastaroa eskainiko du Ane Gonzalez aretxabaletarrak. Berrerabilitako materiala eta alanbrea izango dira lanabes, eta horiekin bitxi dotoreak egin daitezkeela erakutsiko du. Hiru martitzenetan egingo ditu saioak: abenduaren 2an, 9an eta 16an.

Fimo ikastaroa Nere Uribeetxeberriarekin egingo dute hiru egun hauetan: 4an, 11n eta 18an. Fimoa moldatzeko teknikak ira-

katsiko ditu, eta horrekin ere bitxi politik egingo dituzte.

Hirugarren ikastaroa Pitu-k emango du, artilezko lanen eskolak, hain zuzen ere. Hona egunak: 10ean, 15ean eta 17an. Puntu teknikaren oinarriak irakatsiko ditu, behin ikasita lepokoak, txanoak eta beste hainbat lan egin ahal izateko.

Saio guztiak 18:30etik 20:00etara dira eta udaletxe zaharreen egingo dituzte.

Izen-ematea zabalik

Izena emateko epea zabalik dago eta Loramendira jo behar da. Hona bideak: loramendiekarte@gmail.com; 943-77 09 70 eta 685 75 67 29. Prezioa: bazkideek 8 euro eta gainerakoek, 10 euro.

'Loreak' euskal filma emango dute aste bukaeran Arkupen eta umeek 'Hurrak eta lapurrak' dute

Jon Garañok (Donostia, 1974) eta Jose Mari Goenagak (Ordizia, 1976) zuzendutako *Loreak* filma emango dute gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00). Donostiako Zinemaldiaren 62. edizioaren Sail Ofizialean aurkeztu zuten filma, eta orduan saririk eskuratu ez arren, ostean hainbat jaso ditu eta sekulako kritikak jaso ere bai.

Bestalde, umeek *Hurrak eta lapurrak* marrazki bizidunen filma izango dute, euskaraz, bihar eta etzi, 17:00etan.

Jostailuak jasotzen dabil Kuku Miku

M.A. | ARETXABALETA

Kuku Miku elkarteak kideak jostailuak eta materiala jasotzen dabilteza Durana kaleko atzeko partean duten egoitzarako. 0 eta 6 urte bitarteko umeendako gura dituzte: ipuinak, mozarroka, jostailuentzako edukiontzak... Jostailuek egoera onean egon behar dute eta ez dute piladunik hartuko.

Egoitzara eraman behar da materiala: gaur 17:00etatik 19:00etara bitartean eta domekan 11:00etatik 13:00etara (zapatuan ez dira egongo).

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Euskararen eguna ospatzeko, 'Gozatu euskara ahoan'

- ▶ Hainbat egunetan ekimen ugari egongo dira
- ▶ Haurrentzako jostailu erakusketa egongo da

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko da, urtero bezala, Euskal Herri osoan. Hori dela eta, azaroaren 29tik abenduaren 4a bitartean ekintza ugari prestatu dituzte Eskoriatzako euskalgintzako hainbat eragilek.

Ekintza gehien izango dituen eguna bihar izango da. Hala, egunari hasiera emateko, 12:30ean euskal dantzak izango dira herriko plazan. Gero, 13:00etan, *Euskaraz bizi nahi dut* argazkia egingo dute, eta ondoren, bertso-kalejira izango da Aitor Sarriegi eta Eneritz Artetxe bertsolariekin batera.

Kalejiraren ostean, 14:30ean herri bazkaria egingo dute Egokiena elkartean, eta bazkalostean bertsolariak izango dira. 18:00etan, berriz, egunari amaiera emateko,



Iaz, Euskararen Egunean egin zen kantu kalejira. | ESKORIATZAKO UDALA

Eskoriatzako emakumezko seniorrak, laugarren garaipenaren bila

Zazpigarren jardunaldia jokatu dute gaur, 20:15ean, Manuel Muñozen

I.B | ESKORIATZA

Eskoriatzako senior mailako emakumezko saskibaloitza taldeak Ayma Goierriren aurka jokatu du egubakoitzean, 20:15ean, Manuel Muñoz kiroldegian.

Zazpigarren postuan daude Eskoriatzako neskek, bederatzir puntuarekin, eta, sailkapenean gora egiteko, irabaztera irtengo dira zazpigarren jardunaldi honetan. Aurreko partiduan, Bidasoa Optika Errobide Irunen aurka, ozta-ozta irabazi zuten, 40-42, baina, hala eta guztiz ere, gogotsu

irtengo dira garaipenaren bila. Izan ere, aurkariak 54-72 galdu zuten aurreko jardunaldian, Bera Bera Grosen aurka, eta etxean jokatu aukera bikaina dute puntuak etxean geratzeko.

Laugarrenaren bila

Denboraldia luzea da oraindik, eta dagoeneko hiru partidu irabazi dituzte Eskoriatzako neskek: bi etxean eta bakarra, azkena, kanpoan. Ea etxean jokatu eta zaleen animoekin garaipena lortzen duten.



Eskoriatzakoak erasoan. | IMANOL SORIANO

Eskoriatzako areto futbolekoak garaipen beharrean daude

Bederatzigarren jardunaldia jokatu dute bihar

I.B | ESKORIATZA

Euskal Ligan diharduen areto futboleko Eskoriatza taldeak bederatzigarren jardunaldia jokatu du Kukuyaga Etxebarrir taldearen aurka. Zapatuan izango da, 18:15ean, Manuel Muñoz kiroldegian.

Garaipen beharrean

Azken jardunaldietan ez dute emaitza onik eskuratu Eskoriatzakoak. Izan ere, aurreko bi jardunaldietan galdu egin dute. Hala, bihar irabaziz gero, denboraldiko hirugarren garaipena izango dute.

Ruben Torresen bakarrizketa izango da gaur Huhezin

Ruben Torresek *Series, pelis, documentales y cositas de animales* izeneko bakarrizketa eskainiko du, dohainik, Huhezin. Gaur izango da, 22:30ean, eta, haren bakarrizketarekin, gau umoretsua pasatzeko aukera egongo da. Hala, barre eta algarak eragitera igoko da oholtzara, eskoriatzarrak animatzeko asmoz.

Mihiluze erraldoia egingo da kontzejupean.

Domekan, aldiz, umeentzako zinea egongo da Ibarraundi museoan. *Lotte* filma ikusteko aukera izango da, euro baten truke, 17:00etan.

Abenduaren 3an, ikastolako gaztetxoek eta euskaltegiekoek herriko plaza apainduko dute goiz osoan. Arratsaldean, berriz, 16:30ean, gaztainera jateko aukera egongo da Luis Ezeiza eskolako patioan, eta ondoren, buruhandiak egongo dira leku berean. 17:30ean, haurrentzako jolasak eta euskarazko abestiekin osatutako spinning saio irekia egongo dira pilotalekuan.

Euskal kantuak spinningean

Areto txirindularitzako saioetan, euskal musika gehiago erabiltzeko asmoz, 250 euskal abestiz osatutako bilduma bat erabiliko da Kirola Euskaraz programaren ekimenez. Hain zuzen ere, Aritz Alustiza musikariak eta Eli Rodriguez begirale bergararrak egin dute bilduma hori.

Jostailuen erakusketa

Hilaren 4an, arratsaldeko bostetan, euskarazko jostailu erakusketa egongo da kultur etxean. Azkenik, egitaraua ixteko, kantu kalejira egongo da herrian. Erakusketan, merkatuan dauden euskarazko eskaintzak ikusteko aukera izango da, eta ludotekako begiraleen aholkularitza ere izango da, adinera egokitzen dena egoki erosteko.

EGITARAUA

AZAROAK 29

12:30 Euskal dantzak plazan.

13:00 *Euskaraz bizi nahi dut* argazkia.

13:15 Bertso-kalejira Aitor Sarriegi eta Eneritz Artetxekin.

14:30 Herri bazkaria Egokienan.

18:00 Mihiluze erraldoia kontzejupean.

AZAROAK 30

17:00 Umeentzako zinea: *Lotte*. Ibarraundin. Sarrera euro 1.

ABENDUAK 3

Goizean plazaren apainketa.

16:30 Gaztainera erreak Luis Ezeizako patioan.

17:00 Buruhandiak Luis Ezeizako patioan.

17:30 Haurrentzako jolasak pilotalekuan.

19:00 Spinning saio irekia pilotalekuan.

ABENDUAK 4

17:00-19:30 Euskarazko jostailu erakusketa kultur etxean.

▶ Haurrentzako jostailu erakusketa abenduaren 2an, 4an eta 5ean.

19:00 Kantu kalejira.

Udalarekin tramiteak 'on line' egiteko aukera izango da

Administrazio elektronikoa lan-tresna gisa

I.B | ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak, informazioaren teknologia berriak gero eta hedatuago daudela ikusirik, administrazio elektronikoa lan-tresna gisa erabili nahi du Udalarekin tramiteak egitea errazteko.

Helburu horrekin, Eskoriatzako Udala egoitza elektronikoko baten ataria lantzen ari da, 2015. urtean prest egotea nahi duena, eta, modu horretara, hurrengo urtetik aurrera Udalarekin izan beharreko tramiteak Internetez egiteko aukera eskuragarri egongo da.

Hori behar bezala araututa egon dadin, urriaren 28an izandako osoko bilkuran, Eskoriatzako Udalaren Administrazio Elektronikoko Ordenantzarik hasierako onarpena eman zitzaion.

Herritarren iritzia

Ordenantza jendaurrean dago jadanik, eta nahi duenak aztertu eta erreklamazioak edo iradokizunak aurkez ditzake. Hala, abenduaren 17ra arte egongo da aukera horiek aurkezteko, 09:00etatik 14:30era, Udalaren Erregistro Nagusian.

Orri-puntua aukeratzeko lehiaketa martxan da

2015an Udal Bibliotekan erabiliko den orri-puntua aukeratzeko lehiaketa martxan da dagoeneko. Hain zuzen ere, lanak bibliotekara eraman beharko dira abenduaren 12a baino lehen ezaugarri zehatz batzuekin. Bada, horren inguruko informazio gehiago *Eskoriatzakoagenda.com* webgunean eskura daiteke.

Thermomixarekin janariak prestatzen irakatsiko dute

Thermomixarekin janariak prestatzen ikasteko ikastaroa antolatu du Amuska emakume elkarteak. Abenduaren 4an 17:30ean izango da ikastaroa, kultur etxean, eta gazteleraz emango da. Raquel Gomezek eta Josunek emango dute, eta bertan, Gabonetako postreak, turroia, errege-opila, eta abar egiten ikasteko aukera egongo da, dohainik.

Ruben Torresen bakarrizketa izango da gaur Huhezin

Ruben Torresek *Series, pelis, documentales y cositas de animales* izeneko bakarrizketa eskainiko du, dohainik, Huhezin. Gaur izango da, 22:30ean, eta, haren bakarrizketarekin, gau umoretsua pasatzeko aukera egongo da. Hala, barre eta algarak eragitera igoko da oholtzara, eskoriatzarrak animatzeko asmoz.



Antzuolako Antiguako ermita, barrutik. | ANDER ITURBE

Erdigunea eta Antiguako ermita ezagutzeko bisita gidatua etzi

Ordubeteko bisita izango da eta Ander Iturbek egingo ditu gidari lanak

MIREIA BIKUÑA | ANTZUOLA

Antzuolako erdigune historikoa eta Antiguako ermita ezagutzera emateko bisita gidatua egingo dute etzi, domeka, 12:00etan. Interesatuak alde aurretik eman behar dute izena turismo@deba-

goiena.net atarian edo 943-79 64 63 telefonoan. Antzuolan egingo duten bisita gidatua Ignaziotar Lurralde egitasmoaren barruan sartzen da. Debagoieneko eta Urolako ezkutuko altxorrak erakusteko helburua du.

Bisita gidatua ordubeteko da eta Ander Iturbe izango da gidaria.

Bi aldare

Antzuolako erdigune historikoa ezagutzeko bisita Antiguako ermi-

tan hasiko dute. Erromaniko garaiko eliza da, Santiago bidean dagoena. Barruan hainbat aldaire ditu: ezkerrean Santu Kristoa eta eskuinean Doloretako Ama; azken hori 1696an eraman zuten Arrasatetik. Ermitako irudi aipagarriena 103 zentimetroko Andre Maria da. XIII. mende amaiera eta XIV. mende hasierako egurrezko irudia.

Horiek erakustez gain, elizaren gaineko beste hainbat datu emango ditu Iturbek.

Parrokian ere bai

Antiguako ermita ezagututa, Herriko Plazarako bidea hartuko dute. Tartean, Antiguako kalbarria ezagutuko dute: 1970era arte ermita aurrean egon zen eta 1993an, egun dagoen lekuan kokatu zuten. Gero, XVI. mendeko Antiguako errota, Iriarte base-riak eta Gurutze Bidetik geratzen diren bi gurutzeak eta Antzuolako hiru etxe zaharrenak gertutik ikusteko aukera egongo da.

Errukizko Amaren parrokia izango da azken-aurreko geldialdia. 1524. urtean eraiki, eta 1540an egun dagoen tokia ipini zuten. Kanpandorrea 1866koa da eta egungo erretaula 1585koa. Irudi asko ditu: Loiolako San Inazio, San Frantzisko Xabier, San Juan Bataiatzailea, Jesusen Bihotza, Asisko San Frantzisko...

Bisita Herriko Plazan bukatuko dute, udaletxea eta Bizkalatza eta Goenaga etxeak ikusita.



Erik Lizarralde, Estalan. | M. BIKUÑA

Erik Lizarralde | Emakume kadeteen entrenatzailea

"Helburu nagusia da ondo pasatzea eta talde giroa sortzea"

M.B. | ANTZUOLA

13 urteren ostean emakumeen futbol taldea dute Antzuolan. Gipuzkoako kadete mailan dihardute eta Erik Lizarralde antzuolarra da entrenatzailea. **Aspaldiko partez emakumeen futbol taldea Antzuolan.**

Oso pozik gaude. Kosta egin zaigu, baina lortu dugu. Kadete mailan dihardugu, eta maila horretan adinez txikiagoak direnek joka dezakete, baina zaharragoak direnek ez. Guk hiru jokalaririk zaharragoak ditugu, eta federazioaren baimen berezia behar izan dugu jokalaririk horiendako. Tramite horien zain egon gara taldea martxan ipintzeko.

Antzuolako neskek gogotsu daude, orduan!

Haiek zuten futboleko jokatze gogo. Iaz, infantil mailan ibili ziren zortziko futboleko, eta aurtun saltoa eman dute hamaikako futbolera. Zortzi bat jokalaririk dituzte oso futbolzaleak direnak eta horietatik bostek izan dute beste talde batzuetara joateko eskaintza. Baina nahiago izan dute lagunekin geratu.

Aldaketa handia dago zortziko futboletik hamaikakora?

Bai. Futbol zelaia bizkoiztu egiten da eta lehen pase luzea zena orain pase motza da. Lehen hilabetea eman dugu jokalaririk zelaian zelan kokatu erakusten. Baina bagoaz poliki-poliki. Emaitza guztiak ez dira onak izan, baina giro aparta dugu taldean.

Ze helburu duzue aurtengo?

Batez ere, lagun giroa sortzea. Hiru adin ezberdineko jokalaririk dira eta kezka ezberdinak dituzte, baina ondo konpontzen dira. Gainera, kirola egitea osasuntsua denez...

Behin taldea sortuta, luzerako proiektua izango da?

Aukerak badaude, lanean jarraituko dugu, baina zaila izango da. Oraingoan, denboraldi honetan ahalik eta ondoen pasatzen ahaleginduko gara, eta gero, gerokoak.

Helduendako eta umeendako antzerki bana Torresoroan

M.B. | ANTZUOLA

Helduendako eta umeendako antzerki emanaldi bana egingo dute aste bukaeran Torresoroan: zapatuan, *Ondoko hilobiko tipoa* helduendako (22:00); eta domekan, *Galtzagorriei to, Inaxito!* umeendako (18:00).

Azken horretan, Trikuharri taldeak bertsoak eta antzerkia bateratzen ditu 5 eta 12 urte arte-

koendako. Inaxitoren bizipenak kontatzen dituzte pertsonaia mitologikoez baliatuta.

Hilerrian topo egin dute

Bestalde, Iker Galartza eta Aitziber Garmendia dira *Ondoko hilobiko tipoa* antzezlaneko protagonistak. Bi mundu ordezkatzeko duten Aiora eta Pablo dira, eta hilerrian topo egingo dute...



Galtzagorriei to, Inaxito! antzezlan. | USURBILONLINE.COM

Euskararen arnaguneen bigarren saioa abenduaren 11n

Euskara batzordeak martxan jarri du euskararen arnaguneak identifikatzeko tailerra. Lehen saioa hilaren 17an egin zuten eta bigarrena eta azkena abenduaren 11n izango da, Olaranen (18:00-20:00).

"Gune euskaldunek euskararen normalizazio prozesuan duten garrantziaren jabe izanik eta, aldi berean, gune geografiko euskaldunetan detektatu den distentsio eta kontzientziazio faltak sortutako kezka oharturik, horietan eragiteko asmoa du tailerrak", diote antolatzaileek. Euskararen arnaguneak zer diren hausnartuko dute, besteak beste.

MIKEL BARGIELA

'Homo sapiens'-a

7 000 milioi izan ginela pentsatzea ere. Nahikoa ez nonbait, edo gehiegi agian, *sapiens*-aren bizi-raupena nola bermatu asmatzeko. Mende batzuk igaro dira dagoeneko indar kolonizatzaileek pastela eskuaira eta kartaboiz zatitu zutela. Baita bertakoak zapaldu eta baliabide guztiak lapurtu zizkietela. Oinek, lanerako apartak zirelako,

NIRE USTEZ

atzerrian esklabotzan aritzeko Erasmus bekak jaso zituzten. Nota ematen ez zieten euren etxean bertan apartatuak eta abandonatuak izan ziren. Ondoren etorri ziren diktadoreak, gerrak, pobrezia, izurriteak, gosea...

Denbora luzean, egoera jasangaitzak bultzatuta eta laguntza eskatzeaz nekatuta, salto mortala egitera ausartu ziren asko eta asko. Bestaldean geundenguz, lurraren jabe ginenak, sistema ekonomiko mundialean (inork sekula ulertu ez zuena) muturra sartu nahian. Arazoak identifikaturik genituen eta soluzioak bikainak ziren: hamar metro altuerako hesiak, hortzaz beteak. Eureka. Hau ikusita, gogoan dut Fidel Castro Ruz

iraultzaileak esaten zuena: "Zertarako balio du zibilizazioak orduan? Zertarako pertsonen kontzientziak?". Batzuek asmatutako istorio bat zela zioten eta beste asko lasai zeuden. Hirugarren Munduko lurralde pobreenetan bakarrik eraillko zituela. New York, Oslo, Paris edo Antzuolako baten odolak hangoenak baino gehiago balio zuelakoan. Heriotzak, ordea, ez du sobornorik onartzen eta musu-truk ematen dizu pasea. Geldiezina zen eta alde guztietatik zetorren, sukaldeetan izan ohi ziren ke-xurgatzaileek belarrietatik barna eragiten ziguten deserosotasuna bezala, piztuta utzirik genuela konturatu ere egin gabe afaltzen geundela. Ebola, ebola...

Herriko gaien gaineko lehiaketa abiatuz, euskara irabazle nagusi

Euskal jinkana antolatu du euskalgintzak herriko komertzio eta tabernetan

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aramaio euskara berreskuratzeko, ezagutzera emateko eta erabilera sustatzeko ekimen berritzailea antolatu dute aurten. Abenduaren 3an ospatuko den Euskararen Egunaren bueltan euskal jinkana antolatu dute herriko zenbait komertziotan azaroko bi azken aste bukaerarako: okindegian, harategian, Kintelenan eta Eki, Añai eta Anboto tabernetan.

Lehen aldiz antolatu dute, hiru helburu nagusirekin: "Hasteko, euskalkian ia galduta dauden hitz batzuk errekuperatzea eta ezagutzera ematea. Horrez gain, euskararekin lotutako galderak prestatu ditugu eta horrekin euskararen erabileraren gaineko hausnarketa bultzatu gura dugu. Azkenik, joko edo lehiaketa moduan antolatu dugunez, modu dibertigarrian euskararekin jolas-



Herritar bat galdeketa betetzen, Anboto tabernan. | ARAMAIOKO UDALA

tea sustatu dugu", adierazi du jinkana antolatu duen batzordeak.

Batzorde hori Txirritola euskara elkarteak, Udaleko Euskara batzordeak eta guraso elkarteak kideek osatzen dute.

Harrera ona lehen asteburuan

Ekimena azaroaren 20an jarri zen martxan eta lehen aste bukaeran bakarrik 100 lagunek hartu zuten parte: "Espero dugu bigarrenean kopuru hori mantentzea.

Lehen aste bukaeran 12 galdera erantzun ziren eta gehien asma-tu zituenak hamar erantzun zituen ondo", diote.

Aste bukaera bakoitzean bi galdera egin dira komertzio edo taberna bakoitzean. *Akilitaixue* zer den, bazkalosteko loalditxoari Aramaion nola deitzen zaion edo herriko euskararen ezagutza zenbatekoa den galdetzen da, besteak beste, hiru aukera posible jarrita. Bi galdera horiek erantzun behar dira komertzio edo taberna bakoitzean, behin bakarrik.

Hortaz, gaur, bihar eta etzi aukera egongo da parte hartzeko. Irabazlea izango da 24 galderetik gehien asmatzen dituen. Antolatzaileen arabera, oraingoz hamar erantzun ditu ondo gehien asmatu dituenak. Sariak Euskararen Egunean, abenduak 3, banatuko dira, Sastiñan, 18:00etan. Lau sari banatuko dira: bi lagunendako afaria eta sagardoz eta gatzaz osatutako hiru sorta.

'Loreak' abenduaren 5ean

Euskararen Egunaren bueltan beste ekintza batzuk ere antolatu dira. Esaterako, *Loreak* filma ikusteko aukera egongo da abenduaren 5ean kultura etxean (22:30).

NIRE USTEZ



ANDER ELORTONDO

Herriko zuhaitz dotoreak

Alea Arabako euskarazko aldizkari berriaz hitz egin nahi nuen zutabe honetan. Web helbidean (<http://arabakoalea.info>) badago eskuragarri horretarako informazio zabala, zer den, helburuak, harpidetza, eta abar. Gasteizko Oihaneder euskararen etxean (Montehermoso jauregian) bihar izango da aurkezpen jaialdia eta abenduaren 3an banaketa masiboa.

Baina aste honetan herriko emakumeek eginikoa, Aramaio zuhaitzak jantzi dituen ekintzak, gaia aldatzera eraman nau. Badira salaketa deigarriak, badira oihartzun handiko aldarrikapenak, baita kanpaina hunkigarriak ere, baina ezaugarri horiez gain ondo jositako ekintza burutu dute oraingoa Aramaio emakumeek.

Despistatuenak ere galdu du zergatik jantzi diren horren kolore dotorez herriko arbolak, eta zarata atera gabe, inoiz baino ekintza deigarriagoa burutu da. Guztiok komentatu dugu ingurukoekin ikusitakoa; honela, adin guztietako emakumeen partaidetzaz jabetu gara.

Ekintzaren estetika zer esan, inoiz ez baitut aldarrikapen ekintza baten aurrean edertasunaren hainbeste aipamen entzun. Herriko emakumeak, lan eredugarria egin duzue, zorionak eta animo! Horrela bai!

Guztiok, eurekin bat egin da, argi eta ozen zabal dezagun mezua, emakumeen aurkako erasoak ez ditugula nahi ez Aramaion ez inon.

"Herriko emakumeak, lan eredugarria egin duzue, zorionak!"

Jon Ander Beristainek 'slackline' diziplina zer den erakutsiko digu

KOMUNITATEA GOIENA
ORIXOL MENDIZALE ELKARTEA | ARAMAIO

Orixol elkartetik urtero antolatzen dugu bideo emanaldiren bat Gabonen bueltan. Alex Txikon ekarri genuen iaz, esaterako. Aurten, zuzendaritzakoak berriak izan arren, ohiturari eutsiko diogu: Jon Ander Beristain alpinis-

ta eta zuzendaria gonbidatu dugu, bere *High Over Todra* izeneko azken dokumentala aurkez dezan. Beristainek *slackline* deritzon diziplina erakutsiko digu; bi hitzetan esateko, mendian jarduten duten *funanbulistak* dira protagonistak, hau da, soka baten gainean amildegira erori barik ore-

kari eusteko gai diren adituak. Marokoko Todra deritzon zonan kokatzen da dokumentala. Gaur izango da bideo emanaldia, Sastiñan (19:00). Doakoa da.

Galderak egiteko aukera

Orixol elkarteko zuzendaritza talde berriko kide baten klasean ibilitakoa da Beristain, eta haren bidez ekarri dugu. Azaldu digunez, emanaldiak eta aurkezpenak ordu bete iraungo du, eta galderak egiteko aukera egongo da.



Dokumentaleko *frame* bat. | GOIENA



Behelainoz dator egunona argazkia, lehiaketako irabazlea. | IKER AIZKORBE

Iker Aizkorbe irabazi du 2015eko egutegia osatzeko argazki lehiaketa

J.B. | ARAMAIO

Udalak urtero antolatzen duen argazki lehiaketako irabazleak asteon eman dira aditzera. 2015eko Udalaren egutegia osatzeko erabiliko dira lehiaketan parte hartu dutenek bidalitako argazkiak.

Irabazle nagusia Iker Aizkorbe izan da, *Behelainoz dator egunona* moduan bataiatu duen goiko argazkiarekin. Aizkorbe 200 euroko saria jasoko du. Sari nagusiaz gain, Udalak beste lau

sari banatu ditu, urtaro bakoitzeko onenak. Udaberriko irabazlea Eider Ballinaren *Ur jauzia* izeneko argazkia izan da, udako onena Aizpea Ajuriagerraren *Belarmeta*, udazkeneko irabazlea Unai Etxenausiaren *Besaiderutz* eta neguko argazki onena, azkenik, Olatz Altunaren *Zabalaundi*. Lau irabazle horiek 100 euroko saria jasoko dute. Egutegia osatzeko beste zazpi argazki aukeratu dituzte antolatzaileek.

Omenaldia abesbatzako bost kideri

Bizente Goikoetxea abesbatzako 80 urtetik gorakoei omenaldia egin zieten Santa Zeziliako kontzertuan. Pako Izaga, Juan Jose Pol, Victor Mendiadua, Santiago Elexalde eta Alatz Arana omendu zituzten. Bertso eta oroigarri bana jaso zuten.



BIZENTE GOIKOETXEA ABESBATZA

ELGETA

Ibilgailuen abiadura murrizteko lanak, laster

Malape etxe paretik Kataira bitartean txandakako zirkulazioa ezarriko dute

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Lan garrantzitsuak egingo dituzte herri erdigunean. Martitzeneko osoko bilkuran onartu zuten 49.930 euroko aurrekontua duen proiektua. Gabika enpresak egingo ditu lanok, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainduko ditu. Udal arduradunek azaldu duteenez, helburua da: "Ibilgailuen abiadura murriztea eta oinezkoen segurtasuna bermatzea".

Txandakako zirkulazioa

Malape etxe paretik Kataira bitartean pasa arteko eremua hartuko dute lanok, eta bi semafororen bitartez zirkulazio txandakatu eza-rikiko dute. Elorriotik Bergararako noranzkoa arku osteko semaforoak antolatuko du, eta Bergararik Elorriorako noranzkoa Malape paretan ipiniko duten

semaforoak –Ostatu parekoa jaitziko dute bertara–. Eibartik datozen ibilgailuak ezingo dira zuzenean erdigunean sartu eta, derrigorrez, kantxako biribilgunea egin beharko dute.

Lanok eremu osoa itxuraldatuko dute. Espaloien eta errepi-dearen maila bateratu egingo dute, errepidea estutu egingo dute eta espaloiak zabaldu egingo

dituzte. Kataitik Espaloiko pasealeku hasieraraino bi errail mantenduko dira, batez ere autobus geltokietatik, Ostatu azpiko aparkalekutik eta garajeetatik irteten diren ibilgailuendako. Hortik behera, ordea, errail bakarra egongo da. Libre geratutako errailean pibote bidez mugatutako oinezkoendako pasabidea egingo dute, Malape pareraino.

Zirkulazioa lanak egiten dituzten bitartean

Egin beharreko lanak adostuta daude Foru Aldundiarekin, eta asmoa da urtea amaitu aurretik egitea. Udala, orain, lanok zirkulazioan zer-nolako eragina izango duten zehaztu nahian dabil. Zulaketak, margotze-lanak eta asfaltatze-lanak egin beharko dira, eta: "Seguruena, bideak itxi egin beharko dira". Ahalik eta eragozpen gutxien sortzeko egutegia antolatzen ari direla jakinarazi dute. Herritarrek informatzeko bilera irekia deitu du Udalak astelehenerako, abenduak 6, 18:00etan, udaletxean.

Saria, egindako jarraipen farmako-terapeutikoari

Maiatza ezker eskaintzen dute zerbitzua Elgetako botikan, eta bi sari jaso dituzte Kordoban



Elena Elkorok eta Amaia Garitano, Elgetako botikan. | L.Z.

L.Z. | ELGETA

Amaia Garitano botikariak jaso du saria Espainiako farmazialariek Kordoban egindako azken bilkuran. Jarraipen farmako-terapeutikoa bost botikatik gora hartzen dituzten 65 urtetik gorako erabiltzaileendako doako zerbitzua da. Elgetan aztertutako zenbait kasuren txostena aurkeztu zuten deialdira, eta sarituak izan dira. "Botikek beharrezkoak, eraginkorrak eta seguruak behar dute", dio Garitanok. "Farmaziatik bikoiztasunak, auto-medikazio desegokiak, eraginkortasun falta... detekta daitezke". Lorpen honetan Garitanok ezinbestekotzat jotzen ditu botikako arduradun Elena Elkorok zerbitzuarekiko egindako apustua eta herriko sendagilearekin eta erizainarekin dagoen elkarlan estua.



Indarkeria matxistaren kontra

Martitzenean, emakumeen kontrako indarkeria salatzen bilkura isila egin zuten Elgetan. Biharko, zapatua, autodefentsa feminista tailerra dago antolatuta, 09:30etik 13:30ra, eskolan. Plaza libreak daude oraindik.

Eguaztenean, abenduak 3, dantza, jokoak eta txokolate-jana, Euskararen Eguna ospatzeko

Herritarrek 16:00etatik aurrera herriko plazan egingo diren ekintzetara gonbidatuta daude. Kantuan eta dantzan egingo dute haurrek eta gurasoek. Umeendako jolasak eta txokolate-jana ere iragarri dituzte guraso elkartetik. 17:30ean, Euskal Herriko mapa erraldoia irudikatuz argazkia atera nahi dute plazan. Herritarren parte hartzea eskatu dute mapa ondo ateratzeko.

XI. PILOTA TXAPELKETA

AZKEN EMAITZAK

Mikel Beretxinaga-Ibon Untzetabarrenetxea / Oskar Sarasua-Iñaki Olaortua	22-16
Koldo Erostarbe-Mikel Ormaetxea / Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta	22-13
Koldo Goenaga-Fernando Zenitagoia / Iñaki Ugarteburu-Gorka Bolinaga	22-18
Angel Ibarluzea-Alberto Telleria / Jabier Larrañaga-Iker Irazabal	22-14

GAUR, BARIKUA, 19:30EAN

Diego Cantabrana-Iban Retolaza / Koldo Erostarbe-Mikel Ormaetxea	
Oskar Sarasua-Iñaki Olaortua / Oskar Askasibar-Haritz Gallastegi	
Angel Ibarluzea-Alberto Telleria / Jabier Bolinaga-Jose Mari Zubiaurre	
Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta / Mikel Beretxinaga-Ibon Untzetabarrenetxea	

OHARRAK

SORMEN TAILERRA

Gaur, barikua, 17:00etan, ordubeteko tailerra liburutegian sei urtetik gorako umeendako.

PRESOEN ALDEKO BILKURA

Hileroko hitzordua gaur, 20:00etan, herriko plazan.

UMEEN PILOTA TXAPELKETA

Izen-ematea zabalik abenduaren 3ra arte udaletxean eta eskolan.

BISITA LUBAKIETARA

Etzi, domeka, 10:00etan, Espaloia kafe antzokitik abiatuta.

ODOL ATERATZEAK

Astelehenean, 16:00etatik 20:00etara, udaletxean.

ELGETA KANTUAN

Abenduaren 12rako deitu dute. Entseguak egingo dituzte abenduaren 2an eta 9an, 21:00etan.

LEINTZ GATZAGA

Kultura etxea autodefentsarako eskola bilakatuko da bihar, zapatua

Bederatzi emakumek eman dute izena Emagin elkartearen tailerrarako

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Lau orduz jardungo dute bihar, zapatua, autodefentsarekin lotutako tailerra lantzen, kultura etxean, 09:30ak geroztik. Udaleko Gizarte Ongizate Sailak bideratutako ekimena da, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren bueltan antolatutakoa, hain zuzen ere.

Biharko saioari dagokionez, bederatzi emakumek eman dute izena, gazteak gehienak: "Baina norbait azken orduan animatzen

bada, aukera izango du etortzeko", adierazi du Ainara Gabilondok, Ongizate Saileko teknikariak. Ikastaroa doan izango da, eta iazkoaren jarraipena izanak ez du baldintzatuko aurtengo parte-hartzea.

Tailerra Emagin elkarteak dinamizatuko du, emakumeen inguruko ikerkuntza sustatzeko Andoaingo elkarteak, eta iragarri du praktikoa izango dela. Besteak beste, mugak jartzen jakiteko ariketak egingo dituzte, eta autoes-

timua eta elkartasuna landuko dute, adibidez.

Aurrekoa, arrakastatsu

Antzerako ildotik, autodefentsa lantzeko beste tailer bat egin berri da Leintz Gatzagan. Joan den zapatuan egin ere. Eskoriatzako Atama Kenpo klubak gidatu zuen, Gatzagatik bertatik jasotako eskaera tarteko. Rafa Carriet irakasleak esandakoaren arabera, 15 emakumek parte hartu zuten, adin askotarikoak, eta,



Emakumeak Carriet irakasleak esandakoak praktikatzen. | IMANOL SORIANO

oro har, autodefentsarako oinarriak landu zituzten. "Zela mugitu, zela kendu azpian harrapatuz gero, kolpatzeko bi modu... Ikastaro praktikoa izatea zen helburua; adibidez, arrisku egoerak

saihesteko aholkuak eman genituen... Oso giro ona izan genuen, eta lan handia egin zuten parte-hartzaileek. Eskerrak eman nahi dizkiet Belokiri eta Txemari eta Atama Klubeko kideei".

ATLETISMOA

Maider Gaztañaga eta Beñat Arnaiz | Triatletak

"Zentzuz entrenatu behar da, saio bakoitzean egurrean ibilita ez dugu gehiago egingo"

- Profesional izan barik, elitean lehiatzen dira Gaztañaga eta Arnaiz triatletak
- Entrenamenduez, familiaz eta erronka berriez jardun dute 'Harmailatik' saioan

XABIER URZELAI | ARRASATE

Beñat Arnaizek eta Maider Gaztañagak triatloizaleen artean ez dute aparteko aurkezpenik behar, lasterketetan aurrean ibiltzen diren horietakoak dira-eta. Helmugan besoak altxatzeak hiru segundo irauten du, baina keinu horrek lan handia dakar atzean, eta gauza asko sakrifikatu beharra. Astelehenean *Harmailatik* saioan izan ziren biak; askorako eman zuen tertuliak.

Zelan iritsi zineten triatloira?

Beñat: Nik sarritan esan ohi dut triatloian gabiltzanok aspaldi konturatu ginela beste kirolean txarrak ginela [barrez] eta gauza berriak probatzearen hasi ginela. Korrika egiten hasten zara, edo bizikletan ibiltzen, eta ondoren norbaitek komentatzen dizu badela kirol jarduera bat hainbat modalitate batzen dituen...

Maider: Ni igeriketatik nator [profesionala izan zen gaztetan, eta Bartzelonako Joko Olimpikarrik izan zituen helburu, biriketako lesio bat izan zuen arte] eta esan dezaket arlo horretan abantaila handia nuela. Gero, bikotekidearekin hasi nintzen beste modalitate batzuk probatzen, eta duatloi eta triatloietan hasi ginen, baita negukoetan ere -iraupen eskiaz. **Beñat, urte batzuez bailarako taldea utzi eta Lagunak Saltokira joan zinen, profesional izan barik, zorrotasun handiagoa eskatzen zuen taldera.**

Bai, orain ez dakit egingo nukeen, baina orduan erakargarria egiten zitzaidan beste maila bateko atletekin lehiatzea. Noski, honekin ez dut esan gura Antxintxikan ez dugunik maila onik [barrez], baina beste talde horrek, esaterako, Espainiako Txapelketan lehiatzeko aukera ematen zidan, eta probatu gura nuen. Hiru urteren ostean etxeko taldera itzultzea erabaki nuen, lagun artean lehia-

tzera, entrenatzera, eta horrek izugarri laguntzen du. Batez ere, lagun artean entrenatu ahal izateak eta giro ona izateak kirol honetan asko balio du, bakarrik egiten dituzulako entrenamendu saio asko. Etxean moduan, inon ere ez.

Gauza asko dituzue komunean, profesional izan barik muturrera eramanez duen zaletasuna.

Maider: Izaera kontua dela esango nuke. Ni gaztetatik ibili naiz lasterketetan murgilduta, eta gustuko dut nire gorputza muturrera eramatea, noraino iritsi naitekeen ikustea. Igeriketan muga hori ondo ezagutzen nuen, eta beste arlo batzuetan hasi nintzen probatzen. Gainera, nire buruarekin lehiatzea atsegin duen horietakoa naiz.

Gorputza muturrera eramate horrek, baina, kostu handia du. Besteak beste, kirolaz aparte lan egin behar delako, etxekoekin egon... Hau da, apartekorik egin barik ere aste amaierara iristeko...

Maider: Bai, hala da. Eta horretan oso garrantzitsua da behar den moduan entrenatzea, eta horretarako, ezinbestekoa da entrenatzaile on bat izatea ondoan. Lehen, entrenamendu bakoitzean dena ematen nuen, leher eginda iristen nintzen etxera, eta konturatu nintzen hori ez zela entrenatzeko modurik onena. Nire entrenatzailea gertuko lagun bat da, eta hilabeteko entrenamendu saioekin hasi ginenean konturatu nintzen ez zela posible, alaba gaixotu egiten zelako, edo irakasleaz elkarrizketa nuelako.... Hala, aste batetik besterako entrenamendu saioak planifikatzen hasi ginen; horrela errealagoa da.

Beñat: Horrekin batera, ezinbestekoa da etxekoekin laguntza, astea eurekin batera planifikatzea, kirolariok bestela ere egoistak



Arnaiz eta Gaztañaga, astelehenean, Goiena telebistako platoon. | X.U.

izaten garelako. Hozkailuko atean hilabeteko planifikazioa izaten dut, eurek ere jakin dezaten egun bakoitzean zer tokatzen zaidan. Euren laguntza barik, ez dago zereginik.

Maider, aurten triatloiak albo batera uzteko asmotan zabilta.

Maider: Bai, mendian nabil korrika gustura, eta lasterketa batzuk egingo ditut, bai. Baina etxekoekin ere atentzioa eskatzen dute, eta zortzi urteko alaba nekatu da

ama lasterketetan ibiltzeaz. Hura ere hasi da eskola kirolean, eskolaz kanpoko jarduerak ditu, eta ama behar du ondoan. Orain hor egon behar dudala ikusten dut. **Beñat, ze asmo 2015era begira?** Bada, oraindik ez dut garbi non lehiatuko naizen. Baina lasterketa bat irabazi gurako nuke, gure ondotik joan berri zaigun lagun on bati eskaintzeko; kirolzale amorratua zen, gainera. Motibaziorik ez zait faltako.

ESANAK

"Igeriketan banekien non nuen muga; beste kirolean ezagutu gura nuen"

"Nire buruaz lehiatzea atsegin duen horietakoa naiz"

"Orain sentitzen dut etxekoekin gehiago egon behar dudala"

MAIDER GAZTAÑAGA | TRIATLETA

"Gure moduan ibiltzeko ezinbestekoa da etxekoekin laguntza"

"Entrenatzeko talde polita izateak asko laguntzen du"

BEÑAT ARNAIZ | TRIATLETA

ATLETISMOA

Yeray Varelak Azkoitiko herri lasterketa irabazi zuen aurreko zapatuan

Yeray Varelak 31.35eko denborarekin lortu zuen garaipena Azkoitiko hamar kilometroko herri lasterketan. Ia 400 korrikalari batu zituen hamar urte bete dituen lasterketarako, eta oñatiarrak oso lan ona egin zuen, bigarren geratu zen Imanol Larrañagari eta hirugarren gelditu zen Xabat Mantzisorri minutu bateko aldea aterata.

MENDI LASTERKETA

2015eko Aloñako XI. Igoera apirilaren 26an izango da

Baiezatu dute dagoeneko 2015ean XI. Aloñako Igoera ospatuko dela. Apirilaren 26an izango da, eta, hain zuzen, igoera bortitza, tontor tekniko ederraz eta amaierako basoko korrikaldiaz gozatze-ko aukera izango da. Bada, aurten egin den domekako lasterketaren ibilbide berbera izango du.

ESKUBALOIA

Ford Mugarri liderraren aurka lehiatuko da zapatuan Eibarren

Zapatuan, 16:30ean, Somos Eibarren aurka jokatuko dute Gartziaeren mutilek. Partidu gogorra izango da; izan ere, armaginak lidergoa ez galtzeko gogor lehiatuko dira. Edozelan ere, Ford Mugarri hirugarren postua lortu zuen aurreko jardunaldian eta une onean joango dira liderraren aurka lehiatzen.

ATLETISMOA

Aitor Eraña korrikalari beteranoak Espainiako errekorra ondu dezake

Domeka honetan, Donostiako 37. Nazioarteko Maratoia izango da, eta, urtero bezala, debagoiendar askok hartuko dute parte lasterketan. Horietako bat Aitor Eraña korrikalari beteranoa da, eta Espainiako errekorra ondu dezake, kronometroak hiru ordu eta bost minutu baino gutxiago mar- katzen badu helmugan.

ARETO FUTBOLA

Aretxabaletako areto futbol taldeak lidergoan segitzen du

Aretxabaletak Pescados Ferreres anaiak taldearen aurka jokatuko du zapatuan, 18:00etan, Oiartzunen. Aretxabaletakoak lidergoan daude 19 punturekin, denboraldi borobila ari dira egiten. Bada, Oiartzun taldea atzetik dago, hiru puntura, eta lidergoari eusteko gogor lehiatu behar-ko dute Riberaren mutilek.

FUTBOLA



Aretxabaletako atezain Asier Castellano gelditua egiten. | JOSETXO ARANTZABAL

Aretxabaletak garaiezin segitzen du lidergoan

IMANOL BELOKI | ARRASATE

Ohorezko Erregional mailan Aretxabaleta da jaun eta jabe. Izan ere, aurreko jardunaldian 1-0 Hernaniri irabazita, lidergoan segitzen du, garaiezin. Hain zuzen, bigarren postuan dagoen Aurrea taldeari bost puntu ateratzen dizkio eta hirugarrenari, berriz, hamabi.

Gorka Valleren mutilek etxetik kanpo jokatu dute hurrengo jardunaldia, domekan, Hondarribiaren aurka. Aurkariak sailkapeneko azken-bigarren postuan daude, eta, erlaxatu gabe, irabaztera irtengo dira zelaira, gupida gabe.

Antzuola, zulotik atera nahian

Antzuola denboraldi makala egiten dabil aurten; izan ere, azken postuan dago taldea, eta, denboraldia luzea izan arren, garaipenak eskuratzen hasi beharko du lehenbailehen. Aste honetan, Anaitasuna izango du aurkari eta ahal dutena eta gehiago egingo dute Muruaren mutilek zulotik ateratzeko. Ea etxeko animoekin garaipena lortzen duten eta poliki-poliki goranzko bidea hartzen duten.

Aloña Mendik eta Bergarak, berriz, etxetik kanpo jokatu dute, lehenak Beti Gazteren aurka eta bigarrenak Elgoibarren aurka.

SASKIBALOI

MU laugarren garaipenaren bila doa Valladolidera

I.B | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak Fundacion Baloncesto Valladolid taldearen aurka jokatu du domekan, 16:30ean. Aurreko jardunaldian, gogor borrokatuta, 86-74 irabazi zuten Santurtziren aurka eta kategorian mantentzeko bide onetik doaz Larreategiren mutilak. Izan ere, hirugarren garaipena lortuta, konfiantzaz joango dira arrasatearrak laugarrenaren bila.

Aloña Mendi saskibaloitza ere bikain ari da; izan ere, sailkapenean bigarren postuan daude, aurreko jardunaldian Astigarragari 69-74 irabazita. Asteburuan, berriz, atsedean izango dute; indarrak berreskuratuko dituzte.

Soraluce-Bergarak partidu gogorra izango du Labegarietan. Izan ere, Oriokoren aurka jokatu du egubakoitzean, 20:30ean, eta, haiek liderrak izanda, dena eman beharko dute sailkapenean goranzko bidea hartzeko.

Eskoriatzako emakumezko seniorrak, berriz, Ayma-Goierriren aurka lehiatuko dira egubakoitzean, 20:15ean. Aurreko jardunaldian irabazita, gogotsu itxarongo diete etxean aurkariari.

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Antzuola-Anaitasuna

Zapatua, 15:45. Estala.

Hondarribia-Aretxabaleta

Zapatua, 15:30. Ondartzeta.

Beti Gazte-Aloña Mendi

Domeka, 16:00. Mastegi.

Elgoibar-Bergara

Zapatua, 16:30. Mintxeta.

ERREGIONAL PREFERENTEA

Amaiak Bat-Mondra

Zapatua, 16:30. Deba

Aretxabaleta B-Lagun Onak

Zapatua, 16:00. Ibarra.

LEHEN ERREGIONALA

Armaganak-Bergara

Zapatua, 17:30. Eibar

Arizmendi-Urki

Domeka, 17:45. Ibarra

OHOREZKO GAZTEAK

Eibar-Aretxabaleta

Zapatua, 12:00. Unbe.

Mondra-Amaiak Bat

Zapatua, 15:30. Mojategi.

Burumendi-Bergara

Zapatua, 12:00. Mutriku.

Aloña Mendi-Urola

Domeka, 16:30. Azkoain.

EMAKUMEZKOEN ERREG.

Mondra-Bergara

Zapatua, 17:30. Mojategi.

Arizmendi-Mutriku

Zapatua, 17:45. Ibarra.

EMAKUMEZKOAK, GAZTEAK.

Lazkao-Aloña Mendi

Zapatua, 16:00. Arizti Handi.

ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA

Eskoriatza-Kukuyaga Etxebarri

Zapatua, 18:15. Manuel Muñoz.

GIPUZKOAKO LIGA

Pescados Ferreres

anaiak-Aretxabaleta

Zapatua, 18:00. Oiarzun.

BIGARREN MAILA

lurre Taberna-Mondrate

Zapatua, 16:00. Tolosa.

GAZTE MAILA

Mondrate-Laskorain

Domeka, 12:30. Iturripe.

ESKUBALOI

LEHEN NAZIONAL MAILA

Somos Eibar-Ford Mugarri

Zapatua, 16:30. Eibar.

EUSKADIKO TXAPELKETA, GIZONEZKOAK

Bergara-Gure Auzune

Zapatua, 16:30. Labegarieta.

EUSKADIKO TXAPELKETA, EMAKUMEZKOAK

Egia Arrano-Aloña Mendi

Zapatua, 16:45. Donostia.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Izarraitz Aloña Mendi-Usurbil

Domeka, 12:00. Zubikoa.

GIP. BIGARREN MAILA

Bergara-Corazonistas B

Zapatua, 18:15. Labegarieta.

SASKIBALOI

EBA MAILA

Fundacion Valladolid-MU

Domeka, 16:30. Pisuerqa.

SENIOR GIZONEZKO 2. MAILA

Natra Oñati-Atsedena

SENIOR GIZONEZKOAK

Soraluce Bergara-Orioko

Gaur, 20:30. Labegarieta.

Donosti Dolphins-MU

Zapatua, 16:00. Donostia.

EMAKUMEZKO SENIORRAK

Eskoriatza-Ayma Goierri

Gaur, 20:15. Manuel Muñoz.

ESKU PILOTA

FEDERATUAK

Antzuola, egubakoitzean:

Larruzko paletak: Olalde-Urnieta (20:30).

Eskoriatzan, zapatuan:

Infantilak: Eskoriatza-Eibar (19:00).

Bergaran, zapatuan:

2. urteko infantilak: Bergara-Aloña Mendi (19:15).

Oñatin, zapatuan:

Eskuz binaka, Gazteak:

Legazpi-Aloña Mendi (20:00).

Arrasaten, zapatuan:

Infantilak: Arrasate-Goierri (20:45).

Jubenilak, eskuz binaka:

Arrasate-Eibar (20:45).

Oñatin, domekan:

2. urteko alebinak bi partidu: (17:30).

Arrasaten, domekan:

2. urteko alebinak bi partidu: (17:30).

EUSKARAK 365 EGUN



etxean,
eskolan,
kalean,
hedabideetan


euskaltzateen
topagunea

goiena[“]

KULTURA

A. ARANBURUZABALA |

ARETXABALETA

Hilabete barru, abenduaren 28an, Inuzente Egunean, erakutsiko dute Bagarak bultzatutako laugarren tobera; Ibarra kiroldegian, 19:00etan. Herri-tarrek sortu eta protagonizatu-tako antzerki satirikoa da tobera, umore klabean, hausnarke-ta bultzatu eta herrigintzaren aldeko apustua egitea helburu duena.

Eskoriatzarrak akusatzaile

Debagoieneko hiru herri handietako trilogia itxita dator Aretxabaletara; eta Eskoriatza izango da akusazioaren protagonista. Herri moduan gutxietsi izana eta nagusitasunez jokatzeko leporatuko diete Eskoriatzakoek aretxabaletarrei. Akusazio hori horrela dela frogatzeko, arlo askotako adibideak eramango ditu Egoitz Salaberriak, Eskoriatzako fiskalak, eta argudio horiek gailentzen saiatuko da aurrez aurre izango duen Justa Zelaia, Aretxabaletako abokatua.

On Piper Hautsa epaileak, Aretxabaleta erruduna edo errugabea den erabakitzeke, Salaberria fiskalak eta Zelaia abokatuak eramandako askotariko lekukoei eta bestelako pertsonaiei arretaz entzungo die. "Protagonista nagusiak Aretxabaletako eta Eskoriatzako askotariko herritarrek izango dira, baina badaude bi herri horien arteko tirabiran sartzeraz auzartuko diren Arrasateko eta Bergarako beste hainbat pertsonaia ere, besteak beste. Baina zein pertsonaia igoko diren taularen gainera eta horien atzean dauden herritarrek zeintzuk izango diren jakiteko, abenduaren 28an Ibarra kiroldegira joateko proposamena egingo dizute, ez noa-eta, oraingoz, gehiago kon-



Bagararen laugarren toberaren entseguetako hainbat momentu. | KEPA ERRASTI

Aretxabaleta epaituko dute

Eskoriatzak Aretxabaletari herri moduan gutxiestea leporatuko dio Ibarra kiroldegian abenduaren 28an egingo duten Bagararen laugarren toberan

dira falta izango", adierazi du, barrez, Kepa Errastik, aurten-go toberako gidoiaren egileak.

Berriak eta aurrekoak, lanean

Aktore moduan parte hartu izan du Kepa Errastik; beraz, barrutik

ezagutzen zuen tobera. Oraingoan, baina, atzeko lanetan jardun du: "Hasierako batzarretan esandakoetan oinarritu naiz eztabaidarako gaiak aukeratzeko orduan. Epaiketaren egitura eta ezaugarriak zaintzeko, berriz, aurreko urteetako toberetako gidoiak izan ditut eredu", azaldu du Errastik.

Lantalde zabala izan du Errastik ondoan: aurreko toberetan ibilitakoak batzuk, eta lehenengoz toberaren abenturan sartu direnak beste batzuk. "Ibai Zangituk eta biok jardun dugu Bagarakoekin koordinazio lanetan, baina "aholkulari-taldea" izan dugu atzean. Haiek kontatu diz-

urteetako tirabirak edo txaskarri-loak".

Labetik ateratzeko, hilabete

Urri erdialdean hasi ziren lehenengo irakurketak egiten, eta taldeko eszena-entseguak egin dituzte, astean behin, azaroan. "Abenduan turboa sartuko dugu. Zaila da talde guztia batzea, baina hori da abendurako dugun plana: ahal dugun neurrian, guztiok elkarrekin antzez-lana hasieratik bukaeraraino antezatzea", gaineratu du Errastik.

Labetik ateratzear dagoen tobera ikusteko sarrerak bi aste barru jarriko dituzte salgai, zortzi eurotan, Debagoieneko herri guztietan.

TOBERAREN AURREKARIAK

2011n, Arrasaten:

Begararak akusatu zuen Arrasate, Debagoieneko epizentro izatea leporatuta. Ainhoa Agirreazaldegia izan zen fiskala eta Eneko Barberena, berriz, defentsaren abokatua. Amaia antzokian izan zen epaiketa.

Arrasate errudun, horixe izan zen epaia. Zigorra, berriz, honako hau: Bergarako herriko plazan plaka bat jartzea, esanez, Bergaran egin zutela bailarako lehenengo arropa-garbigailua.

2012an, Oñatin:

Debagoieneko herri guztiek akusatu zuten Oñati, "zilborkeria" eta inkomunikazio interesatua leporatuta. Naroa Elortza izan zen fiskala eta Egoitz Aizpuru defentsaren abokatua. Zubikoa kiroldegian izan zen epaiketa.

On Piper Hautsa epaileak erruduntzat jo zuen Oñati eta hari ere plaka bat jartzea

agindu zion. Udaletxeko arkupeetan jarri zuten, *Oñati Debagoiena da* esaldia jasotzen zuena.

2013an, Bergaran:

Aurreko biak baino lokalagoa izan zen, Bergarako auzoak izan ziren-eta akusatzaile nagusiak; azalderia eta itxurakeria leporatu zitoten. Jon Olivares izan zen iaz fiskala eta Ane Miren Zabala, berriz, defentsaren abokatua. Frontoian izan zen epaiketa.

Erruduntzat jo zuen epaileak Bergara, baina, hura bakarrik zigortu beharrean, zigor kolektiboa jarri zien Oñatirekin eta Arrasaterekin batera. Aurreko toberetan moduan, "zilborkeria" leporatu zien bergarakoei ere, horregatik, bada, honako hau ordaina: Oñatikoeekin eta Arrasatekoekin batera Elorregin zuhaitz bat landatzea, Debagoieneko epizentroa hura dela aldarrikatzeko asmoz.

ESANAK

"Eskoriatzarrak dira akusatzaile nagusiak, baina Arrasateko eta Bergarako laguntzaileak izango dituzte"

"Datorren asteko zubiaren ostean jarriko ditugu herri guztietan sarrerak salgai, zortzi eurotan"

KEPA ERRASTI | TOBERAKO KOORDINATZAILEA

Toberaz tobera

KOMUNITATEA GOIENA |
NAGORE IRAOLA | BAGARA

Azken lau urteak ez dira alferrik pasatu Bagaran, eta, oro har, Debagoieneko; asko ikusi, landu eta bizi ahal izan dugu denbora tarte honetan. Momentu gaziagoak, momentu gozoagoak... lerro hauetan deskribatzen hasiz gero motz geratuko ginatke, ziur aski. Baina momentu gozo, sortzaile, herritar, jostagarri eta umoretsuen artean ezin Debagoieneko tobera aipatu gabe utzi.

2011 ezker toberaz tobera, Arrasaten, Oñatin eta Bergaran, eskualdeko herritar umoretsu eta ausarten lankidetzarekin aurretik gurean oso ezaguna ez zen bailarako epaiketa-antzerki satirikoanari, debagoiendarron agendetan, modu xumean bada ere, lekutxo egin diogu. Arrasateren "debagoienazentrismoa", Oñatiren isolatze interesatua eta Bergararen azalderia izan dira hizpide azken hiru urteetako Inuzente Egunean gure Audientzia Debagoiendarrean. Herritarrek sortua eta antzetzua, kultur ekimen komunitario euskaldun, anitz eta parte hartzailea izatea genuen jomuga "zirku" honekin hasi ginenean. Eta iseka, broma eta algara sanoekin betetako eszenatoki eta eserlekuak ez dira falta izan. Aurtengoan Aretxabaletan ospatuko da Debagoieneko laugarren tobera, ez dakigu zein izango den epaiketaren epaia, baina badakigu beste behin ere herritarrek herritarrei irribarreak marraztuko dizkietela aurpegian.



Nagore Iraola. | BAGARA



Gaur egungo Txinpartako kideak: Joana Lasa, Iñaki Lasa eta Mikel Lasa. | TXINPARTA ERROMERIA TALDEA

25 urteren ostean instrumentuak gordeko ditu Txinparta taldeak, betiko

- ▶ Iñaki Lasa erretiratzeak eragin du taldeak erromerien mundua uztea
- ▶ Agur esateko kontzertua eskainiko dute Oñatiko gaztelekuan

ANDER LARRAÑAGA | ARRASATE

25 urte daramatza Txinparta erromeria taldeak Debagoieneko herri eta auzoetako jaiak eta ospakizunak giroten. Orain, agur esateko ordua iritsi zaie, mende laurden euren instrumentuak astintzen ibili ostean: Iñaki Lasaren erretiroak taldearen amaiera ekarri du.

Ibilbide luzea

Esan bezala, duela 25 urte landatu zuen hazia erromeria taldeak. Arantzazu Ruiz de Azua aramaiorra eta Mikel Lasa arrasatearra euren akordeoien laguntzaz erromeriak egiten hasi ziren. Bate-

ria-jole baten beharrez, arrasatearren osaba batu zitzairen: Iñaki Lasa.

Apurka-apurka taldea errotzen eta garatzen joan zen. Hirukotea Debagoieneko txoko guztietako jendea alaitzen ibili zen bere abestien doinuekin. "Jaietako suaren garra pizten zekitel" esanez, Joseba Lasa lehengusuak Txinparta izenarekin bataiatu zuen taldea.

Familiarteko doinuak

Lasakoekin jarraituz, ez zen bertan gelditu euren dinastia, taldeari dagokionez; izan ere, urte batzuk pasata, Arantzazuk taldea

utzi behar eta Joana Lasak (Mikelen arreba) hartu zuen haren tokia, soinu txikiarekin. Gaur egun arte, haiek izan dira, hain zuzen ere, taldeko kideak; dena familiartean geratu da.

Elkartzeko berri honen momentutik aurrera, ezkontza, kinto-ospakizun eta herrietako jai askotan entzun zitezkeen haien doinuak. Hala ere, ez zituzten euren ikuskizunak Debagoienera mugatu: Araban, Bizkaian eta Iparraldean egon dira, baita Italian eta Alemanian ere.

Txinpartakoek azaldu dutenez, euskal abestiak eta euskal kultura transmititzearekin batera,

taula gainean sentitzen duten grina, alaitasuna eta gozamena helarazi gura izan diete ikusleei euren ikuskizunetan.

Agurtzeko kontzertua

Esandakoak esanda, instrumentuak gordeko ditu Txinpartak, baina ate nagusitik irtenda esango die agur jarraitzaileei azken erromeria bat eskainita. Kontzertu hori abenduaren 6an izango da, 20:00etan hasita, Oñatiko gaztelekuan. Euren ibilbidean zehar ondoan izan dituzten familiarteko, lagun eta jarraitzaile guztiei kontzerturako gonbidapena egin gura diete taldekoek.

Ain_1 taldearen 'Badoa, badirau' diskoak argia ikusiko du gaur

A. L. | ARRASATE

Bi urteko lanaren ostean, Ain_1 talde arrasatearrak bigarren diskoa kaleratuko du gaur: *Badoa, badirau* da lanaren izena eta horren aurkezpena ere gaur izango da, hain juxtu, Arrasateko gaztetxean, 22:30ean. Sarrera debaldekoa izango da.

Azpeitiko Elekrika estudioan grabatu dute hamar abesti batzen dituen diskoa. Abestien gaiak askotarikoak direla esan daiteke; esate baterako, egunerokotasuneko kontuak eta maitasuna jorratzen dira.

Orain arte, bigarren lan horren pilula txiki bi egon dira entzun-

gai taldearen Bandcamp webgunean (Ain1.bandcamp.com): hain zuzen ere, *Sentitze berdinetik* eta *Biziraun* dira kantuen izenak.

Kontzertu bereziak

Gaurko kontzertuaren xehetasunak argitu ezin dituztela azaldu dute Ain_1ekoek, baina dantza, ikus-entzunezkoak eta poesia uztartuko dituztela esan dute. Euren kontzertuetan interakzioak ere protagonismoa izaten duela adierazi du Amaia Pavon taldekideak: "Zer sartuko zenuke musika kaxa batean? Galdera hori botatzen genion publikoari eta jasotako erantzunak irakurtzen

genituen kontzertu amaieran".

Gaurko aurkezpena gerturatzeko diskoko eskuratzeko aukera izango dute. Diskoak, pinak eta gaztetxean egindako poltsak egongo dira salgai bertan.

Azkenik, abendua bertan denez, aipatzekoa da Durangoko Azokan Musikazuzenean-en egongo dela arrasatearren lana eta abenduaren 5ean, arratsaldean, kontzertua eskainiko dutela.

Hardcorera bihar

Ain_1 taldearen eritmo lasaigoak alde batera utzita, bihar, hardcore doinuek bustiko dute gaztetxea. 22:00etan hasita, Realidad talde arrasatearra eta Hardflip bergararrak egongo dira taula gainean euren instrumentuak astintzen. Sarrerak hiru euroren truke egongo dira salgai.

Txapa Irratiaren 30 urteek etzi flamenkoa ekarriko dute

A. L. | BERGARA

Duela 30 urte sortu zen Bergaran Txapa Irrati librea, eta urteurrena ospatzeko urria ezker daramate askotariko jarduerak eta kontzertuak antolatzen. Azken domekan izango da, hilaren 30ean: Aitor Escobarren *Origen* flamenko ikuskizuna egongo da, 19:00etan, karzela zaharrean.

Escobarren gitarra ez da izango protagonista bakarra; kaxan *El Ratón*, txaloeekin *La Cuki*, Angel Lopezen ahotsa eta Rafael Hernandezen koroak izango ditu alboan.

Escobarrek berak konposatutako piezak izango dira entzungai. Esan beharra dago bere lan propioak direla, baina musikariak edandako influentzia musikalekin egindako collage bat izango dela domekakoa. Hortik dator, hain zuzen ere, ikuskizunaren *Origen* izena, jatorriko musikatik eratorritakoa izango baita. "Flamenko basati" bezala deskribatzen dute antolakuntzatik, gitarra, kaxa eta ahotsa baino ez direlako: flamenko purua izango da.

Sarrerak eskuratzeko

Emanaldirako sarrerak hainbat lekutan daude aurrez eskuragarri, hiru euroren truke: batetik, Bergaran, Candem Town dantza akademian, eta bestetik, Arrasaten, Lazkano musika-dendan eta Equus tabernan. Domekan bertan leihatilari hartzeko aukera ere egongo da, lau eurotan.

Horretaz gain, kontzertua FMko 97,2 frekuentziaren bitartez ere entzun ahal izango da, edota Txapairratia.org webgunean, zuzeneko streaming-aren bitartez.

Gazte eta helduendako ipuin kontaketa bihar

A. L. | OÑATI

Arantzazu Gaur Fundazioak eta Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak indarrak batuta, Patxi Zubizarretaren *Atxiki sekretuak* ipuinaren kontaketa antolatu dute: bihar, hilak 29, izango da ipuin kontaketa hori eta Amaia Zinkuregi izango da ipuin-kontalaria. Elena Odriozola artistaren irudiekin dago ilustratua ipuina.

Bi emanaldi

Bi adin-tarteri zuzendutako bi emanaldi egingo dira: lehenengo 16:30ean izango da eta DBH-

ko ikasleei zuzenduta dago; bigarren saioa, berriz, helduei zuzendutakoa izango da. Saio hori 18:00etan izango da. Bi emankizunak Gandiaga Topagunean izango dira, ipuin kontaketa propio prestatutako lekuetan.

Sarrerak bi (gaztetxoendako) eta hiru (helduendako) euroren truke daude salgai. Hori horrela, azpimarratzekoa da izena eman beharra dagoela: 943-71 65 75 telefono zenbakira deitu edo mezua bidali info@arantzazugandiaga.com helbide elektronikora.



Gosariak proiektuaren aurkezpen kutxa, diskoa, liburua eta alde grafikoak biltzen dituenak. | GOSARIAK

Gogoaren gosea aseko duen artisten bidegurutzeara

Durangoko Ahotsenean izango da lehen zuzeneko emanaldia, abenduaren 6an

M.T. | ARRASATE

Musikak, literaturak, eskulturak eta pinturak bat egiten duten elkargunea da *Gosariak*, Gosereren, Joseba Sarrionandiaren, Iñigo Arregiren eta Juan Luis Goikolearen azken proiektua. Nork bere diziplina artistikotik egindako ekarpenek borobildu dute

proiektua, bai esanahi aldetik, baita estetikoki ere. Goseko Ines Osinagak eta Iñigo Arregi eskultoreak bat datoz lankidetzara "oso ona eta aberasgarria" izan dela baieztatzerakoan. "Azken emaitza da horren testigu", dio Osinagak. Gainera, artistek elkarrengandik ikasteko tartea ere izan dute

bidean. Esaterako, Arregik aipatu du bakarrik lan egin ohi dela, eta oso interesgarria izan dela taldean aritzea, sormen prozesuari beste ikuspegi batetik begiratzeko aukera eman diolako. Osinagaren ustez, gainera, taldearen aniztasunak aberastu egin du proiektua. "Desberdinen arte-

ko elkarlana beti izaten da zaila, baina oso polita ere bai", dio.

Lankidetzara horretan, azken produktura iristeko bide luzea egin dute bai artistek, baita abestiek ere. "Abesti batzuetan hitzetatik abiatu gara eta musika jarri diegu; beste batzuetan, berriz, musika ideia batetik abiatu gara eta Josebak ideia horri hitz batzuk proposatu dizkio... denetik egon da", azaldu du Osinagak. Era berean, Arregik eta Goikoleak abestietatik abiatuta gin dute lan alde grafikoan, batak zuri-beltzeko formak landuz eta besteak koloretako ilustrazioak marraztuz. Era horretan egin dute bai kutxaren diseinua, baita barruko liburuxka ere.

Zuzeneko zainduak

Abenduaren 6an Durangoko Azokako Ahotsenean eskainiko dute lehen zuzenekoak, 13:40an. Osinagaren esanetan, *Gosariak* zuzenekoan eramatea Gosereren arduraz izango da, batez ere, baina ez dituzte ohiko zuzenekoak eskainiko. Kontzertu zaindu, epel eta goxoagoak izango direla azaldu du; dantzagarriak bai, baina desberdinak. Horregatik, ohi baino gutxiago eskainiko dituzte, baina ziurtatu du zaleek izango dutela zuzenekoek gozatzeko aukera.

Alde grafikoak izango du presentzia zuzenekoetan, Gosereren kontzertuetan ohikoa den moduan, baina, Arregik azaldu duenez, oraindik ez dute erabat zehaztu euren lana nola erakutsiko duten. Izan ere, aitortu du "oso zaila"

dela jendeari lan grafikoak behar bezala helaraztea.

Durangoko Azokaren ostean, *Gosariak* zuzeneko ikusteko hurrengo aukera urtarrilean izango da, orduan ekingo diete-eta zuzeneko emanaldiei.

Zaleen bidegurutzeara

Askotariko sortzaileak, askotariko diziplinak eta askotariko belarrialdiak bildu dituen sormen prozesua izanik, proiektua zaleen bidegurutzeara bihurtuko da, gaitzetzeko artisten lanak ezagutzeko bidea eskainiko duelako. "Guretzat horrela izan da, eta espero dugu hartzaileentzat ere hala izatea", adierazi du Osinagak.

Emaitzarekin "pozik"

Goiz da oraindik balorazioekin hasteko, baina egindako lanarekin, behintzat, "pozik" daude artistak. "Oso gustura gaude, eta hori da oraingoz egin dezakegun balorazio onena", esan du Osinagak, eta Arregi ere bat dator abeslariarekin "produktu indartsu eta aberatsa sortu dugu", dio.

Jasotako lehen kritikak oso onak izan direla ere esan du Arregik, baina harrera neurtzeko Durangoko azokara arte itxaron beharko dute, horixe izaten baita zaleen termometroa.

Gosariak, beraz, ez da Gosereren seigarren diskoa. Disko bat da, bai, baina baita liburu bat ere. Badu eskulturatik eta margolaritza baten bidez, baina benetan zer den jakiteko gose denak gosaltzera joan beharko du, ezinbestean.

Ruper Ordorikaren berriena, "librea" eta "nortasun handikoa"

Atzo aurkeztu zuen oñatiarrak 'Lurrean etzanda' diskoa, Bilboko Elkar aretoan

M.T. | OÑATI

"Toki beretik abiatu arren, esparru desberdinetara iristea izaten da nahia, eta diskoak badiu bere berritasunak", dio Ruper Ordorikak. Atzo Bilboko Elkar aretoan aurkeztutako lan berriaz ari da, noski, oñatiarra. Izan ere, Ordorikak aldaketa nahi zuen oraingoan, beste giro batean sartu eta "harantzago" joatea. Estudioan lagun izan dituen musikariaren ekarpenari esker lortu du hori, bere ustez.

Fitxa teknikoak

Nazioarteko musikariarekin grabatu du Ordorikak *Lurrean etzanda*. Zazpi diskotan bidelagun izan duen AEBetako Kenny Wolles bateria-jotzailea izan du ondoan, batetik. Londrestik, berriz, Simon Edwards baxu eta kontrabaxu-jotzailea eta Leo Abrahams gitarrista etorri dira Elkar estudioa. Teklatu soinuak New Yorketik datoz, hara egindako bidaia batean Jamie Saft musikariarekin grabatu baitzi-

tuen. Ahotsa, ohi bezala, anaierenean landu du, Azkaraten. "Oso ondo pasatu dut diskoa egiten" aitortu du oñatiarrak.

Abestiak, berriz, duela urtebete kaleratutako *Azukre koxkorak* diskoa jendaurrean aurkezten ziharduela landutakoak dira. Musikariak aitortu du azken hamar diskoetan kantuak grabaketaren aurretik landu eta fintzeari garrantzi handia eman diola, gustuko duen moduan, dena batera grabatu eta unea harrapatzeko. "Momentuko indarra harrapatzen saiatzen naiz, eta nire kantuek eskertzen dute", dio.

'Lurrean etzanda'

"Gutziz bestelako disko bat dela esango nuke", azaldu du Ordorikak. Bere esanetan, gehiago sakondu du oraingoan, nahi dituen kanta motak eginez, eta horregatik, grabaketan "gehiago arriskatzeko gauza" izan da. Emaitza, disko "librea", eta "nortasun handikoa".

John Andueza | Idazlea

"Jendeari gustatzen bazaio, ziurrenik jarraituko dut nobela beltzak idazten"

John Anduezaren lehen nobela beltza kalean da: 'Prime time', Bilbon girotutako detektibe istorioa

M.T. | ARRASATE

Gazteentzako liburuetatik urrunduz, bi detektiberen istorioarekin dator kiguru oraingoan John Andueza. Arrasatearrak bere lehen nobela beltza aurkeztu eta kaleratu du aste honetan: *Prime time*. **Aspalditik prest zenuen liburua; zergatik kaleratu duzu orain?**

Egia esan, gogoan nuen behingoz bukatuta ikusi, kaleratu eta, batez ere, esku artean izateko. Izan ere, duela urtebete-edo bukatu nuen *Prime time* idazten, baina argitaletxearen erabakia izan da orain arte itxarotea, Durangoko Azokaren ataria ikusi dute egokien, eta astelehenean bertan izan nuen liburua lehen aldiz esku artean. **Kritikarik jaso duzu dagoeneko?** Ba, egia esan ez, oraindik labetik atera berria da liburua, eta ingurukoek eta argitaletzeko jendeak zirriborroa irakurri duten arren, irakurleek oraindik ez dute astirik izan. Hala ere, badut jendearen iritzia jasotzeko gogoia eta jakin-mina.



John Andueza. | GOIENA

Ez da zure lehen liburua, baina genero honetako lehena bai.

Hala da, nire lehen nobela beltza da, orain arte egindako lanetik oso bestelakoa. Orain arte oso zentratuta egon izan naiz gazteentzako idazten, eta hori abentura bat da. Lan hau, ordea, oso desberdina da, konplikatua, landuagoa eta egiteko nekezagoa. Baina, edonola ere, probatzeko gogoia nuen.

Hortaz, aurrez egindakotik erabat desberdina dela esango zenuke?

Bai. Gainera, intentzioa hori zen hasieratik. Beste kontu bat da jendeak gustuko izango duen edo ez. Gomendatuko nuke aurreiritzirik gabe hartu eta, gustatuz gero, bukaeraino irakurtzeko, azken finean horixe baita idazle batentzat gauzarik politena.

Zerk egiten du liburua erakargarri? Batetik, estiloa: freskoa, arina eta eraginkorra da. Jendeari irakurtzea errazteko eta jendearengana gerturatzeko helburuarekin dago idatzita liburua. Bestetik, trama indartsua du. Nobela beltz bateko trama harrapatu egin behar zaitu, bestela ez du zentzurik. Esango nuke *Prime time*-n badagoela trama bat azkeneko orriraino harrapatzen zaituena, eta azken orrian bada azken zaplazteko bat. **Durangora begira, ze asmo?**

Saiatuko naiz lanari oihartzuna ematen, jendearekin eta irakurleekin harreman zuzena bilatzen. Hori ere liburuaren prozesuaren parte da, promozioa eta irakurlearengana iristea, bestela alferrik ari gara. Ea harrera ona duen. **Hurrengo lana gazteentzat ala helduentzat izango da?**

Aldez aurretik ez ditut gauzak oso argi izaten. Gazteentzako idazten jarraituko dudala argi daukat, ondo pasatzen dudalako eta badakidalako funtzionatzen duela. Orain hartutako bidearekin ez dakit asmatu dudana. Jendeari gustatzen bazaio, ziurrenik animatuko naiz jarraitzera.

Jolastu eta irabazi

Gorbeia Erruletan

3.500€ eta **2.000**
erosketa-txarteletan opari

centrocomercialgorbeia.com

Parte hartu nahi izanez gero, Gorbeia Merkataritza Guneko edozein establezimendutan erosketa bat egin behar da.

Eskaintza hau indarrean izango da 2014ko azaroaren 28tik abenduaren 28ra arte


GORBEIA
www.centrocomercialgorbeia.com

Oinarri guztiak
www.centrocomercialgorbeia.com webgunean

ASTEAGOIENAN



JAGOBA DOMINGO

Toti Martinez de Lezearen elkarrizketa

Enda Lur liburua argitaratu du Toti Martinez de Lezea idazleak, eta hori aurkezten izango da gaur, egubakoitza, Larraitz Zeberio aurkezten duen *Kulturriketak* saioan. Erdi Aro hasierako euskaldun zaharrek zituzten sinismentan oinarritutakoa da lana. **'Kulturriketak'** Egubakoitza, 22:00



IMANOL GALLEGU

Arrasateko osoko bilkura ikusgai

Martitzenean egingo da hileroko osoko bilkura Arrasaten, eta eguaztenean, abenduak 3, oso-osorik ikusi ahal izango da Goiena telebistaren bitartez. Modu horretara, herritarrek informazioa zuzenean jasotzeko aukera izango dute.

'Osoko bilkura' Eguaztena, 22:00

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 28

12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Amaia DJ
13:00 Kontzertua
13:55 Zorion Agurrak
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Amaia DJ
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Gipuzkoa pedalka
17:30 Ertzak
18:10 Ikusmira
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Ur eta lur
19:30 Amaia DJ
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Kulturriketak
22:30 Osoko bilkura
23:30 Debagoiena zuzenean
00:00 Berriak
00:30 Amaia DJ
01:00 Debagoiena zuzenean
01:30 Berriak

ZAPATUA, 29

10:00 Amaia DJ
10:30 Sasoi betean
11:00 Debagoiena zuzenean
11:55 Astea iruditan
12:00 Gipuzkoa pedalka
13:00 Mahaingurua: Enpresarean
13:45 Ikusmira
13:55 Zorion Agurrak
14:00 Amaia DJ
14:30 Kulturriketak
15:00 Debagoiena zuzenean
15:55 Astea iruditan
16:00 Osoko bilkura
18:40 Ikusmira
18:40 Ikusmira
19:00 Debagoiena zuzenean
19:55 Astea iruditan
20:00 Kulturriketak
20:30 Amaia DJ
21:00 Gipuzkoa pedalka
21:30 Kulturriketak
22:00 Debagoiena zuzenean
22:55 Astea iruditan
23:00 Kontzertua
00:50 Gipuzkoa pedalka
01:20 Amaia DJ

DOMEKA, 30

10:00 Debagoiena zuzenean
10:55 Astea iruditan
11:00 Gipuzkoa pedalka
11:30 Amaia DJ
12:00 Osoko bilkura
13:40 Debagoiena zuzenean
14:25 Astea iruditan
14:30 Kulturriketak
15:30 Amaia DJ
16:00 Osoko bilkura
17:00 Debagoiena zuzenean
17:55 Astea iruditan
18:00 Gipuzkoa pedalka
18:30 Kulturriketak
19:00 Amaia DJ
19:30 Bertso saioa
20:00 Idemtitateak
20:35 Debagoiena zuzenean
21:25 Astea iruditan
21:30 Mahaingurua:
22:20 Amaia DJ
22:45 Debagoiena zuzenean
23:45 Astea iruditan
00:00 Kulturriketak

ASTELEHENA, 1

12:00 Debagoiena zuzenean
13:00 Sasoi betean
13:25 Zorion Agurrak
13:30 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Kulturriketak
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Osoko bilkura
18:00 Bertso saioa
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Amaia DJ
19:30 Kulturriketak
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Harmailatik
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Kulturriketak
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak

MARTITZENA, 2

12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Harmailatik
13:00 Sasoi betean
13:25 Zorion Agurrak
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Harmailatik
15:30 Onein
15:55 Zorion Agurrak
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Kontzertua
18:15 Ikusmira
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Idemtitateak
19:30 Harmailatik
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Kulturriketak
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Harmailatik
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak

EGUAZTENA, 3

12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Kontzertua
13:55 Zorion Agurrak
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Sasoi betean
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Harmailatik
17:30 Kontzertua
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Harmailatik
19:30 Idemtitateak
19:55 Zorion Agurrak
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Gipuzkoa pedalka
22:30 Osoko bilkura
23:30 Berriak
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak

EGUENA, 4

12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Gipuzkoa pedalka
13:00 Idemtitateak
13:30 Ur eta lur
13:55 Zorion Agurrak
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Bertso saioa
15:25 Zorion Agurrak
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 BERRIAK
17:00 Osoko bilkura
18:00 Kulturriketak
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Sasoi betean
19:30 Gipuzkoa pedalka
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Amaia DJ
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Gipuzkoa pedalka
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak

ARRASATE IRRATIA

'Todo saldrá bien' liburua zozketatuko da Arrasate Irratian

Marian Porcelek idatzitako *Todo saldrá bien* liburua zozketatuko da datorren asteke egubakoitzeko zozketan, *Igo autobusera!* irratisaioan. Liburua eskuratzeko 943-25 05 05 telefonora deitu beharko da, edo, bestela, irratia@goiena.com helbidera idatzi beharko da. Zorte on!

Asteko gainbegiratu zapatu eta domekan, 10:00etatik aurrera

Asteazkenean Arrasate Irratian egindako elkarrizketak entzun ahal izango dira asteburuan 10:00etan. Besteak beste, entzun ahal izango da Bergarako Elikagaien Bankuko Jose Antonio Agirrebeñari egindako elkarrizketa. Asteburuan egingo den bilketari buruzkoak kontatuko ditu.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE			
Egubakoitza, 28	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz 17	943 79 79 99
Zapatua, 29	FERNANDEZ	Maisu Aranbarri kalea 1	943 79 22 26
Domeka, 30	IRIZAR	Erguin 11	943 79 12 39
Astelehena, 1	AMEZUA	Sta. Marina 32	943 79 09 74
Martitzena, 2	ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Eguaztena, 3	RUIZ	Nafarroa Etorb., 1	943 79 14 09
Eguena, 4	ETXEBERRIA	Zarugalde kalea, 38	943 77 16 30
BERGARA			
Egubakoitza, 28	MOZOS	Iparragirre 2	943 76 12 15
Zapatua, 29	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Domeka, 30	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Astelehena, 1	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Martitzena, 2	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Eguaztena, 3	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Eguena, 4	MOZOS	Iparragirre 2	943 76 12 15
OÑATI			
Egubakoitza, 28	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Zapatua, 29	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Domeka, 30	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Astelehena, 1	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Martitzena, 2	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Eguaztena, 3	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguena, 4	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22

Farmazien eskuko telefonoetarako 2014 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altria TICek kudeatuta (www.altria.es).

EGURALDIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA



Max. 16°
Min. 10°

ZAPATUA, 29

Euria ia etengabe egingo du eta egunaren amaierara arte ez du atertzen hasiko. Eguna laino-pear igaroko da.




Max. 16°
Min. 10°

DOMEKA, 30

Zapatuan egingo duenaren bideetik jarraituko du domekan eguraldiak. Temperatura mantendu egingo da eta euria egingo du.

EUSKAL HERRIA



Giro euritsuena Nafarroan egingo du. Haizea ekialdetik eta iparraldetik sartuko da asteburuan.

GAZTE INFORMAZIOA

LANA

Erdi mailako teknikaria. Eibarko Udala. Administrazio bereziko maila ertaineko teknikaria behar da. Baldintzak: gizarte laguntzaile, gizarte langintzako diploma edo gradua, euskara: 3. HE. Epea: abenduak 4.

BEKAK

Ikerketa. Eusko Jaurlaritzaren zentroetan egonaldiak egiteko, bi urtez. Epea: abenduak 15.

Egonaldiak Iberoamerikar Unibertsitateetan. Santander Unibertsitatearen Fundazioa. Herraldeak: Argentina, Bolivia, Brasil, Txile, Kolonia, Costa Rica, Kuba, Ekuador, El Salvador, Guatemala, Honduras, Mexiko, Nikaragua, Panama, Paraguai, Peru, Puerto Rico, Dominikar Errepublika, Uruguai,

Venezuela eta Portugal. Baldintzak: Espainiako unibertsitateetako irakasleak, ikertzaileak eta doktoregoko ikasleak. Azken eguna da: martxoak 2.

LEHIAKETAK

Argazkiak. Abenduak 1 muxu 1. Arrasateko Sexologia Zerbitzua. Gaia: muxu bat. Saria zozketan, lau kategoriaz ezberdin eta sari ezberdinak. Azken eguna da: abenduak 5.

Mugalariak. Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburua Fundazioa. Arte eszenikoetako (antzerkia, dantza, performance, musika edota diziplina anitzeko) bost proiektu hautatu eta lagunduko ditu. Proiektu hauen sortze-prozesua 2014ko abenduaren eta 2015eko azaroaren bitartean izan behar du. Azken eguna da: abenduak 10.

INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:


Arrasateko Gazte Bulegoa: Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea: Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net





Jatsu eta Marta

Jatsu eta Marta zapatuan, azaroaren 29an, Oñatiko Murgia auzoko Asentzio ermitan ezkonduko dira. "Egun zoragarria igaroko dugu familia eta lagun artean. Zorionak eta musu handi bat, guztion partetik, eta ondo ibili Argentinan".



Mikel eta Marife

Mikel Garai eta Marife San Vicente 1989ko abenduaren 2an ezkondu ziren. "Zorionak, bikote! Jarrai ezazue orain arte bezain zoriontsu! Musu handi bat, familia guztiaren partetik".



Txomin eta Felisa

Bergarako Txomin Letek eta Felisa Txintxurretak ezkontzako 60. urteurrena ospatu zuten azaroaren 24an. Familiarekin batera ospatu zituzten diamantezko ezteiak. Zorionak, bikote, familia osoaren partetik!

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.

Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.

Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Otorora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

BERGARA Jardun elkartea: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

ELGETA Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

HILDAKOAK

Jose Angel Arantzeta Garaizabal. Elgetan, azaroaren 14an. 59 urte.

Joaquin Ortiz Rodriguez. Bergaran, azaroaren 20an. 71 urte.

M. Concepcion Elortza Moiu. Oñatin, azaroaren 21ean. 63 urte.

Jose Vazquez Chaz. Arrasaten, azaroaren 21ean. 91 urte.

Paco Arriaran Larrañaga. Oñatin, azaroaren 25ean. 71 urte.

Francisco Aparicio Arias. Arrasaten, azaroaren 26an. 85 urte.

OROILORE

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek
eskatzen duen errespetu,
arreta eta ardura handienarekin,
nire asmoa da familiari ahalik eta
traturik beroena eta hurbilekoena ematea*

*Heriotza-asegurua baduzu:
Ez onartu besterik gabe
zure aseguru-konpainiak
esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:*

**NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua
AUKERA DEZAKEZULA BETI.**



maribi 617 44 21 55
BERGARA

ESKER ONA

Paco Arriaran Larrañaga



2014ko azaroaren 25ean hil zen, 71 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno
eskerrik asko, sendikoen izenean.

Oñatin, 2014ko azaroaren 28an.

URTEURRENA

Luis Mari Ugarte Aldanondo



Oñatin hil zen 2013ko azaroaren 27an, 56 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza Oñatiko Mikel Deunaren eliza nagusian izango da
zapatuan, azaroaren 29an, 19:00etan.

*Umoretsua eta umila zinen
guztien gainerik,
barondatean ere
ez zeneukan faltik*

*nahiz eta urrun joan
mundu honetatik
ez dezu aldegingo
gure bihotzetik.*

**Aurrez esker on bertaraten zareten guztioi.
Oñatin, 2014ko azaroaren 27an.**

URTEURRENA

Migel Aranzabal Unzetabarrenetxea



2013ko azaroaren 21ean hil zen, 91 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da,
azaroaren 30ean, 12:00etan,
Elgetako Andre Mari Jasokundearen parrokian.

Elizkizunetara joango zareteno eskerrik asko, sendikoen izenean.
Elgetan, 2014ko azaroaren 28an.

MUSIKA

ARRASATE Ain_1 taldea

Badoa, badirau izena dauka Arrasateko taldearen disko berriak. Elekrika estudioetan Ander Barruso soinu teknikariaren eskutik grabatua, taldearen iraupen luzeko bigarren emaitza da honako hau.

Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.

OÑATI D-Pintxos, Zurraia eta Beneh taldeak

Diario Fatxo herri ekimenaren dako sostengu ekonomiko lortzeko kontzertua. Sarrerak bi eurotan salduko dituzte.

Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 21:30ean.

OÑATI Extremadurako Gabon kanten jaialdia

Euskadiko Extremadurako taldeen federazioaren eta Legazpiko La Bellota Extremadurako kultur zentroaren eskutik.

Bihar, zapatua, Santa Anan, 17:30ean.

OÑATI DJ Ebil

Gaztetxoendako musika emanaldia egingo du.

Bihar, zapatua, gaztelekuan, 18:00etan.

OÑATI Movember festa

Oñatiko Movember taldearen eskutik Twin Melody eta The Kites taldeen kontzertuak Ongi tabernan (19:30). Ostean, bibotendun argazki erraldoia (20:30) eta Nerea Rodriguez DJaren emanaldia. Horiek ere Ongi tabernan.

Bihar, zapatua, Ongi tabernan.

ARRASATE Realidad eta Hardflip taldeak

Realidad arrasatearrek *crust* ukituak dituen hardcore musika egiten dute. Aldiz, Hardflip taldeak hardcore-punk musika egiten du. 2008an sortu zuten taldea Osintxu eta Antzolako kideek.

Sarrerak, hiru euro.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:00etan.

BERGARA Aitor Escobar

Txapa Irratiaren 30. urteurrena ospatzeko, *Origen flamenco* ikuskizuna egingo du Aitor Escobarrek. Sarrerak salgai Bergarako Pol-Pol eta Candem Town tabernetan eta Arrasateko Lazkano musika-dendan eta Equis tabernan.

Etzi, domeka, gaztetxean, 19:00etan.

ANTZERKIA

ESKORIATZA Antzerki tailerra

Antzerkia eta aurpegia margotu delako tailerra egingo dute. Bana-ka zein taldeka sormena landuz antzerki tailerra egingo dute.

Gaur, egubakoitza, ludotekan, 17:30ean.

BERGARA 'Erdaldun berrien kluba'

AEDk ekoiztutako antzezlan eskainiko du Olatz Pagaldai eskoriatzarrak. Erdaldun berri batek egin beharreko terapiarekin barre egin eta hausnartzeko antzezlan proposa.

Gaur, egubakoitza, Zabalotegin, 22:00etan.

ANTZUOLA 'Ondoko hilobiko tipoa'

Iker Galartza eta Aitziber Garmendia protagonista dituen antzezlan. Begoña Bilbao zuzendariak

NON-ZER

Emaguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.

Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

AZAROA 28
ABENDUA 4



ARRASATE 'La rosa del azafrán'

Aurreko aste bukaerako arrakastaren ostean, azken bi emanaldiak egingo ditu Izaskun Murgia Lirika Elkarteak. Felix Lope de Vegaren *El*

perro del Hortelano-ren adaptazio librea egin dute. Gaur, egubakoitza (20:00), eta bihar, zapatua (19:30) egingo dituzte azken bi emanaldiak. Aipatutako egun eta orduetan, Amaia antzokian.

maila soziokultural ezberdineko bi lagun aurrez aurre ipintzen ditu antzezlanen: Aiora eta Pablo. Bihar, zapatua, Torresoroan, 22:00etan.

ANTZUOLA 'Galtzgorriei to, Inaxito!'

Trikuharri taldeak 5-12 urte artekoendako bertso-antzerkia egingo du. Inaxito eta Margarita lamina- ren istorioak kontatuko dituzte. Euskal mitologiaren pertsonaien errepasoa egingo dute Xabier Sukia, Gorka Tolosa eta Ibai Esoainek.

Etzi, domeka, Torresoroan, 18:00etan.

ELGETA 'Novedades en Villa Titiritaina'

Oñatiko Ikusi Makusi erretiratu- en antzerki taldearen azken lanarekin hasiko dute kultura astea.

Abenduaren 3an, Espaloian, 17:30ean.

IKUSKIZUNA

ESKORIATZA 'Series, pelis, documentales y cositas de animales'

Ruben Torresek bakarriketa egingo du, doan.

Gaur, egubakoitza, Huhezín, 22:30ean.

ERAKUSKETAK

ARETXABAETA 'Euskal Herriko hilarriak'

Bihar, zapatua, da erakusketa ikusteko azken eguna. Gaur, egubakoitza, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara eta bihar, zapatua, 11:00etatik 13:00etara. Euskal Herriko hilarriak ezagutzeko aukera.

Bihar, zapatua arte, Arkupen.

OÑATI Mendi astea

Bihar da Oñatiko XI. Mendia eta Kirola argazki lehiaketara aurkeztutako lanik onenak ikusteko azken eguna.

Bihar arte, kultura etxean, 18:30ean.

ARRASATE Indarkeria matxista salatze argazki erakusketa

Azaroaren 25aren harira Emakume Txokoak indarkeria matxista salatze argazki erakusketa egin du. Aurrez deitutako lehiaketara 62 argazki aurkeztu zituzten eta epaimahaia aukeratutako argazkiekin erakusketa ipini dute, urtarrilaren 30era arte. Urtarrilaren 30era arte, Emakume Txokoan.

UMEAK

ELGETA Ipuin kontaketa eta sormen tailerra umeendako

6 urtetik gorako neska-mutikoendako, euskaraz eta doan. Apika taldearekin.

Gaur, egubakoitza, liburutegian, 17:00etan.

BERGARA 'Printzesak kontu kontari' kontaketa

Umeendako ipuin emanaldia Maider Galatzaren eskutik. Bi saio egingo ditu: 18:00etan eta 18:30ean. Gaur, egubakoitza, Errotalden, 18:00etan.

OÑATI Ipuin kontaketa

Atxiki sekretua delako ipuin kontaketa egingo du Amaia Zinku-

negik Arantzazun, *Sorginaren eskuliburua* ipuina oinarri hartuta. Bi saio egingo ditu: 16:30ean DBHkoendako eta 18:00etan helduendako.

Bihar, zapatua, Arantzazun, 16:30ean.

ELGETA II. marrazki lehiaketa

5-16 urte bitarteko gazteendako. Udal Liburutegiak antolatuta. Gaia: *Nork irakurtzen dit?*

Abenduaren 1ean, liburutegian, 10:00etan.

BERTSOLARITZA

OÑATI Bertso Txapelketa Nagusia

Maider Arregik, Iñaki Olalde, Andoni Goitiak, Ander Lizarralde, Egoitz Aizpuruk eta Urko Egañak parte hartuko dute lehen kanporaketan.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 18:00etan.

OSPAKIZUNA

BERGARA Erreileno eta tostoien aurkezpena eta dastatzea

Debagoieneko XVIII. jardunaldi gastronomikoetan Bergarako

Larrañagako, Mujikako eta Rai- zabaleko artisauek egindako erreilenoak eta tostoia dastatzeko aukera egongo da.

Bihar, zapatua, San Martin Agirre plazan, 18:00etan.

BISITA

ELGETA Bisita gidatua lubakietara

Asentzión dauden lubakietara bisita gidatua, Espaloia kafe antzokian dagoen Gerra Zibilaren Euskal Interpretazio zentrotik. Izenak aldeztetik eman behar dira 943-79 64 63 telefonoan edo turismo@debagoiena.net-en.

Etzi, domeka, Espaloian, 10:00etan.

ANTZUOLA Bisita gidatua erdigunean

Erdigunea eta Antiguako ermita ezagutzeko bisita gidatua egingo dute. Izenak aldeztetik eman behar dira 943-79 64 63 telefonoan edo turismo@debagoiena.net-en. Antiguako ermitan hasiko dute ibilaldia.

Etzi, domeka, Antiguatik, 12:00etan.

HITZALDIAK

BERGARA Alex Txikonon hitzaldia

Lemoako mendizaleak bere bizitza berba egingo du.

Gaur, egubakoitza, Osintxun, 19:00etan.

OÑATI Oinaren zaintzaz berbetan

Itsaso Arantzabal podologoak oinak nola zaindu behar diren azalduko du.

Gaur, egubakoitza, Lagun Lekun, 17:30ean.

ARRASATE Haurra soinean eramatearen gaineko argibideak

Arrasateko Otalora kalean dagoen Belun dendaren eskutik, haurra soinean eramatearen gaineko hitzaldia egingo du Nahia Alkorta adituak. Umea eramateko modu horren abantailak eta arriskuak azalduko ditu.

Bihar, zapatua, Belun dendan, 11:00etan.

DEIA

ANTZUOLA Gaztaina erre jana

Landatxope elkartearen egingo dute. Sarrera, bi euro.

Bihar, zapatua, Landatxopen, 18:30ean.



ESKORIATZA Bertsoak Euskararen Egunaren harira

Egun osoko egitaraua osatu dute: 12:30ean euskal dantzak Fernando Eskoriatza plazan; 13:00etan *Euskaraz bizi nahi dut* argazkia; 13:15ean bertso kalejira Aitor Sarriegi eta Eneritz Artetxerekin; 14:30ean herri bazkaria; eta 18:00etan *Mihiluze* erraldoia (izen-ematea, ordu erdi lehenago).

Bihar, zapatua, aipatutako ordu eta lekuetan.



WWW.DAMETVISION.ES

OÑATI Ibon Casas

Ibon Casasek erretinosi pigmentarioa dauka eta horren erruz ikusmena ia erabat galduta dauka, baina musikari lotuta segitzen du. 2011n *DameTVisión* egitasmoa zuzentzen hasi zen. Egitasmoaren ereserki bilakatu den *Apaga la luz y verás* kanta konposatu zuen. Oñatiko gaztelekuan saio didaktikoa egingo du. Etzi, domeka, topalekuan, 18:30ean.

ELGETA Odol-ateratzeak

18 eta 65 urte bitarteko elgetarrei odola emateko dei egiten diete. Abenduaren 3an, Irizarren, 20:15ean. Abenduaren 7an, udaletxean, 18:00etan.

OÑATI Txirrinkaren bilera

Oñatiko bizikletazaleen elkartearen bilera. Abenduaren 7an, Zubikoan, 19:15ean.

ELGETA 'Elgeta kantuan', entsegua

Abenduaren 14an egingo den *Elgeta kantuan* prestatzeko entsegu irekia. Abenduaren 2an, kultura etxean, 21:00etan.

OÑATI Truke azokarako jostailuak

Abenduaren 13ko azokarako materiala batzen dihardute. Abenduaren 2an, Txalokan, 16:45ean.

BERGARA 'Idazlaguna' egitasmoa

Proiektu berria aurkeztuko dute. Abenduaren 3an, Irizarren, 20:15ean.

ANTZUOLA Lokal publikoen erabilerari buruzko ekarpenak

Udalak diagnosi bat eskatu du lokal publikoen erabilerari buruz. Orain herritarren ekarpenak batzeko batzarra egingo du. Abenduaren 4an, Olaranen, 18:00etan.

KIROLA

ARRASATE Besaideren bazkide txartelak

Abenduan, 2015eko bazkide eta federatu lizentziak tramitatutako

dituzte: altak, bajak, datu aldatketak, kontsultak... Interesatuak bi bide dituzte: abenduaren 2an, 3an eta 4an bulegoan edo *besaide@besaide.org-en*. Aipatutako egunetan, Besaideren egoitzan, 19:30etik 20:30era arte.

LEHIAKETAK

ESKORIATZA Orri-puntu lehiaketa
Udal Bibliotekan erabiliko den orri-puntua aukeratzeko lehiaketa deitu dute. Lanak bibliotekara eraman beharko dira abenduaren 9a baino lehen. Saria 150 axtroki izango da. Abenduaren 9a baino lehen, bibliotekan

ZINEMA

OÑATI

KULTURA ETXEA

Interstellar
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Yugo eta Lala (euskaraz)
Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETA

ARKUPE

Loreak
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

Haurrak eta lapurrak
Zapatua eta domeka: 17:00.

EIBAR

COLISEO

La ignorancia de la sangre
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

Sarena
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

El amor de mi vida
Zapatua: 19:45.

ANTZOKIA

Tarzan
Zapatua: 17:00.

Tarzan (euskaraz)
Domeka: 17:00.

Fuego
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ

FLORIDA

Los juegos del hambre
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 12:00.
Astelehenerdik eguztaztena: 17:30, 20:00.
Eguena: 17:30.

Fuego
Egubakoitza: 16:30, 20:35, 22:30.
Astelehenerdik eguztaztena: 17:00, 21:10.

Relatos salvajes
Egubakoitza: 18:20.
Astelehenerdik eguztaztena: 18:50.

Dixie eta matxinada zorbia
Zapatua: 12:00.

Jimmy's Hall
Egubakoitza: 17:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:45, 22:30.
Astelehenerdik eguztaztena: 16:45.

Dos días, una noche
Egubakoitza: 20:00.
Zapatua eta domeka: 18:45, 20:35.

Mortadelo y Filemon
Egubakoitza: 17:00, 19:00, 20:45, 22:30.
Zapatua: 12:00.
Astelehenerdik eguztaztena: 17:00, 19:00.

Pinguinos de Madagascar
Egubakoitza: 17:00, 19:00, 20:45.
Zapatua: 12:00.
Astelehenerdik eguztaztena: 17:00, 19:00.

Los Boxtrolls
Zapatua: 12:00.

La sal de la tierra
Egubakoitza: 16:30.
Astelehenerdik eguztaztena: 17:00.

Trash
Egubakoitza: 18:30, 20:40, 23:00.

Astelehenerdik eguztaztena: 19:00, 21:10.

Alexander y el día terrible, horrible, horroso, espantoso
Zapatua: 12:00.

Interstellar
Egubakoitza: 16:30.
Astelehenerdik eguztaztena: 17:00.

Rastros de Sandalos
Egubakoitza: 19:30, 21:15, 23:00.
Astelehenerdik eguztaztena: 20:00, 20:45.

BOULEVARD

Trash, ladrones de esperanza
Egubakoitza eta zapatua: 00:45.
Egubakoitza eta zapatua: 18:00, 20:15, 22:30.
Zapatua eta domeka: 15:45.

Los pingüinos de Madagascar
Egubakoitza eta zapatua: 18:00, 20:00, 21:30.
Zapatua eta domeka: 16:00, 17:00.

Los pingüinos de Madagascar 3D
Egubakoitza eta zapatua: 18:45.
Zapatua eta domeka: 16:45.

Mortadelo y Filemon contra Jimmy el cachondo
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.
Egubakoitza eta zapatua: 18:30, 19:30, 20:30, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:30.

Mortadelo y Filemon contra Jimmy el cachondo 3D
Egubakoitza eta zapatua: 00:45.

Los juegos del hambre: Sinsajo
Egubakoitza eta zapatua: 23:45.
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 18:45, 20:00, 21:15, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:15.

Interstellar
Egubakoitza: 18:30, 21:45.

Dos tontos todavía mas tontos
Egubakoitza eta zapatua: 00:35.
Egubakoitza eta zapatua: 17:45, 20:05, 22:20.
Zapatua eta domeka: 15:30.

Matar al mensajero
Egubakoitza eta zapatua: 22:40.

Escobar: paraíso perdido
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:30.

Dracula, la leyenda jamás contada
Egubakoitza eta zapatua: 00:45.
Egubakoitza eta zapatua: 22:45.

The equalizer
Egubakoitza eta zapatua: 23:30.

Alexander y el día terrible, horrible, horroso, espantoso
Egubakoitza eta zapatua: 18:10.
Zapatua eta domeka: 16:10.

Relatos salvajes
Egubakoitza eta zapatua: 20:00.

Pérdida
Egubakoitza eta zapatua: 22:20.

La isla mínima
Domeka: 22:20.

Las tortugas Ninja
Zapatua eta domeka: 16:30.

Rec 4: apocalipsis
Egubakoitza eta zapatua: 00:50.

Los Boxtrolls
Egubakoitza eta zapatua: 18:00.
Zapatua eta domeka: 16:00.

Operación cacañete
Zapatua eta domeka: 15:30.

KRITIKA

Ezkatuko ustelkeria

Gaurko idatziak zerikusi handia du joan den astekoarekin. *Matar al mensajero*-k AEBetako 80ko hamarkadan CIA agentziaren azpikoak ezagutzera ematen zituen. Estatuaren barnean sartuta dauden instituzioetan legez kanpo egindako ekintzak agertzen ziren. *Lasa eta Zabala*-ren istorioa ezagunagoa egiten zaigu. 80ko hamarkadan gertatuta ere, Espainiako Estatuan sortutako GAL taldearen ekintza basatia kontatzen da. Bi kasuetan, estatuaren izaten diren ezkatuko ustelkerien salaketa egiten da.

Lasa eta Zabala filmaren hasieran aditzera ematen da kasuari buruzko sumarioari eta epaiketan gertatukoari fidelak izaten ahalegindu direla. Bestalde, Iñigo Iruin ingurunean gertatzen den istorioa, hark izandako zalantza moralak, fikziozkoa da. Filmaren egileek abisatzen digute dokudrama eta fikzio estilotara hurbiltzen direla; hala eta guztiz, bi modu horien erabilerak nahasketa sor dezake kasuaren jarraipena egin ez zuten artean.

Agian, hobeto egongo litzateke bide bat edo bestea

LASA ETA ZABALA ★★★★★

Zuzendaria: Pablo Malo.

Herrialdea: Espainia.

Aktoreak: Unax Ugalde, Oriol Vila, Francesc Orella.

aukeratzea, biak batera erabili beharrean.

Malo nahiko ondo moldatzen da *Lasa eta Zabala*-ren istorioa ezagunagoa egiten zaigu. 80ko hamarkadan gertatuta ere, Espainiako Estatuan sortutako GAL taldearen ekintza basatia kontatzen da. Bi kasuetan, estatuaren izaten diren ezkatuko ustelkerien salaketa egiten da. *Lasa eta Zabala* filmaren hasieran aditzera ematen da kasuari buruzko sumarioari eta epaiketan gertatukoari fidelak izaten ahalegindu direla. Bestalde, Iñigo Iruin ingurunean gertatzen den istorioa, hark izandako zalantza moralak, fikziozkoa da. Filmaren egileek abisatzen digute dokudrama eta fikzio estilotara hurbiltzen direla; hala eta guztiz, bi modu horien erabilerak nahasketa sor dezake kasuaren jarraipena egin ez zuten artean. Agian, hobeto egongo litzateke bide bat edo bestea

ANTONIO ZABALA

Zorionak, Asier!

Asier Olabarria izan da lehen saiko lehiaketaren irabazlea.



Zuk ere 100 €* irabazi nahi?



Asier Olabarria irabazlea eta Aintzane Lasa Arrasateko Udaleko ordezkaria saria ematen.

PARTE HARTU LEHIAKETAN!

f badagogauzazailagorik

* Saria Ibai-Arteko dendetan erabiltzeko 100 euroko bonua izango da.



Badago hizkuntza-ohiturak aldatzea
baino gauza zailagorik.
Arrasaten, euskaraz.



Arrasateko euskalgintza



goiena

2014-11-28

BUKATZEKO

Aniztasuna bera ere anitza delako


- Gay kolektiboko 'bear' mugimenduko kideak Arrasaten elkartuko dira bihar, 'Arras-Bear' topaketan
- Homosexualen ohiko estereotipotik aldentzen diren gizonezkoek osatzen duten mugimendua da hori

MIREN ARREGI | ARRASATE

Iletsuak, handiak, praka bakeroz eta kamiseta edo koadrodun alkan-dorekin jantzita... Gay kolektiboan *bear* bezala ezagutzen diren taldeetako kideen ohiko ezaugarrietako batzuk dira horiek. Gayen ohiko estereotipotik aldentzen diren beste estetika bateko homosexualak dira *bear* mugimendua osatzen dutenak. 80ko hamarkada bukaeran sortu zen mugimendua San Frantziskon (Kalifornia) eta berehala hedatu zen Europara eta baita Euskal Herrira ere. Bihar, zapatua, Arrasaten egingo dute mugimenduko kideek topaketa, herria mugimenduaren topagune bilakatuta.

Lehenengoa Debagoiengan

Debagoieneko lehenengoa izango da biharkoa eta Euskal Herriko eta kanpoko *hartzak* etorriko dira: "Hiriburuetatik kanpo, herria bilakatu gura nuen elkartzeko gune. Bilbon, Madrilan etaartzelona *bear*-en elkargune asko dago; ez, ordea, herrietan", dio topaketaren antolatzaile arrasatear Patxi Uribarrenek. Eta gaineratu du: "Euskal Herritik eta kanpotik ere etorriko dira Arrasatera; Kanadatik eta Europa iparraldetik, esaterako".



Patxi Uribarren (eskuman), *Cachorro* filmeko kartelean. | A.B.

Lagunak elkartzeko aitzakia da *Arras-Bear*; gustu eta estetika berdintsuko gizonezko homosexualak elkarrekin egoteko aitzakia.

Bihar arratsaldean dute hitzordua. Poteoa egingo dute lehenik, eta afaria ostean, Hamalau tabernan. Jaizale eta Haizea tabernetan jarrai-

tuko du jaiak, eta DJ Pumukik izango du jai girotzeko ardura.

Mugimenduari erreferentziak

Hainbat izan dira telebistan zein zinean kolektiboari egindako erreferentziak. Duela hamar urte estreinatutako Miguel Albadalejo zine-

zuzendari espainiarraren *Cachorro* filma da horren erakusletako bat. Bada, beste batzuen artean, film horretan parte hartu zuen Patxi Uribarren arrasatearrak. Horren adierazle filmaren kartelean agertzea, *bear* estetiko beste aktore batzuekin batera.



Biharko *Arras-Bear* topaketako kartela. | P.U.

AZKEN BERBA



AINTZANE OIARBIDE

Argi izpiak Debagoiengan

Urte bete Fagor Etxetresnak itxi zela, urte bete Debagoiengan lurrikara itzela jasan genuela. Kooperatiben ereduaz zaltzan jarri zuten askok, Fagorren itxieraren errudunen bila ibili ziren bertakoak eta kanpokoak. Ondorio nabarmenena ehunka familiaren egonezina, kaltea, aurrezkiak galtzea, lanposturik gabe geratzea. Gure bailarak ez du tamaina horretako zaplaztekorik sekula hartu, baina orain gutxi telebistan entzun nuen kaleko gizon bat honen inguruan galdetu ziotenean: "Arrasaten beti jakin izan dugu estualdietatik irteten eta orain ere halaxe egingo dugu". Zorionez, urtebetera argi izpiak ikusten hasiak gara. Fagor Etxetresnak kataluniar enpresari esku dago orain; Eskoriatza eta Garagartzako lantegiak martxan daude. Bergarako Geyserrak aurrera jarraitzen du, eta 279 lanpostu berreskuratuta ditu Fagor CNA taldeak. Atzo jakin genuen gainera, urte bukaerarako 300dik gora langile izango direla eta inork espero ez zuen berri pozgarria jaso genuen titulur handi bezala: garbigailuen produkzioa ere martxan jarriko dela datorren hiruhilekoan. Oraindik lehen urterako 700 lanpostuetatik urrun, baina pozgarria da kooperatibistek hainbeste esfortzuekin sortutako lantegiak berriz martxan egotea. Argi izpiak Debagoiengan, azkenaldiko iluntasunean tokia eginez.

DURANGOKO AZOKA 49
kulturaren plaza

2014ko abenduaren 5etik 8ra
www.durangokoazoka.com

f @durangokoazoka

ANTOLATZAILAK:

BABESLE NAGUSIAK:

BABESLE PUBLIKOAK:

BABESLE PRIVATUAK: